

JAKIN

JUAN MARI LEKUONA
ATALONDO

ANDONI EGAÑA
EGUNGO BERTSOLARITZAREN EZAUGARRIAK

JON SARASUA
HERRI-MAILAKO JARDUNAZ

LUIS BARAIAZARRA
HIZKERA BIZIA ETA TXUKUNA BERTSOLARITZAN

JOXERRA GARZIA
BERTSOLARITZA HEDABIDEETAN

PELLO ESNAL
BAT-BATEKO BERTSOGINTZAREN DIDAKTIKA

A. KAZABON / M. MENDIZABAL
AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA

RAMON ZALLO
ETB: TXOSTEN BATI BURUZKO TXOSTENA

JOAN MARI TORREALDAI
ETB ETA EUSKARA

ASKOREN ARTEAN
EGUNEN GURPILEAN

75

MARTXOA-APIRILA 1993



JAKIN

75

MARTXOA-APIRILA 1993



Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
---	----------------	---

G	AI NAGUSIA	
---	------------	--

		11
	JUAN MARI LEKUONA	
	ATALONDO	
		19
	ANDONI EGAÑA	
	EGUNGO BERTSOLARITZAREN EZAUGARRIAK	
		27
	JON SARASUNA	
	HERRI-MAILAKO JARDUNAZ	
		19
	LUIS BARAIAZARRA	
	HIZKERA BIZIA ETA TXUKUNA BERTSOLARITZAN	
		19
	JOXERRA GARZIA	
	BERTSOLARITZA HEDABIDEETAN	
		27
	PELLO ESNAL	
	BAT-BATEKO BERTSOGINTZAREN DIDAKTIKA	
		27
	ANTTON KAZABON / MIKEL MENDIZABAL	
	AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA	

G	AIAK	
---	------	--

		45
	RAMON ZALLO	
	ETB: TXOSTEN BATI BURUZKO TXOSTENA	

		33
	JOAN MARI TORREALDAI	
	ETB ETA EUSKARA	

E	GUNEN GURPILEAN	
---	-----------------	--

		113
	ANDONI EGAÑA	
	HASIER ETXEBERRIA	
	ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA	
	JENARO GARATE	
	BEGOÑA DEL TESO	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1993ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.200 pta.	—
Ale arrunta 700 pta.	1.050 pta.	
KANPOAN		
Harpidetza	4.750 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	790 pta. (40 FF)	1.200 pta. (60 FF)

SUMMARY

POPULAR MODERN BASQUE VERSE

VARIOUS AUTHORS

According to the definition offered by the specialist researcher Manuel Lekuona, "bertsolari is literally *he who dedicates himself to verse*—that is to say, he who dedicates himself to the *making* of it which, in our case, means *singing* and singing while *improvising*, because popular Basque verse is born or is produced through song and improvisation."

This phenomenon of oral culture has not disappeared with the decline in the rural world. Quite the opposite: the bertsolari has been able to assume the anxieties and culture

of the city and has been enhanced accordingly.

Bertsolarism has already been the object of a double entry study in our magazine. The dossier we are now publishing forms the basis for discussion for some conferences on modern bertsolarism, organized by the Association of Bertsolaris. All speakers are either bertsolari themselves or experts on the subject. The question is tackled from standpoints as diverse as literature and language, teaching and didactics, journalism and its spreading, psychology and sociology.

TEN YEARS OF BASQUE TELEVISION

VARIOUS AUTHORS

In the ten years following its creation, Basque television (ETB) has been the object of many studies and articles. A large proportion of these works have been centred on the model of television. Our magazine has expressed a desire to take part in this anniversary through the articles of two experts.

These two articles contain the critiques of the authors in their entirety,

as they were presented to the Plenum of the Commission of Parliamentary Control of EITB, Basque Radio-Television.

Ramón Zallo, lecturer of Economy of Communication, analyzes the dossier prepared by the Management of EITB together with a consultant. Specifically, he refers to the programme planning model and production, the directives of the NewsServices. He cri-

ticizes the paragonmental logic inherent in news, the obsessive vision over audiences, its excessively business-like orientation, etc.

Joan Mari Torrealdai, author of a work on Basque television and the Basque Language, points out the dis-

tancing of the present model in relation to the original. He elaborates on dangerous tendencies within the present model and draws conclusions regarding the uncertain future of a Basque television without identifying features.

NEWS TODAY VARIOUS AUTHORS

In this section, as has been customary since the beginning of the year, Andoni Egaña, Hasier Etxeberria, Alfontso Martinez Lizarduikoa, Jena-

ro Garate and Begoña del Teso comment on current affairs related to the world of culture, art, science, economy and entertainment respectively.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 75. zenbakia da eta 1993ko bigarrena.

Zenbaki honetako gai nagusia Bertsolaritza da. Hirugarren aldiz heltzen dio *Jakinek* herri-literatur fenomeno honi. 80ko hamarkadan bitan erabili genuen gaia. 1980ko 14/15 zenbaki bikoitzean, *Bertsolaritza* izenburuz, bertsolaritza historiko eta egungoaren azterketa luze-zabala eman genuen. Zazpi urte beranduago, 1987ko 44. zenbakian, *Bertsolariak* izenburuz, bertsolarien soziologia eta Txapelketa nagusiaren inguruko eztabaida izan genituen gai nagusi. Bospasei urte igarod i relarik, bertsogintzaren azken-azken urteotako ezaugarriak, norabideak eta arazoak planteatu eta bideratu-asmoz datozkigu lankideak, hirugarren zenbaki honetan. Artikuluon muina eta alkantzua egoki laburbildurik ematen digu Juan Mari Lekuonak *Atalondo* deritzon sarrera-artikuluan.

Berrikitan bertsolaritzak eman duen gorakada dela eta, gorakadarekin batera bere baitan gertatzen ari diren berri-

kuntza eta aldakuntzak aztertu beharra ikusi du Bertsolari Elkartek. *Forum*-talde bat sortu zuen iaz horretarako, lan-metodo iraunkor baten bidez azterketa eta ikerketa-lanari ekitekotan. Ahalegin horren lehen emaitzatzat har daitezke lanok. Are gehiago: eskuetan dituzun lan hauek oinarri direla, *Bertsolamintza* izeneko topaketak antolatuko ditu Elkartek.

Gaiak sailean datozen bi artikuluek gai bakarra dute aztergai: Euskal Telebista bere hamargarren urtean. Martxoaren 4ean Eusko Legebiltzarreko EITBren Parlamentu-Kontrolerako Batzordearen aurrean Ramon Zallo eta Joan Mari Torrealdai esandakoak biltzen dira hemen. ETBren programazio eta produkzio-ereduak jorratzen ditu R. Zallok eta egungo hizkuntz ereduaren joerazko arriskuak seinalatzen J.M. Torrealdai.

Egunen gupilean sailean aurreko zenbakian lanean hasitako berak datoz: Andoni Egaña, Hasier Etxeberria, Alfontso Martinez Lizarduikoa, Jenaro Garate, Begoña del Teso, kulturaren eta artearen munduan, zientziaren alorrean, ekonomian eta ikus-entzunezkoen eremuan gertatu-berri denaren inguruan beren ikusmoldea agertuz.

GAI NAGUSIA

JUAN MARI LEKUONA
ATALONDO

ANDONI EGAÑA
EGUNGO BERTSOLARITZAREN EZAUGARRIAK

JON SARASUA
HERRI-MAILAKO JARDUNAZ

LUIS BARAIAZARRA
HIZKERA BIZIA ETA TXUKUNA BERTSOLARITZAN

JOXERRA GARZIA
BERTSOLARITZA HEDABIDEETAN

PELLO ESNAL
BAT-BATEKO BERTSOGINTZAREN DIDAKTIKA

ANTTON KAZABON / MIKEL MENDIZABAL
AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA

ATALONDO

JUAN MARI LEKUONA

Azken hamarkadan, eta herri-literatura esparru hartuz, agertu da ikerketa eta ikaslan ederrik euskal eremu kulturean. Eta lan berrien andana hau bulartuz eta garenduz dator eskuartean duzun talde-lan bikain hau ere.

Elkartean eginikoa izanak ematen dio bereizkuntzarik aski idazlan honi. Asko eta ñabardura berezikoak dira alorrari begira eginiko begiak. Baina batez ere, begirale bakoitza bere bizikizunetik ari zaigu, norberezko esperientzia eta gogoeta luzea jendaurrera ekarriz. Ofiziokoen langintza duzu, bertso-laritzarnesparruan egiteko jakina eta jatorra dutenen eskaintza bizia.

Ikaslan hau mamitu dutenetaz mintzo garelarik, azpimarratzekoa da berorien adina. 1985-1986 aldera plazaratuak gehienak, edota behintzat ordutik hona bertsolaritzan nabarmenduak denak. Belaunaldi berri baten atalak, azken bi txapelketen uhainean protagonismo bat eskuratu dutenak, bide berriak zabaltzen ahalegindu direnak, dela kantuan, dela irakaskuntzan eta kritikan, dela antolakuntzan. Hitz batean esateko, gaurko bertsolaritzan gertaturiko aldaketen lekuko fierrak, aurre-eskua izan dutenak, beste askorekin batera.

Jorratzen diren gaiak ere bete-betekoak dira, gaur egungo beharrei eta sentiberatasunei erantzun bat emateko apeta dutenak. Gaiak izatez zaharrak dira izan: bertsoak ikastea, jendaurreko hizkera, antolakuntza, saio bizien egokitapena, idazkeraren eragina, garaiko bertsogintzaren ezaugarriak eta gainerako aipamenak. Baina guztia klabe berriagotan emanik datorkigu, gaurko ingurugiroari dagokionez, postmodernismoaren eraginak ere barne, bertsolaritza angaiatu batetik dibertimentu huts izatera lerratzen dela.

- «Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak», Andoni Egañaren eskutik. Amurizaren ondorengo bertso-mugimendua hartu du ardatz, bertsolaritzak egun daraman abiada bizia arakatuz.

Mugimendu baten ezaugarriez zaigu mintzo. Bai mugimendua ~~rena~~ eta bai ezaugarriena, zehazketa tajuzkoak iruditzen zaizkit horrelako gai bat aukeratzekoan. Txorrota isten zaio eztabaiden iturriari. Maria bizitan dagoen mugimenduaz ari zaigu, eta horrelakoetan on da, gehiegizko zehaztasunik gabe, ezaugarriak markatzetik hastea. Bestela, gaia erretxintzeko arriskuan gerta gintezke.

Denok dakigu Egañak gaur egun dagien lana bertsolaritzaren lekukotza bizian. Bere oharpen eta gogoeten emaitza dakarkigu. Talde berri baten kontzientzia bortizki nabari zaio. Gero, ohizko eskemez baliatzen bazaigu ere, datu berriak sartzten ditu, ikuspegi gaurkotuak, programazio zurrak eta sendoak, urrats berrien minberatasun eta egituratze sistematuak.

Ez dira bazter uztekoak zenbait ezaugarri: bertsolarien profila; entzulegoaren aldakuntza, engaiamentutik ongi pasatze hutsera igaroz; telebistaz eta honen eraginaz esanikoak; espektakuluari eskaintzen dizkion oharkizunak; estrofa ren egituraz eta eraikuntzaz emaniko zehaztapenak; eta umorearen

baliabideak ere aldatu egin izanaz esaten dituenak... Dena da bizi, dena lehen eskuko: bide ematen da belaunaldi baten zantzua ohartuki bereizten hasteko, zinez ongari bertsolaritzaren norabidea zehazteko.

- «Herri-mailako jardunaz» ari zaigu Jon Sarasua. Funsezko gaia derizkiogu honi, beti izan duen garrantziaz eta orain ere daukan minberatasunagatik. Garrantzitsua dela esan behar, azpi-azpian bertsolaritzaren egitekoa zein den planteatzen denez azken batean; eta minbera ere bai, lehen mailako eta bigarren mailako bertsolariak izateak bereizkuntza mingarriak ekartzen dituenek ohorean eta diru-sarreretan.

Sakonki finkatzen ditu bertsolariaren izaera eta egitekoa. Eta alderdi historikorik aipatzen ez badu ere, historiaren hari berekoa du bere eskarmentu luze eta gogoetaz ongi egosia. Izan ere, garraio modernoak hona iritsi ziren arte, bailarako bertsolariek bete ohi zuten herri mugabarruko eginkizun artistikoa. Lekuan lekuko bertsolariak izan ziren Eguberrietako festetan kantatzeko, inauterietako jaietan abesteko bertsoak paratzen zituztenak; bailarakoak ziren gertakari zelebreen iruzkingile komiko-satirikoak. Gogora daitezke Donostiako Jose Bizente Etxegarai, Tolosako Ramos Azkarate, Donostiako Artolatarrak, Durangoko Zilarginak; baita eske-bertsoen eusleak ere, koplagingintza jatorrean beren zerbitzu tradiziozkoa eskaintzen zutenak. Eta hainbat izen eta zeregin gehiago.

Jon Sarasuak berreskuratzen du egiteko hori, egungo berrietasun ezinutzizkoa ongi eta bihotz handiz aplikatuz. Eta planteamentu egoki horri esker bideratzen du lehen eta bigarren mailako bertsolarien arteko auzia, benetan estimatuz —eskarmentuz dakielako— bailarako bertsolarien balioa, hauen egiteko jakina, bertso-saioak egiteko dauden molde desberdinetan; diruaren eta duintasunaren arazo latzak esku onez kudeatuz; eta bertso-paperen egoerari ere irtenbide bat ebakiz. Dena ekingintza luze eta bizien ondorio, ikasien gogoetatik argitua eta lidergoaren erakartasun eta indarrez aurkeztua.

- «Hizkera bizia eta txukuna bertsolaritzan», Luis Baraiazarrak gaia landurik. Hizkuntzalaritzan eta literaturan ikasidun baten oharkizunak: batzuetan ideia-mailan eta beste batzuetan kasu konkretuetara jaitsez.

Benetan aipagarriak dira lan honetan hizkera biziaren finkapenerako aipatutako irizpideak: jendaurreko hizketa, euskalkien berezkotasunak, bertsoaren psikodinamikak ezarritako nolakotasunak, eta hainbat gomendio eta salaketa zentzuzko, bertsoan erabiliriko mintzabide ederraren mesedetan.

Egia da, bertsolariek berek ere eman izan dutela horrelako aholkurik, batez ere Pizkunde garaiko bertsolariek, bertsolaritzaz eta bertsogintzaz mintzo direnean. Behar bada, bertsolaritzak alor honetan eman duen urratsik jakingarriena, Basarriren bertsolari-proiektuan ematen dena da: bat-bateko bertsotarako mordoilokeria baztertu eta mintzaera garbiago bat eskaintzeko, P.M. Otaño hartu zuten eredu, honek euskara garbia bezain herrikoia zuela ohartuz. Benetako aldaketa, Pizkundeko bertsolaritzaren ezaugarririk sendoenetako eta preziatuenetako bat.

Zerbait bestelako da gaur egungoa. Egia dio A. Egañak «Amurizak bertsolaritzari eman zion astinduaren oinarria gramatikala izan zen» dioenean. Ez bakarrik puntuen arazoan, baizik eta bertso-eskoletan erabili ohi diren bertsozko prezeptiban. Guzti honen agerpen ederra dugu Luis Baraiazarrak eskainiriko lan estimagarria.

- «Bertsolaritza hedabideetan» aipatzen digu Joxerra Garziak bere ikaslanean. Hil edo biziko alderdia izan da hori bertsolaritzaren historian zehar. Behar bada, estilo idatziaren hedabideetan sartu izanak eman dio indar bertsolaritzari, bizirik ezezik kementsu ere jarrai dezan, aldaketak aldaketa.

Jakin izan du bertsolaritzak aurrera egiten hedabideen erabilpenean. Xenpelarrek bertso-papera bertsoen zabalkunde eta gozabide nagusi bihurtu zuenetik; P.M. Otañok *Zerbait* (1895) eta *Alkar* (1904) liburuekin bertsolari-autorea bindikatu zuenetik; *Bertsolariya* (1931-1932) astekari finkoa eta bertsoz bakarrik hornituak bilduma berezien arrakasta sortu zuenetik; Basarrik kazetaritzan eta irratsaiotan bertsoa eman-kizun erakargarri bihurtu zuenetik; «Auspoa»k bertsolarien kontaera-estiloa azaldu eta landu zuenetik, bizkortzen joan da bertsolaritza.

Ildo honi jarraituz, beste bide berri bat ere aurkezten digu Joxerrak: telebistako erabileraren ondorio jakinak zehaztu eta balioztatze-lanarena. Gaurko hedabide guztiak aipatzen ditu,

luzazko eskarmentuz mintzatzen zaigularik. Baina telebistako bizikizunak urrats berriagoak planteatzera darama. Profesio-naltasunez zaigu mintzo, telebertsoen xokoak sortzaile eta zuzendari duena.

- «Bat-bateko bertsogintzaren didaktikaz» ari zaigu Pello Esnal. Gure artean nahiko berria den alor bati, autoreak glotodidaktikan zabaldurik dauden printzipioak ezartzen dizkio. Eta ondorio jakingarriak eskuratuz gainera.

Egileak ofizioz ongi menderatzen duen alorra da hizkuntz didaktika. Eta euskararen irakaskuntzan ontzat emaniko printzipioak bertsogintza ikasteari ezarriz, bereizketa ezinbestekoak egiten dizkigu, hain korapilotsu den gai honetan, zenbait muga nagusi ezarriz.

Glotodidaktika ote den metodorik egokiena alde batera utziz, egia da egileak aplikazio zehatza dagiela metodoaren erabilerran, eta hau beti da emaitza ederren sorburu, Pelloren ikaslan sakonean ikus daitekeenez.

Hezikera formala eta informala bertsolaritzari eranstea argigarri izan dela esan behar gaiaren planteamentu zehatzago bat egiteko. Hizkuntza bat ikastearen mailak eta sailak bereiztea ere lagungarri on dela ez daiteke uka. Hor ikusten da, baita ere, erretorikaren metodoa bertsolaritzari ezartzearen posibilitatea, gauza argigarrikerik ekar dezakeela honek uste baitugu.

Pello Esnalek eskarmentua ezezik, badu lagunarteko bertsogintzaren ofiziorik, eta bertso-eskoletan ere bost urtez aritua dugu ikasleekin batera. Hasieran, halabeharrez, besterenak aipatzeari ekin dio azkar sartzen delarik bere esparrura, zakukoak bizirotuz. Zerbitzu ona dagie buru-belarri lan honetan ari diren hainbat irakasle eta bertsozaleei.

- «Ahozkotasuna eta hizkuntza», Antton Kazabon eta Mikel Mendizabalek prestatua. Biok dira bertsolaritza irakasten adituak, Ikastolen Federazioak horretarako aukeratuak, ikasliburuen egileak; Mikel lehen mailako bertsolaria eta Antton bertso-jartzaile sarizatua.

Bertsolaritza eta ahozkotasuna landuz, heziketa on bat eman nahi lukete bai gaiaren ezagutzan eta bai hizkera bizian. Bertsogintza hartu helburu gisa, eta beronetaz baliatuz iritsi beste alorrak lantzerako, euskara bizi eta graziduna indartzera. Eta ez hori bakarrik, baita hizkuntza eta gramatika era for-

malean ezezik, era informalago batean ikasteko ere. Hitz batean, hezkuntzaren esparruan bertsolaritzaren alderdi pedagogikoez baliatzea.

Lanen aurkezpena egin ondoren, zera nuke azken iruzkin modura erantsi beharra: belaunaldi zaharragoko baten ikuspegia. Hiru une nagusi aipa daitezke geuk ezagutzen dugun bertsolaritzaren historian: 1. Xenpelarren bertso-berriak; 2. Basarriren bertsolari-proiektua; eta 3. Amurizaren bertso-mugimendua. Hauek lirateke, oraingo kondairaren ikuspegitik, azpimarratu beharreko hiru aldaketa nagusienak bat-bateko bertsogintza aldetik. Eta gaurko idazlanok hirugarren mugimendu honen ezaugarriak markatzeko moldatuak ditugu, azken urteotako bertsolaritzaren arazoak planteatu eta bideratzeko eskainiak.

Lehen aldaketak, bertso-paperean zuen hedapen eta gozabide nagusiena; bigarrenak, plazako bertsogintza landu zuen batipat, liburugintza ere bultzatuz bertsoen gozamenerako eta ikaskuntzarako; eta hirugarrenak ere plazako bertsogintza bultzatu du, ikus-entzunezko bitartekoez ere baliatuz bertsoen gozamenerako, bertso-liburutan sartzeko ardura txikiagoz agian; eta, gainera, jarritako bertsoen altxorra telebistarako aukeratuko diren antologiarako gordez.

Garbi dago Xenpelarren eta Basarriren garaiko auzia. Oraindik eginkizun ikusten da gaurkoaren kinka. Baina ikuskizun izanik ere, irakurleak berri ugari, ikuspegi aberasgarri eta jokabide egokiak aurkituko ditu orrialdeok barneratzen diharduen une gozoetan.

EGUNGO BERTSOLARITZAREN EZAUGARRIAK

ANDONI EGAÑA

Lehenbiziko lana egungo bertsolaritzaz ari garenean zertaz ari garen zehaztean datza. Nik Amurizaren ondorengo bertso-mugimendua hartu dut ardatz, ezaugarri nagusiak arakatzerakoan. Badira izan, ardatz horren inguruan, baina aparte, bertsolari-talde, bertsolari bakan eta horrelakoak ere. Horiek ere aipatuko ditut, pasadan beti izaten baita arrazoirik nahikoa.

1980-82 inguruan belaunaldi berri bat sortzen da bertso-munduan. Indarrez dator. Denak oso adin beretsukoak dira gainera: S. Lizaso, Peña, Telleria, Murua eta Mendizabal liriateke aipagarrienetakoak.

1985-86 aldera, berriz, beste belaunaldi bat iritsiko da. Besteak beste, Egaña, Sarasua eta Euskitze.

Hiru-lau urte geroago Sorozabal, Maia, Iturriaga, Elorza, Munduate, etab.

Dozena bat urteren buruan, beraz, izen propio mordo baten muturra agertu da lehen hain ttanttakako sarrera ezagutzen zuen bertsolarien Olinpo horretan. Izen horien aukeraketa guztiz arbitrarioa denik ez daiteke uka, uka ez daitekeen bezalaxe belaunaldi bakoitzaren inguruan izan direla ale bakan batzuk, arrazoi bata edo bestearengatik taldez kanpo antzera geratu direnak. Olalde, Loidi Saletxe II. a, Anatx...

Hasierako kokapen honekin bertsolaritzak egun daraman abiada bizia isladatu nahi nuen. Datu bakarra nahikoa izan daiteke gauzak argiago ikus ditzagun: aipaturiko izen propio horiek denak azken dozena urte honetan azaldu dira bertso-mundura. 1982ko Txapelketa Nagusiaren azkenera, nobedade handi gisan sartu ziren S. Lizaso eta Peñagarikano. Bederatzi urte geroago, 1991n, Gipuzkoako Txapelketaren azkenean beren adinkide zen Mendizabal zen parte-hartzailerik zaharrena.

INGURUAREN ALDAKETAK ETA BERTSOLARITZA NOLA BALDINTZATU DUTEN

Azken hamar urteotan bertsolaritza, beste hainbat kultur ekimen bezalaxe, espektakuluaren neurriak izatera iritsi da, horrek dakartzan alde on eta txar guztiekin. Txapelketak, berriz ere, 15 urtetako hutsunearen ondoren aldian-aldian, finkotasunez eta maila denetan antolatu izanak, izen berriak plaza-ratzeaz gain, 6-8 bertsolariko jaialdiak modan jarri ditu.

Halere, aldakuntzaren eragileak gehiago izan dira. Ikus ditzagun horietan garrantzitsuenak:

- *Bertsolari*-ren perfila aldatu egin da. Egungo bertsolaria ez da beti baserritarra. Ez da beti ikasketarik gabea. Ez da beti gizezkoa... Horrek izugarri baldintzatu du bertsogintza, bertso-produkzioa eta, ondorioz, bertsolaritza bera ere bai. Perfil honen aldakuntzari buruzko berri zehatzik jakin nahi duenak jo beza *Jakin* aldizkariaren 14/15 zenbakira.

- *Entzulegoari* so, heterogenotasuna da ezaugarririk nagusia. Gaur egun, oraintsu arte ez bezala, adin, ideologia, jatorri eta gizarte-maila desberdinetako jendea biltzen da bertso-ekitaldiaren aurrean. Saioak ikuskizunaren legetan sartu izanak, bertsolarien mezuak gero eta arlo desberdin gehiago harrapatzeak, mass-mediak bertsolaritzari eman dioten maila gorriak eta beste ezkutuagoko hainbat faktorek bertsoa jende desberdin askorengana iristea erakarri du. Halere, nabarmena da gozatzea edo ongi pasatze hutsa gero eta hamu handiagoa bihurtu dela, garai bateko kezka politiko, kultural eta linguistikoez gero eta pisu gutxiago duten bitartean.

- *Komunikabide*-ei dagokienez, egun, bai prentsa idatziak, bai irrati nahiz telebistak, toki bistakoa eskaintzen diote bertsolaritzari. Kasu honetan aldaketa zenbatekoa izan den ez dago zehaztu beharrik ere: orain 10 urte pasatxo ez zen irrati nahiz telebista publiko euskaldunik eta oraintsu arte egunkari euskarazkorik ere ez. Bada, beraz, eremu bat non bertsolaritzari buruzko zabalkuntzak eta hezkuntzak tokia izango duten.

Prentsa idatziari gagozkiolarik, aurrerapausoa nabarmena izan da. Garai batean, kronika soila egiten zen, egiten zenean. Orain, kronika kritikoak egiten hasiak dira, alde batetik kritikari-labealdi bat sortuz, bestetik publikoari pistak eta norabideak emanaz eta, azkenik, bertsolariei beraiei lana profesionaltasun handiagoz har dezaten eraginez.

Telebistak, berriz, meritu eta zerikusi handia izan du bertsolaritzaren zabalkuntza-p rozesuan. Jakina da telebista dela zerbait ezagutzera emateko modu egoki eta azkarrena. Orain zabalkuntza horretatik hezkuntza-une batera igarotzeko unean gaude. Ahalegina latza da, edozein ekimen-mota medio horretara egokitzeak dakartzan zailtasunak handiak diren heinean. Halere, burutazio hori eta ondorengo eztabaida irekiak dardenez, apurka jorratuz joan daitekeen alor gisara ikusten dut.

Irratia izan da bertsolaritzaren zabalkuntzarako biderik tradizionalena. Gutako askok eta askok bertsolaritza irratiaren bidez ezagutu izan dugu. Bada zerbait. Litekeena da, ordea, gutxi aurrera egin duena ere irrati izatea. Ez dakit arrazoirik. Irratiak ere kezka sortu behar luke, hortik ere alor berriak jorratzera abiatzeko adinakoa gutxienez.

- *Antolakuntza-arloa* e re aldatu egin da. Garai batean baino seriotasun handiagoz ekiten zaio bertso-saioen eraketari. Salbuespenak salbuespen, beste edozein kultur ekitaldiren bide bera jarraitzen du bertso-antolatzaileak kontratatu, iragarri, antolatu eta burutzerako garaian.

Dena den, bada honen inguruan eta bertsolariaren figura-
ren inguruan zer komentaturik. Produktorak ez dira ia bertso-mundura iritsi eta hargatik produktore-papera askotan bertsolariak berak egin behar izaten du (irabazirik gabe jakina). Horri erantsi behar diogu egungo zenbait bertsolariren perfila honakoa dela: instruitua da, lanerakoa, telefonoa duenez nahiko topaeraza, lagunak telefonoz topatzen dakiena, bertsoak botatzeaz gain bertsoaz teorizatzen ahalegintzen dena, kultur eta gizarte kontuetan zer esanik baduena... beste hitz batean esanda «denerako morroi». Horregatik enbajada-piloa eroriko zaio, izan ere, herri-artista hurbila baita, ez izar urruna, bukatu o rduko kamerinoetan babes daitekeena eta, ondorioz, bere lanean, bertso-produkzioan galera ekar dezake. Profesional t a s u n / e z-p rofesionaltasun nahasi batean mugitzen da, beraz, bai bertsolaria, bai inguruko egituraketa ere. Agian halaxe beharko du baina epe motzera aztertu beharreko gai gisara ikusten dut.

BERTSO-SAIOEN EZAUGARRIAK

- Txapelketak, azken 10-12 urteotan erregularitasunez antolatzen dira eta esparru denetan gainera. Hasi Nagusietatik, segi Probintziakoekin eta ohizko Gazteen Txapelketekin eta bukatu Eskolartekoekin, esparrua aski ongi bete da. Txapelketen beharra eta onurari buruzko azterketetan sartu gabe, oro har antolakuntza on eta erantzun hobekoak gertatu izan dira.

Agian sail bat geratu da atzendu samarrik: herrialde-mai-lako bertsolariena. Goian aipaturiko txapelketa horietan toki-rik ez baina bertsolari diren haiei leku bat eskainiko liekeena. «Fernando Amezketarra»ren antzeko lehiaketa batzuen hutsunea nabari da.

- Nagusitu den bertso-ekimen mota jaialdiena da. Txapelketen tradizioan oinarriturik, antzekotasunez, 4, 6 edo 8 ber-

tsolariko jaialdiek ugaritze handia izan dute. Jaialdiaren beraren egiturak, bertsolari bakoitzak dozena eta erdi bertso botako ditu gehienez, eta inguruko faktoreek (telebista eta irratien presentzia nagusiki) bertsotan egiteko moduarengan eragina izan dute. Bertsolariak jaialdian zehar intentsitatea bilatuko du, denbora gutxian gauza asko eta onak esateko modua, almazena hustekoa, betiere gailurren bila, ikuskizunera joan den entzulea asebetetzeko eta irratiz nahiz telebistaz «emangarri» den zerbait burutu asmoz.

Honek azaletik dirudien baino garrantzi handiagoa du. Bertsolari-klase bat beste bertsolari-klase baten gainetik ipini du; arrakasta duen bertsolaria noizbehinka gailurrak joko dituen hura da eta ez batezbeste beti ongi ari dena baina hortik gora jotzeko gauza ez dena. Hargatik, ohizkoa hautsi nahian, erabiltzen ditu egungo bertsolariak hainbeste literatur baliabide. Hargatik jokutzen du hainbeste antzerki-elementuekin, dela keinu eta gorputz-mugimendua, dela ez dagokionean txandari lotzea...

Gainera, bada beste xehetasun bat, bertsogintzan eragina izan duena: zenbait gai alde zurretik ematearena. Honek nolabaiteko aldea ekarri du bertsolari-taldera. Bertsolari batzuek, X denbora emanez gero, beren bat-bateko bertsoaren batezbesteko maila ikaragarri gaitzen dute. Beste batzuek, askoz ere gutxiago dakite hobetzen eta, azkenik, badira ia abantaila hori aprobetxatzeko baliabiderik ez dutenak ere. Horrek dexente markatu du bertsolari batzuen gorakada eta besteen beherakoa (sic). Halere, inoiz gaiak aurretik ematea komenigarri den ala ez zehazteke, alde on bat izan du jokaera horrek: bertsolariok ikasi egin dugu gure ahalmenaren muga non koka daitekeen. Alegia, bost minutu emanda egiteko gauza garena bat-batean ere lor genezakeela, tarteko ohitura, ahalegina eta suertea ipiniz.

- Bertso-afari eta modukoek ere ugaritzea izan dute azken urteotan. Garai batean bertsolaria norbere herrian ikustea nobedadea zen. Gaur egun telebistako izar horiek norbere herriko mutil zaharrari adarra jotzen, aguazilari edo koinatari kantari hasteak ere badu hurbiltasunaren xarmarik.

Gai libreko jardunak izaten dira gehienetan bertso-afariak, jardun luzeak eta gaiak bertsolariak berak topatu beharrekoak. Kontuan harturik egungo bertsolaria intentsitatean ohi-tua eta hezia dela, ez du garai batekoak bezain erraz tenporizatzen, denborari eusten. Herria goratuz 10 bertso bota beharrean 2 edo 3tan egingo du kunplimentuekikoa. Apaiza tentatzen hasita ez da dozena bat bertso botatzera iritsiko. Ohitua dago 3 edo 4tan nahi duen dena esaten eta astintzen.

Horrek zer esan nahi du? Denbora eta tokia nahikoa izaten duela esperimentu berrietarako. Umore-bide berriak saiatzea, bertsolaritzari buruzko bertsolaritza lantzea, doinuen probak egitea... dira horrelakoetan egin daitezkeen eta egiten ez ditugun zenbait proba.

- Gai-jartzailerik gabeko saioak beti egin izan dira, herriko jaietan, afarietan, omenaldietan... Azken urteotako berrikuntza, ordea, saio horien onura eta premia teorikoki defendatzen etorri da. Xabier Amuriza ahalegindu da horretan nagusiki. Txapelketen egituraren islada baino ez ziren jaialdien kortsean estuegi sentiturik bide hau jorratzera abiatu da. Saio osoaren ibilbideari ematen zaio garrantzia eta ez une jakin batean lor daitekeen danbadari. Intentsitatea, komunikabideentzat salgarria izatea eta honelako beste zenbait kontzepturen guztiz kontrako jarduera da, eta horrexegatik bertsozalegoa horretara hezitzen ez den bitartean esker txarrekoa gerta daitekeena.

- Gai mugatutako saioak ere antolatzen dira azken boladan. Bertsolaria beti paperean ikusi beharrean bere egiazko itxuran jartzen dute eta ikuspegi horretatik iragaziko ditu tokatzen zaizkion gaiak ere. Saioaren izenburuak mugatuko du kantatzen ari denaren paper orokorra: gipuzkoarrak, gazteak, txapeldegaiak, bizkaitarrak...

FORMA-EZAUGARRIAK

Askoren ustearen kontra, Amurizak bertsolaritzari eman zion astinduaren oinarria gramatikala izan zen. Amurizaren inbenturik funtsezkoena honetantxe datza: hain zuzen ere, propio, errimak sail gramatikal desberdinetatik hartzean bertsoero. Honela, adjetibo bat, adizlagun bat, sustantibo bat eta aditz-erria nahasiko zituen errima gisan bertso bakoitzean.

Arrazoa nabarmena bezain praktikoa zen. Sail gramatikal bakoitzeko hitzek egitura gramatikal desberdinak eskatzen zituzten aurretik eta, ondorioz, gauza desberdin asko esateko era zeukan bertso bakoitzean.

Toki onean geratzen ziren Uztapidek edo Lasartek lau konpletibaz edo lau aditz laguntzailez bertsoak dotore osatzen zituzten garaiak!

Azken hamarkadako bertsolariak Amurizaren zordun gara alde horretatik. Kontuan izan behar da gure hizkuntz gaitasuna (prosan edo hizketan ere) pobretu egin dela neurri batean eta, aldiz, gure erreferentzi kultural eta ideologikoak zabaldu egin direla. Beraz, «gehiago» esan genezake baina era «gutxiago» dauzkagu esateko.

Datu horri beste bat erantsi behar zaio. Egungo entzulegoa zabala da eta esatekoa denek ulertuko dioten moduan esateko premian aurkitzen da bertsolaria.

Ondorioz, formatan halako uniformizazio bat iritsi zaigu. Ez dirudi, baina hala da. Puntako bertsolariak ez dira bata bestearengandik formalki desberdinak. Denek errima-joko beretsua erabiliko dute, denek oreka beretsua bilatu nahi izango dute esan nahi dutena esateko esaeran zenbat arriskatuari dagokionez. Forma-antzekotasun hau hausten dutenak gainera nekez irtengo dira garaile burruka horretatik. Nork eskatzen dio bertsolariari gaur egun, errima estua edo bitxia erabil dezan? Inork gutxik. Nork erabiltzen du errima estua eta bitxia ondorioz? Inork gutxik baita ere. Aiarren bertsolari-taldeak, oso gutxi ibiltzen den bertsolari edadekoren batek, Goierriko zenbait bertsolarik... Amurizaren inbentua «aprobetxatzen» asmatu ez dutenek oro har.

Gaur beste arte-mota askotan bezala, «funtzionatu», «potentea», «komunikazioa» eta honelako kontzeptuek definitzen dute bertsogintza eta ez garai bateko «eaaarra bertsoa» ilun bezain argi hark. Gaur «zer» esan den edukitzen du gogoan bertso-entzulearen ehuneko handi batek eta «nola» esan duen ez du kontuan eta gogoan hartzen. Hizkuntzaren estetikarekiko ardurarik eza, memoriaren ahulezia erabili premiarik ez daukagun garaiotan... mila izan daitezke arrazoiak.

Hori bai, formetan berdintasuna beste era batera hausten da. Hain zuzen ere, bertsoaren ezkerretatik. Errimak sail gra-

matikal desberdinetatik hartu izanak bertsoaren ezker aldean jolas handiagoak egiteko aukera ematen duelako. Hor bai nabaritutako diogula bertso bati Peñarena den ala ez, Lizasorena ala Agirre rena den, Egañarena ala Euskitzerena. Hor bai figura literarioekin joka genezakeela eta gero eta gehiago jokatzen dugula. Onomatopeiak, errepikapenak, hizkuntz arrotzetako hitz edo esaldiak, errefrau zaharrak, zitak...

Beraz, garai bateko bertsogintzarekin alderatuz, gauza gehiago esaten da, itxuraz era gehiagotan eta formula gramatikal gehiagorekin, baina denok berdintsu.

Horiek dira, nire ustez, egungo bertsogintzaren formaren nondik norakoak mugatzen dituzten ezaugarriak. Ikus dezagun zertan gauzatzen diren.

FUNTZIONATUKO DUTEN NEURRI ETA DOINUETARA MUGATU

Inoizkoak baino doinu gehiago dakizki egungo bertsolariak. Aldiz, bertsolari bakoitzak ez ditu doinu asko erabiltzen eta gainera gehienek aukera beretsua egiten dute. Estetika, doinuaren edertasuna eta egokitasuna atzendu egiten dituzte beren produktoa hobeto saltzeko lagungarri ez bazaizkie. Azken batean entzulearengana ongien nola iritsi neurtzen dute eta horren arabera jokatu, inolako kontzesiorik egin gabe.

Neurriekin gauza bera gertatzen da. Esan beharreko hura zer neurritan tolestatzen duten ongien, hartantxe arituko dira. Normala eta zilegi. Baina azken boladan bertsoaren egiturari berari dagozkion neurri batzuk (txikikoak) izugarri gutxi erabiltzen dituzte, eta hori zilegi izan arren kezkarri ere bada hein batean. Zer da gertatzen dena? Nagia txikian egiteko? Seguraski ez. Seguraski egungo bertsolariak hobeki tolestatzen ditu handian bere burutazioak. Txikia elipsia da, lotura ilogikoak, zorrotasuna; handia, berriz, jolasa, zertzelada, literatur baliabideetarako arloa. Litekeena da egungo gizakiak biltzen duen informazio-pila, duen formazio sendagoak eta, ondorioz, sortzen zaizkion zalantza eta itzulinguruek «handia»n arnas-leku hobia topatzea. Litekeena da.

BUKAERA POTENTERIK EZ BADA... POTENTZIA HASIERATIK EMAN

Bertsoak bi zati ditu beti. Pentsatu dugun hura eta pensatu ez dugun hura. Gaur egun bertsolariak baditu baliabideak,

batipat pentsatu duen hura behar bezain indartsua iruditzen ez bazaio, pentsatu ez duen hartan karga jartzeko, diren baliabideak direla medio. Hartara, bukaeran ohizkoa den interes-gunea «igo» egiten da eta, bidenabar, baita bertsoaren maila ere. Horretan datza bertsolarien estiloa lantzeko era, uniformitate sakoneko hura azalez kamuflatzeko bidea.

BERTSO LOTUA GOITIK BEHERAINO

Ezinbesteko ezaugarria da egungo bertsolaritzan. Bertsoak lotua behar du goian aipaturikoa egin ahal izateko. Estilo-lotura, lotura ideologikoa eta lotura gramatikala ematen dira gainera alerik hoberen eta orekatuenen haietan. Eta lotura gramatikalak pentsatu dugun hura puntu bakar bat izatetik bi izatera darama. Ondorioz, «tabula rasa»tik abiatutako inprobisazio hori gero eta txikiagoa da eta baita bertsoaren sorpresa-elementua ere, egun bertsoaren azkenbigarren puntuaren lehen silabetan egiten baita askotan bukaeraraino eramango gaituen egitura gramatikalaren eta esaldiaren hasiera.

ERREGISTRO DESBERDINETAN JARDUTEN AHALEGINDU

Garai bateko euskaldungoa berdina goa zen bizikeraz, ogibidez eta ezagupenez oraingoa baino. Egun euskara desberdinak egiten dira. Zaharrek, gazteek, mekanikoek, legegileek, pasotek eta burrukek, denek ere euskara egin arren ez dute hizkuntz erregistro berbera erabiltzen. Bertsolaria horren jakitun da eta gero eta premia handiagoa du paper bat egiten ari denean dagokionaren ahotan dagokion hizkuntza jartzeko. Sinesgarritasunean irabazten du, kolpearen indarrean eta bertsoaren muin den hizkuntz jolasean ere bai.

HIZKUNTZAREN GABEZIEKIN EGITEN DUGU TOPO

Aurreko puntuari guztiz loturik doa hau. Lehen, bertsoan gauza batzuk bakarrik esaten ziren eta hizkuntz modu bakar batean. Egun, goiko puntuan azaldu dudanez, bertsolariak baditu beste hizkuntz trebetasun batzuk azaltzeko aukerak eta premiak. Baina euskararen beraren mugekin egiten dugu maiz topo. Pasoten jergarik, burruken esamolderik, legegileen hizkerarik ez da finkatu hizkuntzan oraindik. Bertsolariak nekez islada ditzake beraz. Zer irtenbide geratzen zaio? Erre-

gistro arrunta hautsi nahi duenetan, gehienetan behintzat, erdal esamolde eta espresioetara jo beharra. Aurrera begira irakaspideak bi norabidetan joan daitezke: euskarak hizkuntz erregistro horiek finkatu ahala bertsolariak ikasi eta erabili egingo ditu eta entzuleak estimatu. Alderantziz, bertsolariak izan daitezke beren ahaleginez espresamolde berriak jorratu eta euskararen gainerako erabilbide zabalagorako asma ditzake-teenak.

EDUKI-EZAUGARRIAK

Lehen aipatu dugu bertsozalegoa zabala dela, heterogenoa. Edozein frontoi edo aretori begirada bat botatzea nahikoa litzateke horretaz jabetzeko. Hori horrela gertatu izan dadin zerbait izan da eragile. Eta eragile hori bertsoaren semantikan gertatu den aldaketan datzala pentsatzekoa da, bertsoen forma aldatu den arren, ez baita horrenbeste ere aldatu eta, gainera, arrazoi sakonagokoetan oinarriturik mudatu baita. Sakoneko zerbaitek bereganatu du, beraz, hainbat euskaldunen arreta. Nola edo zertan zehaztu daiteke, ordea, bertsoaren edukiei dagokienez izan dugun aldaketa? Esan daiteke egun inoiz baino bertsolari diferente gehiago daukagula eta gainera bertsolari horietako bakoitzak kultur erreferentzia asko eta desberdinak dituela. Alegia, Lopategi, Murua eta Peñagarikano elkarregandik guztiz desberdinak izateaz gain, hiruretako bakoitzak badakiela gai bati serio, besteari txantxan, hurrengoari ironiaz eta beste bati dramatikoki heltzen. Inoiz baino gai gehiago jorra daitezke estilo eta ikuspegi bata bestearen-gandik oso urrunekotik.

Egun, gai diferente bakoitzak bertso desberdinak eskatzen ditu. Manuel Lasartek Txinan goseak hiltzen ari zirenei kantatuz bere lepo mehearekiko konparazioa egin ezin izan zela bukatuko zuen saioa. Zer moduz bizi zen galderari ere hor nonbait aplikatuko zion arrazoibide beretsua. Eta zilegi zen bere garaian. Orain, Sarasuak Txinako egoera esplikatzerakoan egunkarirako hitz-lauz idazterakoan adinako ahalegina egiten du bertsoan azaltzerakoan ere. Eta zer moduz bizi den galdetzen badiote, berriz, auskalo zein erregistro, zein estilo eta zein bide auke-

ratuko dituen. Txinarekiko zerikusi handirik ez duena behintzat bai.

Exenpluak, karikatura orok duen balio dudagarria zuen, baina nire ustez, horretan legoke gero eta gizarte-zati zabala goei bertsolaritza erakargarri gertatzearen sekretua.

Baina horrek ez du den-dena argitzen. Aipatu aldaketa horiek Amuriza txapeldun zen garaietan suma zitezkeen jadanik. Orduan, ordea, 1990 aldera izan den ikus-entzuleen «boom» hau urrun zegoen oraindik. Bestelako faktore batek, bertso-gintzaren kanpoko faktore batek, erakarri du egoera: bertsolaritza mass-media delakoetara indarrez iritsi izanak.

Mass-mediak edozein ekimen, talde edo pertsonarekin egiten dutena tipifikatzea da, estereotipatzea, laburtuz definitzea, edozeini, edozer eta edonor ulergarri gerta dakion moduan.

Oso urte gutxian bertsolari-sail bat definitu egin da, estereotipatu, lan hori hiru erpinetatik abiatu delarik: bertsolariak bere buruaz egin eta saldu duen imajina, komunikabideek bertsolariaz saldu duten erretratoa eta publikoak bertsolariaz egin duen ustea. Hiru bektore horiek, inorentzako traumarik gabe erdigune bakar batean topo egiten dutenean bertsolaria definitua gelditzen da.

Eta hori da egungo bertsolaritzaren ezaugarri nagusienerarikoa: entzulea, halako bertsolari nolakoa den jakinik, halako gaiari edo halako unean nola erantzungo duen jakin-minez joaten da. Potoa teknikoki zer den edo bertso bakoitzean zenbat errima erabiltzen diren asmatzen ez duen bertsozale dexente da. Denek dakite, ordea, S. Lizaso arrankeko bertsolari segurua dela, Peñagarikano xeble eta zirikatzailea, Euskitze txukuna (potoa edo hankaluze bat zer den jakin gabe ere badakite Euskitze txukuna dela!), Murua bihozbera eta goxoa...

Hori ez da kasualitatez lortzen. Lehen aipaturiko Hirutasun Santu horrek estereotipo batzuk sortzen ditu eta estereotipo horiek, gaur egun inoiz baino gehiago izan arren, betiere mugatuak dira numeroan. Beraz, bertsolari denek bilatzen dute bere estereotipoa (Murua adibidez exageratuki baju kantatuz, gai guztiak alderik sentimentalenetik helduz edo doinu-aukeraketa egiterakoan berari zein doinuk funtziona liezaiokeen ojo ibiliz), baina ez dute denek aurkitzen.

Horretantxe datza arazoa. Bertsolari estereotipodunak bertso soilaren gaineko balio erantsi batez jokatzeko duen bitartean, estereotipo jakin bat egiten eta saltzen, mass-mediek sal diezaioten eta entzulegoak errekonozitu dezan lortu ez dutenek balio erantsi hori gabe jarduten dutela.

Eta bertsolaritzaren etorkizunaren aldetik arriskua aurrikus daiteke. Egitura piramidala beti izango da bertsolarien artean. Alegia, behean bertsolari gehiago izango da goiko puntan baino, baina komeni da piramide hori aldian-aldian berregin dadin hautsia ez izatea. Hausturarik ez da izango bertsoak bere-berean neurtzen eta gozaten ikasten badugu, bertso onak botatzen dituzten asko baitator. Hausturarik izan daiteke, ordea, bertsoaren estetika eta ontasun-neurria bere-berean ezagutzen ez dakien bertsozalego baten ildotik. Ekuazioa nabarmena da: bertsolariak lehenago eta ziurrago berritzen dira estereotipoak baino. Hezi dezagun bada bertsozalea bertsolariak identifika ditzan eta ez estereotipoak.

Estereotipodun ala gabe, bertsolariek eduki desberdinak jaulkitzen dituzte garai batekoen aldean. Lehen aipatu dugu kultur erreferentzia gehiago duela egun bertsolariak. Ikus ditzagun zertan gauza diren, gainetik bada ere:

- Komunikazioa da helburu bertso-saio batean. Lehen edozein saio akontezimendu zen garaian, komunikazio hori lorterrazagoa zen. Egundak, zerbait desberdina egiten ahalegindu beharra dago askotan. Alde horretatik entzulearekiko probokazio-bidea da berrikuntzetariko bat. Entzulearen arreta ongi esanaz eta zurikerian bezalaxe beregana dezake bertsolariak gordinkeria ala egia mingarrien bitartez. Azken batean bi bideak dira baleko. Kontua da bat oraintsu arte ez zela erabili.

- Beste berrikuntzetariko bat gaiari halako distantzia batetik eustean datza. Ez dago zertan beti esaten dena sinesten dela transmititu beharrik. Bertsolaria hitzekin eta ideiekin jolasean ari da eta komunikatu nahi duena, hain zuzen ere, hori da: bere erlatibotasun-ikuspegia. Ironia, sarkasmoa... lan-tresna bihurtu da zenbait bertsolarirengan.

- Umorearen baliabideak ere aldatu egin dira. Bertsotan erabili izan den umore-mota oso da zuzena. Halakok halako esan zioek eta halakok halako erantzun. Umore zuzena, izkinik

gabea, berbala, hitzetan soil-soilik oinarriturikoa, ditzolarien usantza zaharrari jarraiki. Orain beste joera batzuk ere suma daitezke. Umore ingelestzat ezagutzen dugun horretan egiten den «jugada» nagusia bertsoan aplikatu izan da inoiz edo behin azken aldian.

A egoeran hitz-joko, egoera edo txiste bat aurkezten da.

B egoeran fikzioak aurrera darrai, lehengoa ahaztuta.

D egoeran, inork espero ez duenean A egoerako hitz-joko edo txiste hari heltzen zaio.

Amurizak libreko saioetan inoiz egindako jugada da.

Hortik umore absurduago batera urrats bat baino ez dago. Eta nola egiten da umore absurdua? Kultur erreferentzia askoren jabe izanik, egoera jakin batean egoera horri ez dagozkion baina aldi berean pertinenteak diren hitz-joko eta arrazoibideak erabiliz. Azken Gipuzkoako Txapelketako ekarririk handiena arlo horretan izan zen. Entzuleak segituan ezagutu eta estimatu zuen Sarasuak erlijio-gai batean, egoki, «inbertitu» ekonomi arloko hitza sartu izana. Lizasok ere, segituan antzeman zion trukoari. Bi aste baino lehen, erlijio-gai batean «garantia» hitz klabea erabili zuen arrakastaz.

Umore beltza, marroia neurri batean, oraindik lantzeke dauzkagun arloak dira.

ERANSKINA

BEREZKOA

Berezkoaren kontuak merezi zuen eranskin bat berak bakarrik potolo-potolo horietakoa. Pasadizo ezagun bat hasteko: Bertsolari Elkarteko bazkide-txartela betetzen ari zitzaion Elkarteko langilea paper eta boligrafoari Sacamantecasi baino beldur handiago zien kasi-bertsolari (sasi-bertsolari gogorregia litzateke) edadeko bati.

—Izena?

—Halako.

—Deiturak?

—Halako eta halako.

—Adina?

—Zer?

—Edadea?

—Hainbeste.

—Bizilekua?

—Halako.

—Ikasketak?

Haserre bizioan mahaiari ukabilkada bat eman zion eta ia bere onetik irten zen.

—Ikasia batere ez! Batere ez nik ikasia! Dena *berezkoal*

Bertsolaritzaren inguruan mitorik izan bada berezkoarena da beste guztien gainera eta bertsolaritzan aldaketarik izan bada, garrantzitsuena mito hau kolokan jarri izateko dator.

Bertso-eskolak lehen frutuak ematen hasi ahala piztu zen eztabaida. Ordurarte bertsolari gutxi batzuk ziren. Hain gutxi ere Jainkoak ondo-ondo apartatutzat baitzeuden. Gazte edota ez hain gazteak Ahalguztidunari instantzia aurkeztu beharrean herriko ikastolak, AEKk edo dena delakoak antolatutako bertso-eskolatan izena ematen hasi zirenean asko eta asko aztoratu egin ziren.

—Hortik ez duk bertsolaririk irtengo— esan zuen Etxaniz herriko estankokoak.

—Nola irtengo duk bada! Horretarako berezkoa behar dik!— erantzun zion ondorengatik betidanik karlista izan eta orain nazionalista zen Kortabarriak.

—Basarrik ere hala jartzen zian— amaitu zuen kuadrilako ilustratuak. Alferrik jardungo zirela berezkoak ez zuenarekin bertsolaria egin nahian.

Hainbeste urtean estrainekez denak bat etorri ziren eta hamaiketakoak ez zuen ohizko piperrik eta gatzik izan.

Mito horren inguruan, uste tinko horren eraginez, gutxitan bezalako injustiziak egin izan dira bertso-munduan. Xabier Amurizak, birritan Euskal Herriko txapela jantzita gerora ere «prba» asko jasan behar izan ditu. Adi eta erne egongo zen entzulegoaren zatirik klasikoan hura antiojodunak zer esango, nola esango eta batipat... non huts egingo. Ikasia zelako, beste askok ez bezala, erakutsi egin behar izan zuen begi-bistakoa: bertsolaria zela.

Gainera, zurikeria eta epeltasunaren gailurra iritsiz bada ala ez da terminoen artean planteatzen zen eztabaida, ez on, oso on, erdipurdiko, txar eta oso txar adjetibo kalifikatzaileen inguruan. Arrazoia xumea da. Baden ala ez den Jainkoak erabakitzen du, Jainkoak banatutako paxientziek nahiago baduzue. Oso on, on, erdipurdiko, txar edo kalamidade den esateko norberak busti behar du ordea. Eta Euskal Herrian hain gara mottelak horretan!

Beraz, zeru-lurren egileak eman bazion eman zion eta ez bazion eman, zer egingo zaio bada, ez zion eman. Gainera, berezkoaren aurkakoa ikasia da. Berezkoa, hain kontzeptu harrapakaitza izanik kontrakoari esker definitu izan da eta ez dakigu zer den baina zerbait ona dela bai. Ondorioz, ikastea, ikasia izatea, ikasten ahalegintzea, eta abar, pekatu mortalen hurrengo izan dira zenbaiten mentalitatean, ezjakina izatea meritu bihurtzeraino.

Non ikusi da horrelakorik?

Azken urteotan bertsolaritzan eman den aurrerapausorik sendoenetakoa, eman prezixuenetakoa, berezkoaren mitoa zalantzan jarri izatetik heldu da. Itsu-itsuan berezkoaren mirarrietan ez sinistuak ezaugarri jakin batzuk ekarri ditu eta bertsogintzaren ezaugarriak baldintzatu ditu.

Bertsolari-belaunaldi sendoak eta maila onekoak sortu dira.

Bertsolari horietako bakoitzak, bertsolaritza fenomeno dinamiko gisara hartzen ikasi du, bakoitza gehiago ala gutxixeago bere ezaugarrietan eboluzionatuz, orain artean oso gutxi erabili izan den arma baten bitartez: autoebaluazioarena.

Entzule arruntak bezala kritiko adituagoek ere, beste edozein ikuskizun eta arte-ekoizpenen ikuspegitik neurtu eta baloratu dituzte bertsolariak.

Bertsolariak, bertsogintza, bertsolaritza eta inguruko faktoreak ibilian doazen zerbait bezala ikusten ditugu egun gehien-gehienok. Azterketa honen arrazoia eta zioa ere horixe zen. Hots, bihar goizean bertan idatzitakoen erdiak gutxienez, arbuaiatuko nituzkeela.

HERRI-MAILAKO JARDUNAZ

JON SARASUA

Bertsolaritza definitzeko era asko ezagutu ditugu gure inguruan: jolasa dela, jokia dela, kirola dela, literatura dela. Xabier Amurizak, denak batuz, dibertsioa azpimarratzen du *Hitzaren Kirol Nazionala* liburuan. Hauek ukatu gabe, ni bertsolaritzatik barik bertsoetik abiatuko nintzateke. Bertsoa *komunikatzeko formula* bat da niretzat. Denboran zehar Euskal Herrian arrazoi eta kasualitateen bidez finkatu den formula simple bat: hitzak era jakin batean neurtu eta errimatuz kantatzea. Sortu, seguru asko dibertsiorako sortuko zen. Beste hipotesi batzuk ere egon daitezke, baina kontua da, gero formula hori zertarako erabili den.

Formula hau, bere ezaugarriengatik, edo besterik gabe ohizko berbaz besteko formula bat delako, hainbat gauzatarako

erabili da historian zehar: istorioak kontatu eta gordetzeko, dibertitzeko, kritika soziala egiteko, etab. Batzuetan literaturara hurbil daiteke, besteetan kirola izan daiteke. Garrantzitsuena da formula hori leku eta funtzio askotara molda daitekeela ikustea. Hitza denez, hitz inprobisatua eta beti berria, oso malgua edo bersatila da. Eta nire galdera hau da: gaur egun zertarako erabiltzen da formula hau? Erantzuna nahiko zabala da: koadriletan dibertimendu informal gisa, otorduostetako jolas gisa, errito sozialetan (hiletetan, mitinetan...) osagai gisa, eskola formaletako ikasgai gisa, bertso-eskoletan langai gisa, jaietako ekitaldi gisa, espektakulu ordaindu gisa, konpetizio gisa...

Guzti hau bat-batekoari dagokionez. Idatzizkoa oraingoz aparte utziko dugu, beste atal beterako.

Bat-bateko bertsogintza agertzen den gune eta era desberdinak ikusita iruditzen zait alferrikako eztabaida dela bertsolaritza joko, jolas edo literatura gisa definitzen hasia. Bertsoaren formula oso zeregin desberdinetara moldatzen da. Eta moldatuko da, bizi bada. Esan nahi dut, agian hurrengo hamarkadan publizitateak bertsolaritza deskubrituko duela eta iragarkiak egiteko ere erabiliko dela, jendeari inpaktoa egiten diolako eta memorian gelditzen delako. Kasu konkretu honetan bertsoa ez da izango ez kirol, ez literatura.

Azken aldian ikuskizun-mailan dago bertsolaritza indartsuen eta, hemen ere, era eta formaltasun-maila desberdinak hartzen ditu: otorduostetako jardunak, jaietako plaza libreak, beste ekitaldien barneko saioak, gaiak emandako jaialdiak, txapelketak, komunikabideak...

Gune desberdin guzti horietan, ikuskizun-mailakoetan eta besteetan, aldagai-pila bat aldatzen da: tokia, formaltasun-maila, entzule-kopurua, bitarteko teknikoen beharra, gaien modalitatea, bertso-motak, bertsolari-kopurua eta mota, etab. Nik azken hau aztertu nahi nuke lan honetan: bertsolarien banaketa.

BANAKETAREN ARAZOA

Aspaldi honetan bertsolaritzan zerbaitek kexua sortu badu, bertsolarien banaketa izan da. Batzuk gehiegi dabilzala, denontzako lekurik ez dagoela, bertsolari asko bazterten dela... Ber-

tsolari-talde osoa zirkuitoan ibilarazteko ahaleginak ez dira falta izan. Artaldekeria bazterten duten iritziak ere badira. Kontua da, bertsolaritza hazten ari den honetan bertsolarien banaketa problematikoa dela.

Hainbat jenderengan dagoen arrenkura honen erakusgarri dira Bertsolari Elkartearen Gipuzkoako Batzordean gai hau bereziki tratatzeko bilera zabalak egin izana, «Hitzetik hortzera» programan bertsolarien banaketak sortu dituen ohar eta eztabaidak, eta abar. Erakusgarri izan liteke *Bertsolari* aldizkariaren lehenengo alean bertsolaritza utzi duten sei bertsolarirekin egindako erreportaia ere. Zergatik utzi duten galdera aidera botatzen denean ondorengo arrazoiak agertzen dira: berauen premiarik ez duela bertsolaritzak ohartu direla diote batzuek; plaza gutxi batzuk eginez prestatuta, puntuan egotea, oso zaila dela; erdizka ibiltzekotan ez ibilita hobe dela; bertsolaritzak ez duela beraien militantziaren premiarik aurrera jarraitzeko; egin behar den lanari etekin gehiago ez ateratzekotan ez duela merezi ahaleginak...

Gipuzkoako Batzordean egindako saioetan ere irteera zaileko arazoa ageri da: mailak, promozioa, antolatzaileen aukerarako eskubidea, bertsolarien nahia... Gauza asko nahasten dira. Nire ustez gaia errotik planteatu gabe zaila da korapilo hori konpontzea. Nolanahi ere, nire lan honen helburua ez da hainbeste horko arazo guztiak konpontzea, bertsolaritzaren esparru lokalaren posibilitateak aldarrikatzea baizik.

Esan dezadan, beraz, hasteko, nire iritzian kategorien araberako mailaketa baino gehiago esparruaren araberakoa egin behar dela, bertso-jardunaren esparruak bereizi behar direla.

KIROLETAKO ADIBIDEA

Interesgarria da beste jarduera batzuetan mailaketaren kontua nola egiten den ikustea. Kiroletan, banaketa eta mailaketa esparru geografikoaren tamainaren arabera egiten da gehienbat: lokala, eskualdekoa, probintziakoa, nazionala. Berez sortutako eskema honetan, maila bakoitzak du bere logika eta bere zentzua. Nazio-mailako futbolari izateak bere logika eta zentzua duen bezala, bere logika eta zentzua du herriko futbol-taldekoa izateak. Baita auzoko edo ikastolako jubeniletako tal-

dekoa izateak ere. Esparru bakoitzean bilatzen eta lortzen da futbolaren gozamina eta futbol-ikuskitza, bere neurrian.

Maila hauek lotuta daude elkarrekin. Eskoletako taldeek hornitzen dituzte herrikoak, eta herrikoek nazio-mailakoak. Oinarriak birsortzen du elitea, baina ez da hori bere funtzio nagusia. Alegia, eskoletako eta herriko futbol-taldeen helburua ez dela Real Sociedadarako jokalaria sortzea, baizik eta futboleko jokalaria. Aldi berean, goi-mailako liga beti izango da behetuen ispilu, gozagarri eta eredu imitagarri. Baina ez beti jomuga.

Zer gertatzen da bertsolaritzan? Nazio-mailakoa puztuta dagoela eta dena harrapatzen duela. Edo agian hobeto alde-rantziz esanda: herri-mailako jardunak ez duela funtzionatzen. Nazio-mailako bertsolari izateak ez bestek ez duela zentzurik dirudi. Bertso-eskolan hasi berri den edozein ume edo aurreratutako edozein gazteren jomuga logiko bakartzat hori hartzen dela sumatzen ari naiz. Ez dago tartekorik. Herriko futbol-taldean futbolari izateak inori ez dio ilusiorik egiten.

Eta jakina, ezinezkoa da. Gipuzkoako txapelketara azaldu ziren zientu erdi bat bertsolarientzat lekuri ez dago nazio-mailako elitean. Eta ez da sekula egongo. Absurdua da beti gurari horren egotea eta bertsolari-mordoa frustratu antzean ikustea. Gauza bera, edo larriagoa, gerta daiteke eskolarteko mailetatik datozen dozenaka gaztetxo eta gazterekin. Lan honetako ideia nagusia hau da: goian aipatutako guztientzat bertso-tan egiteko espazioa badagoela. Errealean urtero 20 bat jokari egoten direla profesional, baina futboleko gozatu eta gozara nahi dutenek lekua badutela. Gero Errealera nor joan nahi duen eta nor joango den, hori ikusiko da.

INGURUARI LOTZEAREN GARRANTZIA

Bertsolaritzak beste ikuskizun guztietatik nabarmentzen duen zerbait badauka, testuinguruarekiko lotura da. Esan liteke jendaurreko jardun guztietan eragiten duela testuinguruak (kantaldietan, antzerkian, kirolean...). Baina bertsolaritzan, testuinguruarekiko lotura da jardunaren muina bera. Horren arabera aldatzen dira gaiak, doinuak, baita bertso bakoitzeko hitz, esaldi eta ateraldiak ere. Bertsolariak unero ber-

tsoa testuinguruaren informazioa kontuan hartuta kantatzen du. Askotan (gai-jartzailerik ez dagoen kasu eta mota guztietan) testuingurua bera delako gai, eta gai-jartzaileak jarritako gaia guztiz imajinarioa denean ere, entzulegoaren, gunearen eta unearen arabera kantatzen delako.

Izan ere, bertsolaritzaren bereizgarrietako bat da, (bereizgarri funtsezkoa Xabier Amurizaren iritziz), artearen bi uneen batasuna. Amurizaren hitzetan, arte gehienetan sorkuntza eta interpretazioa bi unetan ematen dira.

«Kantari batek adibidez, lehenengo une batean sortu egiten du. Une hori bakarrean egiten du. (...). Bigarren unean, denboraz eta tokiz oso urrun eta berezirik, jendearen aurrean interpretatzen du. Hona, ordea, bertsolaritzan bi une hauek bat bera direla, alegia sortzea eta interpretatzea era batera egiten direla. Sortzen ari den une bera da interpretatzen ari dena».

Eta azken esaldiari beste buelta bat bilatuz esango nuke unea bera ari dela interpretatzen. Bertsolaritza unero inguruari atxikia izatearekin lotua dago Amurizak adierazten duen ezaugarri hau. Gai hau sakonago aztertzekoa eta ñabartzekoa da, baina bego horretan, ondoren esan behar dudanaren lagungarri.

Ondorengo atalean egingo dudan bezala, herri eta eskualde-mailako bertsolaritza aldarrikatzen badut, ez da kirolaren mailaketa mimetismoz kopiatzeagatik, ezta bertsolarien banaketaren arazo korapilatsua konpontzeko gogoagatik ere. Da, uste dudalako bertsolaritzaren ezaugarriekin lotuta dagoela herri-mailako jarduna. Uste dudalako ingurunearekiko lotura duen jardun hau herri eta eskualde-mailako bertsolaritzari bete-betean dagokiola. Uste dudalako eta, neurri batean, bizi izan dudalako.

KASU BAT

Herri-mailako bertsolaritza aurrera eramateko era taldea da. Herri-mailan bakarrik eta isolatuta dagoen bertsolari batek nekez egin ditzake ondoren aipatuko ditudan ekintzak.

Taldearena ez dut inbentibatik atera. Gaur egun bertso-e s-kola gisa ezagutzen ditugun asko, bertsolari-taldeak dira azken finean, edo izateko ahalbidea dute. Adibidetzat, gaizki samar funtzionatzen duen talde bat jarriko dut, gure Leinzko taldea.

Gure taldea, Almengo Eskola gisa ezagututakoaren inguruan ibilitako 4-5 bertsolari gaztek, noizbehinka hurbiltzen diren zaletu batzuek, eta ikasten ari diren 4-5 neskek osatzen dugu. Izenik ez badugu ere, praktikan Leinzko bertso-taldea garelako esan daiteke, gehienetan Arrasateko AEDko lokaletan biltzen bagara ere, bailarako jendea baikara. Aipa ditzadan egin edo egiten ditugun ekintzak:

- Ostiral-gauetan bildu, geronen artean bertsotan egiteko.
 - Inguruko auzoetatik deitzen ditugunean, libre daudenak kantura joan.
 - Bailara inguruko hainbat ekintza sozialetako bertsolarien papera bete (hileta, mitin, inauguraketa...).
 - Inguruko egun berezi batzuetan geure montajea egin. Santamasetan, urtero baserritar jantzita, asto bati megafonia erantsi eta herriko trikitilari-taldearekin batera koplatan joaten gara kalez kale. Inauterietan ere mozorrotuta gure koplak montajetxoak egin izan dugu.
 - Bertso-afariak, bailaran kartel bidez bertsozaleak gonbidatuta, geure artean edo bertsolari gonbidatu bat ekarritz.
 - Eskatzen dizkiguten bertso idatziak egin, foiletotarako, presoentzat, jaietako programetarako, heriotzetarako, hainbat ekintzetarako.
 - Bertso-paperak. Esperientzia gisa «Inglesarenak» izenburuarekin bailarako arazo bati buruzko bertso-paperak egin genituen eta paperean eta zintan grabaturik (gitarrarekin) zabaldu genituen bailarako tabernetan eta eskoletan. Gero jaialdi batean entzuleei kantarazi genizkien.
 - Leinzko Txapelketa, Desafioa eta Jaialdi-Omenaldia antolatzen dugu urtero, bailarako bertsolari helduekin.
 - Aretxabaletako eta Arrasateko urteroko bertso-saioen aukeraketa, gaiak eta abar eramaten ditugu.
 - Arrasateko Trikitilari taldea, Abesbatza, txalapartariak eta Dantza Taldearekin elkarlanean kantu-ikuskizun txikiak egin genuen.
 - Bertso-paperak egin eta musikarekin zinta bat argitaratzeko proiektuak aurrera samar erabili ditugu, oraingoz gauzatu gabe.
- Aipa dezadan antolakuntza aldetik beti desastre ibili garelako, eta saltsa ezberdinetako peregilak izanik zail egiten zaigula

erregulartasunez biltzea. Honekin esan nahi dut, erregulartasun eta antolakuntza apur batekin, buruan pasa izan ditugun beste hauek ere honez gero eginak behar genituela:

- Bertso Taldea Kultur Talde gisa ofizialdu, diru-laguntzak ganoraz eskatzeko. Orain ere badugu kutxa bat, nahiko dirurekin, materiala eta abar erosteko, baina geldirik.

- Materialez hornitu. Liburutegi eta zintategi bat egin. Megafonia txiki bat erosi, zenbait afaritarako, geure kontura egiten ditugun ekintzetarako, mikrofonotik kantatzen ikasteko... Baita grabagailua ere, geure grabaketak egiteko, musikarekin, etab.

- Gu baino gazteagoi edo eskolatatik datozei erakusteko egitura finkoago bat antolatu, irakasleari ordainduta.

- Egia esan, denbora eta gogoarekin, buruan pasa zaizkigun (eta inoiz edo behin praktikara eraman izan ditugun) ahalbideak infinitoak dira: beste bertso-taldeekin afari-desafioak antolatu, bertso-komikia egin, gauzak grabatu, saio esperimentalak egin... Bertso-jolas berriak eta esperimentuak egiteko gune aproposa da erregulartasunez elkartzen den taldea.

Taldeko 4-5 bertsolari finkoenen artean, bada herriko-bailarako jardun honetaz gain Euskal Herri mailan asko dabilenik. Bada zerbait dabilenik, baita gutxi dabilenik ere. Bada, eta hau garrantzitsua da, herriko bailarako jardunari lehentasuna ematen dionik ere, nazio-mailako jardunaren aurrean, une batean eskaria izanda ere.

HERRIKO BERTSO-TALDEA

Adibide txapuzero samarra jarri badut ere, Herriko Bertso Talde baten ahalbideak benetan zabalak dira.

- Taldeko bertsogintza bete. Entrenamendua, gozamina.

- Bertsolari eta bertsozaleentzat afariak.

- Inguruko ekintza espontaneo edo prestatuetan parte hartu. Eta auzo-jai, bazkari, omenaldi, ekitaldi publikoetan... kantatu.

- Bertso-paperen mundu osoa jorratu, herrian eraginez.

- Gogoaren arabera, goiko adibidean aipatutako ekintzak eta beste mila montatu. (Baita bertso-saioak antolatu edo bilatu ere bailarako txokoetan, jendea benetan kantatzeko egarritz grabado badago).

Nik uste dut, bertsotan egin nahi duen batek bere lekua hor daukala. Baina hau ez dut proposatzen bertsolariaren ikuspegitik ona delako bakarrik. Baita entzulearen edo bertsolaritzaren ikuspegitik ere. Herrietako jardunak funtzionatzea baita bertsolaritza osasuntsu dagoen seinale. Herrietakoa baita oinarriko bertsolaritza.

MAILAKETARENAK

Gogor samarra egin dakioke zenbaiti aurreko pasartean esan dudan bezala «hor dauka bere lekua» esatea. Hor dauka bere lekua, esan nahi nuen bai, futbolari izateko, herriko futbolari. Nire herrian, futbolariak, harro ibiltzen dira kalean. Herriko pilotariak ere bai. Bertsolariak ere ez du zertan frustratuta egonik nazio-mailakoa ez delako.

Baina, jakina, nazio-mailako jarduna ere hor dago, hori berritu egiten da, eta ahal eta nahi duenak horra iritsi behar du. Horra iristeko bidean ere, herrietako jardunetik pasa behar du. (Eta, berriro diot, herrietako jarduna ez dudala ikusten elitea sortzeko funtzioan, baizik eta bere baitan duela zentzurik handiena, bertsolaritzaren berezko zentzua). Baina elitearen sorrerarako ere, hau da biderik logikoena.

Eskolarteko mailetatik datozen ehundaka gaztetxok, beren bertsolari-izatea gauzatzeko Herriko Taldean dute lekua. Pixkanaka-pixkanaka, eta nazio-mailako ekitaldien gorabeherek suposatzen duten traumarik gabe, ikasiz eta protagonismoa hartuz joango dira taldean. Herriko jardun horretan ikusten da nor dagoen esparru zabalagotan ibiltzeko moduan. Norberak ikusiko du bere ahalmena eta gogoia noraino doan, eta besteek ikusiko dute noiz den bat aurrera bultzatzekoa.

Nik uste dut, oso ondo dabilen bertsolari bat sortzen denean, handik edo hemendik marmarra sortzen dela. Nolanahi ere, badakit hor arazoak daudela, eta elitea sortzeko unean dauden bide guztiak —txapelketak, hedabideak, etab.— herriko jardunak ez ditu konponduko. Herriko jardunak egingo duena denei jarduteko aukerak ematea da. Jardun diharduenaren berri jendeak izaten du, eta gutxiegi badu, izateko moduak bilatuko dira. Baina orain arte problema bestea izan da, jarduteko espaziorik eza. Herriko jardunak espazio hori zabal-

tzen du. Konbentzituta nago, espazio hori zabaltzeak elitearen elikadura (zein polita gelditzen den) hobetuko duela.

KONPARTIMENTUARENAK

Azalpenean hala uler badaiteke ere, maila hauek ezin dira hartu konpartimentu estanko gisa. Bertsolaritzan errealitatea askoz malguagoa da eta askotan mailak elkarrekin lotuta daude.

Batetik, une batean elitea osatzen duten bertsolari batzuek beren herriko jardunean ere badihardute, baita taldeetan ere. Tarteko esparruak ere badaude neurri batean, eskualde edo probintzi mailakoak, nahiz eta gehienbat (eta gero eta gehiago seguraski) nazio-mailako logikak agindu.

Herrietako taldeetan dabiltzanek ere, gehienbat herriko jardunean ibili arren, beti egiten dituzte tarteka nazio-mailako ekitaldiak. Eta, azkenik, herri-mailako jardunean inoiz nahasten dira nazio-mailako kanpoko bertsolariak, afarietan, gonbidapenez, etab.

Zorionez bertsolaritzaz ez da zeharo jarduera formalizatua. Baina horrek ez du esan nahi esparruak eta mailak ez daudenik. Egon badaude, baina nahasiak. Eta nahasmendu horrek, kalterik handiena behekoei egiten die, ez eliteari. Orain indarrean dagoen mailaketa-eza nahasiarekin nazio-mailako eliteak ia espazio guztiak harrapatzen baititu. Edo, bestela esanda, gainerakoek ia ez baitute espaziorik.

Lan honek proposatzen duen banaketa esparru geografikoaren arabera da. Goian esan dudana bezala, ez da banaketa erradikala, ez dira konpartimentu zurrinak, baina argi edukitzea komeni da hala ere. Nik uste dut Euskal Herrian esparru sozial naturalak herria, eskualdea eta nazioa direla (askoz gutxiago probintzia, azken aldian batzuek asko azpimarratzen badute ere), eta bertso-gintzak ere esparru hauei erantzunez egituratu behar duela.

BERTSO-ESKOLA

Herriko edo eskualdeko jarduna biltzeko eta bultzatzeko era bat bertso-talde gisa ulertutako bertso-eskola izan daiteke. Hau da, biak batean.

Bertso-taldeak, elkartu, entrenatu, gozatu eta ekintzak egi-teaz gain, besteei erakustea hartuko luke bere gain. Horrek, noski, minimoki egituratzea eskatzen du, diru-laguntzak eta abar bideratzeko. Ikasketa eta jarduna elkartzea da kontua. Ikastola eta eskoletatik aparte bereziki bertsoa landu nahi duten gaztetxoek nahiz herriko jende gazte eta helduak, herriko edo eskualdeko bertso-eskolan dute beren lekua. Maisuarekiko ikasketaz gain, ekintzetan parte hartuko du. Balio eta nahi duena pixkanaka-pixkanaka dinamika horretan sartuko da, taldea indartuz.

Era horretarako bertso-eskola bat, *erreferentzi puntu* bat da udalarentzat, jai-batzordearentzat, beste taldeentzat, jendearentzat. Lokala eta diru-laguntzak ditu, ekintzen arabera. Materiala (tartean megafonia propioa) lortzeko ahalbidea zabalik dauka. Eta bere nukleoaren ekimenaren arabera, tabernetan saioak antolatuko ditu, kassetak aterako ditu, bertso-paperrak egingo ditu, eta abar luze edo labur bat.

Aurreren doan taldeko beteranoen eta ikasketa-prozesuan daudenen arteko loturak zailtasun batzuk aurkez ditzake, baina askori irudituko zaiona baino errazagoa dela uste dut nik. Gure esperientzia laburrean behintzat iruditu zaigu mailen arteko lotura oso malgua dela. Gure artean nazio-mailan dabil-tzan bertsolariak eta 16 urteko neska-taldetxoa bertso-afarietan elkarrekin nahasteko problema handirik ez dugu izan. Ezta beste hainbat ekintzatan ere, nahiz eta batzuetan batzuek gehiago parte hartu eta besteetan inguruan ibili. Jardunak erakusten du kontu hori nola eraman.

Era honetako bertso-eskola batek talde eta maila ezberdina sortzen ditu bere baitan. Agian talde bakoitzak bere dinamika eramango du, batzuk asteko egun batean bilduko dira, besteak bestean, batzuek inguruko saio nagusietan parte hartuko dute, beste talde batek gutxiagotan... Baina elkarrekiko lotura garrantzitsua da, batzuek besteengandik ikasteko, talde-zentzua izateko, eta gainera, ekintza askotan kopuru handia ona delako (denon afarietan, jaietako kaleko ekintzetan...).

DIRUARENAK

Herri-mailako jardunaren parte bat bertso-saio formalek osatzen dute. Formala esaten dudanean esan nahi dut, ez dela

taldeko entrenamendu bat edo taldeak berak antolatutako bertso-afari, montaje edo jai-ekintza bat. Kanpoko norbaitek publikoan antolatutako bertso-saio edo ekitaldi sozialez ari naiz. Uste dut hauetako asko kubritzea herri-mailako bertsolariei dagokiela, nahiz eta beste batzuetan antolatzaileek nazio-mailakoei deitu nahikoa diru daukatelako eta dagoen onena nahi dutelako.

Herri-mailako bertso-saio formaletan ordainketaren kontuak malgua izan behar duela uste dut. Asko doakoak izango dira eta besteak antolatzaileen ahalbideetara egokituak. Honen arrazoiak uste dut nahiko argiak direla. Batetik, herrietako saio formal hauen antolatzaileek gehienetan ez dute ahalbiderik izaten asko ordaintzeko eta askotan ezer ordaintzeko ere ez (herriko euskara-taldeak, AEKk, presoen alde...). Bestetik, zentzugabekoa da nazio-mailako diru-kobratetaren logikan sartzea, besteak beste logika horretan sartuz gero diru berdinatik antolatzaileek nahiago dutelako nazio-mailakoak ekarri. Gainera herri-mailako jardunari ez dagokio diru-logika hori arrazoi askorengatik.

Herriko bertsolari baten edo bertso-eskolako gazte baten motibazioa bere gogo eta trebetasunari zentzua eta irtenbidea ematea da. Bertsolari izatearen alizientea non dago, taldean bilduz kantatu, bertso afariak egin, bertso-paperak atera eta inguruko guneetan parte hartzean ala ez dakit non kantatu eta 20.000 pezeta etxeratzean? Futbolearen galdera honek ez dauka zentzurik. Bietan baitu alizientea futbolak, herriko futbolari izatean eta Errealean milioiak kobratzean. Bertsotan ere ez luke zentzurik behar, baina ikaragarritzko despistea ikusten dut zenbaitengan, baita gazteengan ere.

Hona zer dioen Josu Arriolak *Bertsolari* aldizkarian, bertsoa utzi zueneko arrazoiak eta ingurunea azaltzen ari denean:

«Plazara ez irteteko hitza emanda hasi ginen Lopategirekin bertsolaritza lantzen. Izugarri ondo pasatzen genuen. Plazan kantatzera animatu gintuen Lopategik. Ez kobratzeko hitza eman genion elkarriz ondoren. Piskanaka handik edo hementik zerbait kobratzen hasi ginen eta orduan denon kajara botatzen hasi ginen afari edo antzeko gauzetan gastatzeko. Denborarekin ordea bakoitzak bere saioa kobratzen bukatu genuen eta koadrila guztia apurtu zen. Plaza batera diruagatik bakarrik joatea ez da bidea.»

Beharbada ez da zuzen-zuzen herriko jardunaz ari, baina nolabait filosofia bat agertzen du. Aukera bat da, zerbait kobratzen denean, dena edo zati bat talderako uztea. Ez da aukera bakarra. Kontua da, aukera hau edo beste bat hartu (jasotakoa norberetzat izatea), herri-mailako bertsolaritzan diruaren gaia nazio-mailako logikarekin ezin dela konpondu.

DUINTASUNARENAK

Diruaren kontuan nahiko argia izan naiz, baina horrek ez dio duintasunik kendu behar herri-mailako saio formalari. Orain arte honetan oso makal ibili bagara ere, herri-mailako saio formaletan duintasun-baldintza minimoak eskatu behar ditu bertsolariak. Honetan ere nazio-mailan baino malguxeagoa izan liteke (antolatzaileek bitarteko gutxiago ohi dutelako, eta batzuetan guttiz saio formalak ere ez direlako), baina dudarik gabe orain arte izan dena baino exigentzi maila altuagoa izan behar du bertsolariak zenbait gauzatan herri-mailan ere.

Duintasun minimoa eskatu behar da kantatzerakoan jendeak izan dezakeen arreta-baldintzetan, unearen egokitasunean, soinu-baldintzetan, ikus-baldintzetan, eta abarretan. Herriko jardunean muga hauek gainditzea errazagoa denez, bertsolariak ikusi behar du noiz dagoen lekuz kanpo, noiz ari den paper dekoratibo hutsa betetzen eta noiz ez dagoen baldintzarik bertso-komunikazio bat lortzeko. Hor, lehenik geure artean eta gero antolatzaile eta publikoaren baitan, duintasunaren ideia sartu behar da.

Egia da bertsoa edozein egoera eta testuingurutara moldatzen dela beste ikuskizunak ez bezala. Egoera xelebreetan kantatzen dugu norbere kabuz, norberak nahi duenean (nahi bada leiho batetik, autobusean edo arbola batetik zintzilik). Baina norbaitek eskatutako saioa denean ez dago zertan babuarena egiten ibili, bertsoa edonola bota daitekeela eta. Azkenean, edozein baldintzatan kantatzeak egiten denari duintasuna kentzen baitio antolatzailearen beraren aurrean, entzuleen aurrean, eta, pixkanaka-pixkanaka, baita bertsolariaren beraren aurrean ere.

Noizean behin ezetz esatean galdu litekeena oso gutxi da eta saio guztiak komunikazio egokia lortzeko baldintzetan egitean

irabazten dena berriz, asko. Horretan, beharbada une honetan bertsolaritza baino arrakasta gutxiago duten jarduera asko, gu baino askoz zorrotzagoak eta argiagoak dira. Arazo hau nazio-mailako jardunean ere makal dago, baina herri-mailakoan ere argi eduki behar da.

BERTSO-PAPERAK

Bertso-paperen gaia une honetako bertsolaritzaren «asignatura pendiente» bat da. Azken aldian egin diren mahain-guru, artikulua eta abarretan bertso-paperen noraeza aipatu izan da. Hau bera nahiko gai bada ponentzia oso bat baino gehiago idazteko. Nik, bertso-paperei leku majoa ikusten diet hain zuzen ere lan honetako gaian, hau da, herriko jardunean.

Baina hori azaltzera iristeko, has nadin bertso-paperen ingurunea apur bat jorratzetik. Bertso-paperen garrantzia azpimarratzeko orduan ere Xabier Amurizaren iritzietara joko dugu. Bertsoaren tradizioan bi adar daudela dio Amurizak, bat-batekoa eta jarria, bata bestea bezain garrantzitsua, eta beharbada, bigarrena garrantzitsuagoa. Gauza jakina da garai bateko bertsolari tradizionalak adar biak lantzen zituztela. Eta gainera tradizio modura gelditzen dena, batez ere bertso jarriak direla. Bat-bateko bertsoak oso gutxi dira bertsolaritzaren tradizioaren gorputzean. Eredu eta mitoztat ditugun bertsolari handi askok bat-batean nola egiten zuten ere ez dakigu ia.

Gainera, bertso jarriak izan dira beti bat-bateko bertsogintzaren aitzindari. Bertso jarriek markatzen dute bidea, berrikuntza. Amurizaren hitzetan:

«Bertso jarriak bat-batekoak baino aurrerago joatea normala da. Zerbaitegatik dira jarriak eta landuagoak. Bertso jarririk gabe, bat-bateko bertsolaritza ere asko txirotuko litzateke.»

Ondorio argietara iristen da Xabier Amuriza:

«Bertsolaritzak bere osotasunean iraungo badu, bertso jarrien tradizioa nola edo hala berritu eta indartu beharra dago. (...) Bertsolaritza bikoitza da eta bikoiztasun horri tinko eutsi behar zaio. Adarretan bikoitz, enborrean bakoitz.»

EGUNGO EGOERA

Garbi dago Xabier Amurizak aipatzen duen bikoiztasun hori gaur egun nahiko ahul dagoela. Nolanahi ere, gaurko egoeraren azterketatxo bat egiteko, bat-bateko ez diren bertso guztiak zaku berean sartu gabe bereizketa bat egingo nuke nik: alde batetik, *bertso-paperak* direnak eta bestetik, soilik *bertso elaboratuak* edo *jarriak* direnak.

- *Bertso jarriak*. Bertso idatziak dira baina bertso-paper sorta baten kopuru eta koherentziara iristen ez direnak. Hainbat funtzio eta soporte ezberdinetan agertzen diren bertso solteak, bakarrak, pareak edo hiru-laukoak. Orintxe edozein lekutan agertzen da bertso jarri bat: norbait zoriontzeko egiten denetik hasi eta jaietako programetaraino. Bi multzo egin daitezke hala ere:

- Hedabideetakoak: irrati eta egunkarietan agertzen diren bertso jarriak.
- Beste funtzio lagungarrian egiten diren bertso jarriak. Hauek ez dute hainbesteko hedapena lortzen, baina zerrenda amaigabea da: argitalpenak, liburu-sarrerak, ezkontza-gonbidapenak, hiletak... gaur egungo bertsolariak badakite zenbat gauza ezberdinetarako egin behar izan dituzten bertso jarriak.

- *Bertso-paperak* Honek beste tradizio bat du eta gauza konkretuagoa da. Bertso-kopuru minimo bat behar izaten duen sorta koherente bat da.

Une honetan, bi multzo hauen egoera oso desberdina da. Bertso elaboratu edo jarriak inoiz baino ugariago agertzen direla esango nuke, beharbada bat-batekoaren egoera indartsuaren ondorioz. Baina, egia esan, bertso hauek ez dute gehiegizko aportaziorik egiten. Izatekotan hedabideetan zabaltzen diren bertso solteek dute horrelako hedapen finkoa eta jorrazteko alor interesgarria.

Bertso-paperen alorra, berriz, aski gutxitua ikusten da:

- Ia erabat lehiaketetarako idazten dira. Lehiaketako epai-mahaiari begira idazten dira eta oso gutxik ikusten dute argia.
- Lehiaketa hauetako argitalpen urri batzuk izaten dira.
- Bertso-paperen libururen bat edo beste ateratzen da.

- Diskaren bat edo beste ere atera da bertso-paperekin.
- Prentsa idatzian argitaratu izan dira bertso-paperak (*Argia*-n, *Egin*-en...) baina azken joera beheranzkoa da prentsan (bertso jarrien mesedetan).
- Aipatutako euskarrietatik aparte oso gutxitan agertzen dira.

Bertso-paperen kasuan egoera antzerakoa da nazio-mailan eta herri-mailan.

ZERGATIK BAI

Garai bateko funtzio sozialik ez du betetzen gaur egungo bertso-paperak, hori argi dago. Bai funtzio informatiboa eta bai irizizkoa ere, maila batean, hedabideek betetzen dute.

Hala ere, gaur egungo norabide bakarreko informazio zaparradaren erdian, bertso-paperek (beste gauza askoren artean) balukete beren toki propioa:

- Ironiaren erabilera.
- Gertutasunezko komunikazioa, kritika, iritzia, umorea.
- Aurreko biak alderdi ludikoarekin lotzea, batez ere kantatua den einean.

Hiru alderdi hauen beharrak iraganeko gauza zergatik izan behar duen oraindik inork ez digu esplikatu.

Neurri batean bat-bateko bertsogintzak betetzen ditu goian aipatutako hiru gauza horiek. Bat-bateko bertsoa leku gutxietan dago eta jendearentzat erosoagoa eta erakarriagoa da. Gainera, bat-batekoa, gero eta jarriagoa da, gai batzuk aurretik esatearen ohitura hori tarteko dela. Bertsotarako gaituenak bat-bateko bertsogintzan murgilduta daude, beren onenak hor ematen dituzte eta ez dira idatzia lantzerantz dedikatzen.

Baina nire ustez bat-batekoak ez ditu bertso-paperen ahalbideak estaltzen. Bat-batekoek ezin dezakete bete bertso-paperek bete lezaketena:

- Gai, iritzi edo kritika baten tratamendu bukatua.
- Idatzizkoak posible egiten duen kalitate-maila (teknikan, hizkuntzan, arrazoian, ironian).

- Berrirakurri eta ikasteko bertso-paperek ematen duten ahalbidea.
- Eta batez ere, *taldeko kanturako aukera*.

HERRIRA ITZULIZ

Eta nola txertatzen da guzti hau lan honen gai nagusitzat hartu dudan herriko edo eskualdeko jardunarekin? Nik uste dut bertso-paperean alorrak aurrerabide gehiago duela herri eta eskualde-mailan nazio-mailan baino.

Zer esanik ez, bertso elaboratu edo jarri modura katalogatu ditugun horietan herriko jardunean dabilen bertsolariak lan polita egin dezakeela, horrelako lanak (enbajadak, argotean esanda) gehienbat herri-mailakoak izaten direlako. Herri-mailako hedabideetan ere badago bertso elaboratuetarako lekua, eta badira esperientziak ere jadanik, *Arrasate Press*-en adibidez.

Baina interesatzen zaidan alorra bertso-paperena da. Nire ustez, goragoko ataletan aipatu dudan herriko bertso-taldeen edo herri-mailako bertsolari baten ahalbiderik garbienetako bat bertso-paperean alorra jorratzea da. Bertso-paperei ezarri dizkiegun birtute edo ezaugarriak bete-betean dagozkio herri-mailako jardunari.

ESPERIENTZIATXO BAT

Leinzko bertso-eskolan egindako esperientziatxo bat azalduko dut sarrerako adibide gisa. Bertso-paper sorta bat egin eta inguruan zabaltzeko proba egitea okurritu zitzaigun. Gaia, bailaran aktualitatekoa zen: ingelesaren ikasketa. Arrasaten Ahizke izeneko hizkuntz eskola indartsua dago, eta gure bailaran oso zabaldua dago eskola orduetatik kanpora ingelesa ikasteko ohitura ikasleen (eta batez ere beren gurasoen) artean. Gai honetan gurasoak zirikatuz bertso-sorta gordin samar bat egin genuen hamarreko txikian, denon artean bilduta. «Ingelesarenak» izenarekin bataiatu genuen zortzi bertsoko sorta.

Honela zabaldu genituen bertsook:

- Bertso-paperean 1.000 kopia atera genituen, hainbat tokitan uzteko (Arrasate eta Aretxabaletako konfiantzazko tabernatan, eskoletan sorta batzuk...).

- Grabazioa. Gitarra baten laguntzaz grabatu eta 10 kopia atera genituen kasetean. Kasetak, Arrasateko 3 tabernatan, Aretxabaletako 3 tabernatan eta denda batean, eta Almen ikastetxean zinta bana utzi genituen, bertako musika-ekipoetan jar zitzen. Esan genezake jende dezentek entzun zituela bertsoak, erdi oharkabean bada ere.
- *Arrasate Press* aldizkarian argitaratu ziren.
- Bertso-paperok bertso-saio batean integratzeko proba egin genuen. Urtero Aretxabaletan egiten den bertso-saioren amaieran, entzule guztiei papera banatu zitzaizen eta gitarraren laguntzaz denok kantatu genituen.

GAIK

Garbi dago herri-mailako zabalkuntza izango duten bertsoak egitekotan, zerbait interesgarria esateko egiten direla. Izan liteke ziririk barregarriena edo gairik serioena, baina une horretan herrian zerbait esan behar du. Beraz, abiaputua guztiz ezberdina da lehiaketetarako egiten diren bertso-paperetatik: ez dira egiten ez norberari ez epaimahaiari gustatzeko asmotik abiatuta.

Nekez izango dute ohiartzun majoa protesta edo maitasun-bertso orokor batzuek. Hori askoz hobeto egiten dute kantari kontsagratu eta abarrek. Baina herriko bertso-paperak bakarrik (ez beste ezerk) lor dezaketena da, kantu hori uneko herriko interes ala morboari lotzea. Horra bertso-pareren pribilegiozko esparrua. Horrek ez du esan nahi gaiak beti arazo lokal puntual bat edo gai lokal orokor bat izan behar duenik. Zentzua izan dezake gai zabalago bat hartzeak ere, nahiz eta eskualdean bakarrik zabaldu (Guggenheim museoa, edo Errealia segundara jaitsi izana).

Laburbilduz, uste dut herrian zabaltzeko bertso-paperak egiten hasteak berez aldatuko duela bertso-paperen gaitegia, bat-bateko jarduna entzulegoak moldatzen duen bezalaxe.

ZABALTZEKO DIRA

Eta badago nola zabaldua.

- *Herri-mailako hedabideetan*. Gero eta errealitate zabalduagoa dira herri-aldizkariak. Irrati eta telebistak ez hain-

beste. Herriko euskaldun guztien buzoietan sartzen den aldizkaria toki pribilegiatua da mota honetako bertso-paperentzat. Alor ederra dago hor lantzeko.

Oraingoz gutxiago zabalduta dauden herri-telebista eta irratiek ere aukera paregabea eskain dezakete. Irratian musikarekin hainbat proba egin daitezke. Telebistan ere bertso-klip txapuzeroak egiteko modukoak dira. Lana da noski. Izan ere, bertso-eskola batean ezin da aspertu.

- *Kalea*. Garai bateko bertso-paperen banaketa ez da idea txarra. Leku eta egun jakinetan bana litezke (jaietan, inauterietan mozorro bidez...), baita bereziki horretarako jarritako egun batean ere. Tabernatan uztea eta hormetan edo kortxoetan itsastea ere izan liteke. Esperientzia polita litzateke marrazki edo ilustrazioekin probatzea, paper bakarra beharrea pleguak egitea, etab.

- *Grabazioak*. Soinu euskarrian bana litezke bertso-paperak. Lehenik, ahal bada instrumentuz lagunduta, txukun grabatu beharko dira bertsoak eta grabaketaren kopia batzuk atera. Tabernetako soinu-aparailua bitarteko egokia da bertso-paperak zabaltzeko. Herri guztietan daude hori gustora egingo luketen tabernak, etengabeko musika zaparradaren erdian noizean behin bertsoak sartuz. Normalean horrelako bertso-paper batzuen moda-iraupena laburra izango da (aste-bete edo hilabete, gaiaren arabera). Lagun eta ingurukoen artean ere bana litezke kopiak.

- *Bertso-saioetan* Herrian edo eskualdean egiten diren bertso-saioetan elementu berri interesgarriak izan litezke bertso-paperak. Jaialdi bat gune egokia da bertso-paperak banatu eta denon artean kantatzeko. Bide batez, uste dut jaialdietan ere ondo datorrela horrelako elementuren bat, jendeari parte harraraziko diona, kantuaren bidez.

- *Taldeko kantua*. Bertso-eskola kantu-gune bat ere bada. Edo izan liteke. Bere bilera eta bertso-afarietan lekua du, edo behar luke, bertso-paperen kantuak. Nire iritzian bertso-paperen gozamen nagusia taldean kantatu ahal izatea da. Lortutako kalitatea ahoan gozatzea.

Taldekoek egindakoaz gain, beste hainbat bertso-sorta kantatzeko gunea ere bada taldea. Aspektu hau gure bertso-esko-

letan galduxea badago ere, berreskuratzeko modukoa dela uste dut.

- Azkenik, posibilitate gisa, produkzio oparoa duen taldeak hor dauka aukera sortak elkartu eta kaseta argitaratzeko. Esperientziak izan dira, eta sumatzen dut hor espazioa bada-goela.

AGURREKOA

Asmamenetik gutxi atera dut paper-sorta honetan. Herri-mailako bertsolaritza errealitatean ezagutu dut, partaide gisa, Bilbon eta gure bailaran. Eta badakit beste hainbat lekutan talde majoak daudela. Hor esperientzia bat dago.

Esperientzia bat dago, eta potentzial izugarria dago. Potentziala, bai orain dauden taldeetan, eta bai taldeetatik kanpo dauden hainbat bertsolari helduetan, bertsolari gazte mordo horretan eta ehundaka gaztetxoetan. Bertsotan gauzak egiteko gogo hori gailurrera edo frustraziora bideratu gabe, herri-mailako bertsolaritza egin behar litzateke. Bertsolaritzaren prestigioa eta arrakasta oso goian dauden honetan, oinarria indartzeko aprobetxatu beharko genukeela iruditzen zait. Baina hori ez da egituren bidez edo parakaidismoz egiten. Herrietan bertan sortu behar da ekimena. Egin litekeena esperientziak eta ideiak zabaltzea da. Horretan hasi nahi nuen lan honekin.

HIZKERA BIZIA ETA TXUKUNA BERTSOLARITZAN

LUIS BARAIAZARRA

Hizkuntzak bi adierazpide nahiko desberdin ditu: ahozkoa eta idatzizkoa. Bakoitzak bere izaera eta bere ezaugarriak ditu. Gainbegirada batez eta handi-handika, ahozkoaren ezaugarriak aipatuko ditut. Baina ahozko formak ere ez dira berdinak kasu guztietan: etxean, lagunartean, kalean... Era batera mintzatzen gara eta jendaurrean, hitzaldietan, irratietan, eta abar, beste batera. Azken kasu haue-tako hizkera, gutxi-asko, idatzizko formetara hurbiltzen da, bi formen artean zubi antzera egiten duena izanik.

Bat-bateko bertsoketako hizkera izango dugu aztergai. Jar-duera horretan, hizkerari dagokionez, eta betiere gure iritziz, zer den zilegi eta zer ez azalduko dugu. Batzuetan, jakina, oro-korki eta ideia-mailan arituko gara eta beste batzuetan, kasu konkretu eta adibideetara ere jaitsiko gara.

HIZKERAREN BEREZITASUNAK

Ahozko hizkeraren ezaugarrietariko bat arintasuna, bizitasuna da. Beharrezko ez dena isilduz, elipsiak egoki tartekatuz dihardu, esaldiak guztiz biribildu gabe. Logika-senari eta arrazoibideari ongi atxikiz, baina logikaren formak beren-beregi agertu gabe, batzuetan logika barne-barnean ezkutatu. Irudi eta ideietan mugimendu oso azkarra da; batetik bestera saltoka bezala aritzen dena.

Esaldiak, elipsiak eginik ere, armoniatsuak, gozoak, ongi tajutuak, kadentzia betekoak izatea eskatzen da. Garai batean, dirudienez, azken punturako gordetzen zen kadentzia armoniatsu eta bete-beteko hori, baina gaur egunean goitik behera bertsoak ongi egituratzea, lehen puntutik azkeneraino egoki bideratzea eta jostea izaten da helburu, beti lortzen ez bada ere. Honetaz, Xabier Amurizak *Hitzaren Kirol Nazionala* liburuan agertzen dituen gogoetak oso egokiak direlakoan nago eta hementxe tartekatuko ditut neure erara laburturik:

«Ez dago bertsoaren puntu bakoitza arrazoi handiz edo kolpe zorrotzez kargaturik eramaterik. Orduan, progresioren bat izatekotan, aurretik atzerantz izan behar, azkena gailurtzat harturik. Horretarako aurretik *betelana* deritzona egin behar izaten da, bertsoa azkenerantz eramanez. *Betelan* hori ez da lan hutsa. Nabarmena eta hutsa izan liteke. Baina berez, *betelana* bertsolariaren trebetasun handietariko bat da. Arrazoi handiegirik esan gabe, haria hartu eta dotore eta bizi eramanez, errepika arruntik gabe. Hori arte bat da eta gehienetan entzulea ez da ohartzen *betelana* egiten ari dela. Horretara ulerturik, *betelana* lan handia da, arte handia da. Bertsolaria azkena buruan duela kantatzen ari da.

Bertsoak horrela goranzko progresioa eramanez behar du. Oro har, bi eratako bertsoak izan litezke. Batzuk indar guztia azkenean kargatzen dutenak. (...) Beste batzuek bertso guztian zehar dakarte indarra eta azken puntua ondorio edo biltzaile gisa dator. Inoiz ezin dena da azkenean jaistea, azken puntua aurrerakoak baino motelagoa izatea. Orduan bertsoak asko galdetzen du».

Bertsolariak bat-batean ari dela, bertsoa nola egituratzen duen adierazten digu hemen X. Amurizak, hain aipatua den atzekoz aurrerako teknika erabiliz.

Errealitatearen ikuspegi xumeak, puskak bezala adierazten ditu bertsoak; ez bere izaera korapilatsuan, bere ataletan sistematikoki sailkaturik eta abar. Bat-bateko bertsoak errekako ur saltaria bezala izan behar du: fresko, azkar eta garbi datorrena. Ez luke pentsamendu trinko eta bihurriegirik erabili behar, ezta metafora zailegirik ere. Horrek ezinbestekoa den bertsolariaren eta entzulearen arteko harremana etengo luke; hau da, bat-bateko bertsoa bat-batean jaso behar du entzuleak, erraz eta arteak eragiten duen sentsazio gozoz, jaso ere .

ESALDI BEHARTUAK

Esaldi behartuak, puntu-amaierako hitzekin lotu behar diren lotu beharrez, harira ez datozenak, kolpeka edo mailukadaka sartuak... ez dira onartzekoak. Bertsoak, bere izaera xumean, ongi egina izan behar du; ongi esandakoaren inpresioa sortarazi behar du, bete-bete horrelaxe eta ez bestetara behar lukeenaren ustea entzuleagan uzteraino. Hain zuzen ere, ikasten ari direnen eta maisu handien arteko alderik nabarriena, hortxe sumatzen dela esango nuke. Orain dela urte asko, Uztapide zenari egindako elkarrizketa batean hark esandakoak datorzkit une honetan gogora: bertsolariaren etorria aipatzen da —zioen hark— baina bertsoa ez da berez sortzen, bertsoa *etorri ez, baina ekarri egin behar da*, ongi kostata eta nekez, ekarri ere... Dena dela, izatez hala bada ere, erraz-erraz eta iturritik hara sortutakoaren zirrara gozo eta atsegina utzi behar du entzuleagan. Hori maisu handiek dakite soilik egiten.

ERDARAKADAK

Esandakoaz gainera, baztergarririk ezer bada, esaldi traketak eta erdarakadak dira batez ere. Lexikoan maileguak erabiltzea ez hainbeste. Hauek, harira datozenean, egoki sartuak direnean, bete-beteko eta indar handikoak gerta daitezke.

Baina besterik da erdal klitxeak erabiltzea. Euskaraz egunero ari denak, bere gogoan, bere pentsamendua euskaraz darabile-nak, euskal adierazpen jatorrak erabiliko ditu. Bere komuni-katu beharrak, bere arte-lanak eskatu ahala, euskal esamol-deak asmatuko ditu. Bertsotan erabiltzeko hizkuntzari gagoz-kiola, hori ezinbestekoa da. Bertsolaritzak, teoriak, kutsatu gabeko euskararen esparru izan beharko luke. Orain arte, juzku zorrotzegirik egin gabe, gainbegiratu batez, hala dirudi. Horregatik euskaldun ez denak ez du zereginik bertso-mun-duan. Baina erdal eragina maltzurki barneratu ohi zaigu eta oharkabean azpijana egin. Hau da, erdal moldeak bestela bai-takoan, euskal jantziz datorzkigu. Erdaraz pentsatzen duenak esamoldeak eta adierazpideak erdaraz sortzen ditu eta, euskal hitzez mozorrotu arren, haiek beti izango dira erdara. Ez da ahaztu behar, lexikoa ere beharrezko izan arren, esamoldeak, esaerak... direla hizkuntzaren arima. Bertsolaritzaren gaitzik larrienetarikoak euskal sen hori galtzea edota erdararen afro-n-tupean itota gelditzea litzateke. Horrek irudi narrasa emango lioke bertsolaritzari, nekez eta ongi merezita igoa den goi-m a i-latik gainbeheraka jarritz. Literatura idatzian eta landuan ari direnen mesprezua merezi izango luke eta hortik kultur mai-latik baztertzea berez-berez letorke...

Honelako zantzurik nabari da azkenaldi honetako zenbait idazleren lanetan. Izenen artean, Jon Juaristi, Patziku Perurena, Luis Mari Mujika... datorzkit gogora. Kritika hauek, gauzak ongi aztertuz eginak direnean eta horretan adituak direnen aldetik datozenean, ongi etorriak! Mesedegarritzat jotzen ditut, bertsolaritza zabarkerian erortzetik gorde baitezakete.

Luis Mari Mujikak, adibidez, 1993ko urtarrilaren 17ko *Argia* astekarian, iritzi interesgarria agertzen digu honetaz. Idazle hau kexu da, kanpokoei agertzen zaien irudiari dagokionez batez ere, literatura kultua ez dela aukatzen eta. «Kultura abarkadun batekoak garen irudia ematen diegulako; bertsolaritzan enfasi eta euforia gehiegi jartzen ari gara eta beste alorrak itzaltzen. Ez zaigu komeni, besteen ikuspegitik begi-ratuta, herri asto bat garenik azaltzea». Ondoren, honako hau dio: «Bertsolaritza onartzen dut, gustatzen zait, baina pro-dukzio ez-kultoa da». Oreka bat nahi luke Luis Mari Mujikak,

bertsolaritza gehiegi gorai patua den bitartean, poesia kultoa ezezagun gerta ez dakigun. Bego horretantxe iritzi hori, baina, zorionez, bertsolaritza ezarian-ezarian eta inork eskailera falturik eskaini gabe igo da dagoen gailurreraino. Xalbador zena-ren bat-bateko bertsoak eta oraingo hainbat bertsolarirenak, bertso jarriak zer esanik ere ez, asko behintzat, lan artistikoak direla esango nuke, poesia kultoaren ikuspegitik ere aintzat hartzekoak.

Lerro hauetan, hala ere, garbi utzi nahi nuke bertsolaritza ahozkoa dela eta ez idatzizkoa, bertso-paperak salbuespen badira ere. Ahozko hizkerak, laburdurak, tokian tokiko forma bitxiak, fonetismoak eta abar izan ohi ditu; bertsotan, berriz, lizentziak ere ugari izaten dira; hala ere, guztiak ez dira onargarriak. Ahozko euskara dotore baten eredu izatea eskatu behar zaio bertsolaritzari.

AHOZKO TRADIZIO JATOR BATEN BEHARRA

Jendaurrereko euskarak badu bere tradizioa, eliz hitzaldietan landua bereziki, baina azken urteotan baita bestelako hitzaldi eta irrati-telebistan ere. Bertsolaritzak hauen artean izan dezake lekua.

Jakina, kanta zahar eta, batez ere, kontapoesia zahar edo erromantzeetara jotzen badugu, baliabide jori eta aberatsezko hizkuntzaz topo egingo dugu. Erdal hitzez zipristindurik izango da, baina aparteko indar eta liluradun testu zoragarriak direla ohartzen gara. Dena dela, hori dastatzeko hor dira zenbait bilduma: Azkueren *Kantutegia*, Jesus Mari Leizaolaren lanak, A. Zabala, Manuel Lekuona eta abarren lanak, baina honez gero estilo hori joana da. Orain erreferentzia berriagoak behar ditugu, gaur egungo bertsolaritzarako baliagarri izan daitezkeenak.

Eliz hitzaldi, irrati-telebistako erreferentziak... aipatu ditugu arestian, hots, jendaurrereko hizkera jantzi eta apain samararrenak. Dena dela, ez nago ziur hori bertsolaritzarako eredu aproposa izan daitekeenik. Izan ere, eredu horiek idatzizkotik hurbilago daudela dirudi ahozkotik baino. Jendaurrean ahoz

esateko bada ere, idatzi egiten dira lehenbizi kasurik gehienetan. Hobe litzateke bertsolaritzak bere-berea duen ahozko eredu eta tradizioa lantzea. Alabaina, horretan ez gaude hutsetik hasi beharrean. Agian, ez guztion gogokoa, baina bide luze samarra egina da. Hor dago «gipuzkoar eskola» dei genezakeena. Xenpelar, Pello Mari Otaño, Bilintx, Udarregi, Pello Errota, Txirrita eta gainerako hainbat izar ez dira alferrik aritu. Apurka-apurka bertsolaritzan ildoak markatu dute, hizkuntza horretara moldatu eta trebatu dute ezarian-ezarian. Patziku Perurera goizuetarrak idatzi du berriki zerbait honetaz. Hark gipuzten nagusitasuna kaltegarritzat jotzen du eta haien ildotik irten arte nafarrek ez luketela etsi behar uste du. Aholku hori ematen die nafarrei: haien mendean egotera makurtu gabe, eurek euretara aurrera jotzeko bertsolaritzan...

Alabaina, gipuzkoarren eragina ukaezina da. Beste euskalkietako bertsolariak, bizkaitarrek bereziki, bertsoan ari direla, gipuzkoarren eskolara edo batu antzeko horretara moldatzen dira ia oharkabean. Eguneroko harremanetan, lagunartean eta egiten duten euskarak eta bertsoan darabiltenak ez dute elkarrekin zerikusirik. Horrek zerbait esan nahi du: Gipuzkoako bertso-tradizioan hainbat molde eginak eta aski finkatuak daudela eta errazago zaiela haiei ere euren euskalki propioan erdi hutsetik abiatuz egitura berriak sortzea baino, finkatu samar dauden egitura haietan ideien edukia isurtzea.

Bada salbuespenik ere. Iparraldeko bertsolariengan hango euskararen isuria nabari da argi eta garbi. Baina han bertso-gintzako tradizioa, poesia kulturantz lerratua bada ere, Hegoaldekoa baino zaharragoa da. Horregatik edo, Xalbador zena bertso jarriek esker izan zen gehienbat miretsia, bat-batean ari zenean Gipuzkoan ez baitzioten ongi ulertzen.

Kasu berezia dugu Xabier Amuriza eta Jon Lopategi bertsolariena. Egia esan, benetan eskertzekoa da hauek egiten dutena, baina bi erregistratzen hain maisuki erabiltzea ez da edonork egitekoa... Hauxe litzateke benetan desiragarri: publikoaren arabera, bertsolariak euskalkiz nahiz gipuzkeratik hurbileko euskara batuaz kantatu ahal izatea. Baina hori adieraztean, ez gara ari euskalkietako hitzak bertsoan tartekatzeaz, gutxiago oraindik euskalkiak nahasian, *nahaste-borras* -

tean esango genuke hobeki, erabiltzeaz. Hitzak tartekatu daitezke komenentziaren arabera. Euskalkien hitz-altxorra hor dago, artistak askatasun osoz erabiltzeko, baina sistemak txitean-pitean eta bereziki bertso beraren barruan nahastea ez litzateke estetikaren ez euskararen onerako. Beraz, goian aipatutako bi erregistro horiek erabiltzea nahiko zaila eta gehientzat ezina denez gero, bakoitzak bere euskalkian, baina txukun, txokokeriak baztertuz kantatzea litzateke egokiena. Gipuzkoako eskolarantz jotzea, hala ere, ez litzateke inoentzat gaitzesgarri. Dena dela, ahozkoatasunaren harian, tokian tokiko euskalkirantz jo beharko litzateke ahal dela. Kardaberaz, Mogel eta abarren garaian bizkaiko kristauek gipuzkeraz nahi izaten omen zituzten sermoiak, euren euskalkikoak arbuiatuz, baina garai haiek aspaldi iragan dira...

Ahozko literaturaren barrutia etengabe aldatuz doa. Hizkerak, denboraren joan-etorrian, zenbait arlo galdu egin ohi ditu eta beste zenbait irabazi. Guztiz ezaguna eta ia topikoa ere bada, baserri giroko hitz eta irudi asko galdu dituela. Baina beste aldetik, oraintsu arte ahozko euskararenak ez ziren esparruetara hedatuz doala ere egia da. Dena dela, hiri-inguruneke hitz eta irudiak, onenean ere, erdarak kutsaturik iristen dira gure entzumenera. Eboluzio hau eta lehenagoko hizkeraren eta oraingoaren arteko kontrastea argi eta garbi somatzen dira adineko bertsolariak eta hogeitabost urtetik beherakoak batera kantari ari direnean. Jakina, lege zaharreko bertsolaritza hori, ia hazitako ere ez dela gelditzen eta kexu dira batzuk, baina bertsolaritza gizartearen, kulturaren eta hizkuntzaren ispilu da...

BERTSOLARITZAN EZAGUNAK DIREN JOERAK

Bertsolaritzan nabari diren zenbait joera aipatuko ditut hemen, onargarriak ala baztergarriak diren adierazi gabe. Hauetariko batzuk ahozko hizkerari dagozkionak dira, baina gehien-gehienak errima eta neurriari dagozkienak. *Laburdurak* eta *lizentziak* ditut batez ere gogoan. Laburdurak bere-bereak ditu ahozko hizkerak. Lizentziak, ordea, hizkera poetikoaren zer-

bitzuan erabiltzen dira; hau da, artearen mesedetan ohizko metrika-arauak noizbait haustea zilegi dela esaten da. Laburdurak, gehienetan, neurriak eta errimak beharturik sartu ohi dira. Hauetariko batzuk Euskal Herri osoan egiten direnak dira, beste batzuk Euskal Herriko zati handi samarrean eta azkenez beste batzuk txokoren batean soilik erabiltzen direnak, hots, lokalismoak. Bat-bateko bertsoetan, lizentziak eta laburdurak, kasu batzuetan, bat ote datozen susmoa dut. Lizentziak, berez eta definizioz, zilegi dira. Laburdurak ere bai ahozko hizkeraren fenomeno orokorrak direnean edota Euskal Herriko zati handi batean ohizko formak direnean. Lokalismoak baztergarritzat joko genituzke, ordea. Hala ere, kasu zehatzak aipatzen hasiz gero, non dago laburdura onargarrien eta baztergarrien muga? Nork esan dezake zein den lokalismoa eta zein ez?

NEURRIA ETA EUSKARA

Dieresi eta sineresiak, ahal delarik, baztertzeraz jo behar dela uste dut: «gaur» silaba bakarrez eta ez «ga-ur». «Joan» hitza, sineresia eginez, silaba bakarrez ebakitzen da eskuarki. Sinalefei dagokienez, -o i-, -e i-, -a i- alde batetik eta -e u-, -a u-, -o u- silaba bakarrean ematea arautzat ez bada ere, gomendagarritzat hartu beharko litzateke; gerra aurreko olerkarien artean legea zen; Oihenartek ere halaxe esaten du. Hitz beraren barruan egonez gero, diptongo izango liratekeenak segidako hitzetan sinalefa dira. Gainerako bokalen kasuan, sinalefa egin edo ez egin, libre izan beharko luke, eta hala egin ohi dute bertsolariek, neurrirako lizentzia horri etekin handia ateraz.

LABURDURAK

Aditz jokatuak

(Eskuinekoak ohizko formak dira eta ezkerrekoak laburtuak)

- genun, zenun, zun = genuen, zenuen, zuen...
- nuken, zuken, dezaken = nukeren, zukeren, dezakeren...

- nekin, zekin = nekien, zekien...
- zula, nula, gaitula, dagola = zuela, nuela, gaituela, dagoela...
- zaizko/a, dizko/a = zaizkio, dizkio...
- egin zazu, zazue, zagun = egin ezazu, ezazue, dezagun...
- esateiot, esateiogu, esangoiozu = esaten diot, esaten diogu, esango diozu...

Bizkaieraz:

- emotsut/emontsut, esausku, emongotsat = emon deusut, esan deusku, emongo deusat...
- ikustozu, ikusikozu, ikusizu = ikusten dozu, ikusiko dozu, ikusi egizu...

Partizipioak

- erun, jun, itxain, itxoin, itxon = eroan, joan, itxaron...
- *-atu* = *-au*: pentsau, kantau, kostau = pentsatu, kantatu, kostatu...
- *-tu gabe*: konpara nuen, altxa zuten = konparatu nuen, altxatu nuen...

Deklinabidea

- *Genitiboa*: aman, txakurran, herrian = amaren, txakurra-
ren, herriaren...
- *Inesiboa*: etxen/etxin, trenen/trenin, lurren/lurrin =
etxean, trenean, lurrean...
- *Superlatiboa*: handina, gutxinez, osona, erona = handiena,
gutxienez, osoena, eroena...

Bokal arteko kontsonanteen erortzea

- B-G-R-D kontsonanteen erortzeak ekarri ohi ditu labur-
dura-kasurik gehienak. Euskalki guztietan gertatzen dira gai-
nera; beraz, letra hauek erortzea arau orokortzat jo genezake.
- Bokal berdinen artean: akatu, patu, prepatu = akabatu,
pagatu, preparatu...
 - e, be, betu = ere, bere, beretu...
 - Bokal desberdinen artean: eaman, aileatu, geatu/gatu, beak,
dia, paeta, aindu, nabaitu, aio, bertsolariak = eraman, aile-

gatu, geratu, berak, dira, pareta, agindu, nabaritu, adio, bertsolariak...

Diptongo egiteko bokalak edo bokal berdinak ez direnean, eskuarki lehengo silaba-kopuru bera gelditzen da; batzuetan hala ere, silaba bakarra egiten du: gatu = geratu; etxa/etxea/etxera. «Etxea» eta «etxera» hitzek silaba-kopuru berbera, baita «geatu» eta «geratu»k ere, baina «gatu»k silaba bat gutxiago.

Hauetariko gehienak, behar bada, bertsoetako hizkera zainduan ez lirateke onartzekoak, ez behintzat gomendagarriak nire ustez.

Bertso-liburuetakoko zenbait laburdura

Gehienak hizkera arruntean ere egin ohi direnak dira; banaka batzuk, berriz, neurrian sartzeko eginak: «e», «ere»ren orde; «nei», «neri»ren orde; «nere faltikan ez zu izango», «ez dezu izango»ren orde; «diru-iturrik uxatu», «diru-iturriak uxatu»ren orde; «ordainduko *nin*», «ordainduko *nian*»ren orde; «o rdainduko *izkil*», «ordainduko *dizkil*»en orde; «*hutsegiten* bat», «*hutsegiteren* bat»en orde; «ez dakit zenbat *erata*», «ez dakit zenbat *eratar*»ren orde; «jarri *zab*», «jarri *zai*»en orde; «hil *azten*», «hil *arazten*»en orde; «saiatu *ai*», «saiatu *adi*»ren orde; «*biagu* geratu», «*behar degu* geratu»ren orde; «utziko *ilo*», «utziko *di*»en orde; «bide *hob*», «bide *hor*»ren orde; «leno», «lenago» edo «lehenago»ren orde; «gauza hoberik ote *an*», «gauza hoberik ote *dan*»en orde; «hobe zenuan *oain* hogeit urte», «*orain* hogeit urte»; «sortzen *ai* da», sortzen *ari* da»ren orde; «*dia*», «*dira*»ren orde; «*bela*», «*berehala*»ren orde...

Bokal arteko kontsonante batzuen galera dugu ia beti eta aditza eta aditz laguntzailea laburdura bidez elkartzearen kasuak. Galtzen diren kontsonanteak, goraxeago aipatutakoak: r / n / d / g / b. «Egin»en orde «ein» esateak, guztiz onargarria dirudi; baita «andrea ren etxea» esan orde «andrea n etxea» esatea ere. Bokal artean aipatutako kontsonanteak galtzea ere lagunarteko hizketan joera nahiko arrunta dela esan genezake, baina jendaurreko hizketan eta bertsoetan itsusi ematen dute eta hitzak itxuragabetzeko baizik ez dira. Hitz egitean errazkeriara jotzea berez-berezkoa da eta guztiok ohar-kabea egin ohi duguna; berezko joera horretatik zabarke-

riara urrats txikitxo bat baizik ez dago. Beraz, ahozko hizkeran fenomeno orokorrak izan arren, jendaurreko hizkera zainduan, ez dira batere gomendagarri.

«-a» **itsatsia**

Euskal gramatikan «a itsatsia» edo «a organikoa» deritzonari dagokionez, hainbat akats antzematen dira bertsoan, bertsolari giputzen artean bereziki; jakina, hizkera arruntean e re, euskalki honetan batez ere nabari da galtze hori. Goraxea-go esana dugu laburdura batzuek hitzak itxuragabetu egiten dituztela. Horixe gertatzen da hemen ere. Ohizkoa eta esanaren esanez ia alferrik izango ote den ere badugu susmoa, baina hor dago elkarrizketa eta saltsa guztietan entzuten den zorioneko «gauz» hori. Belarriko min handia egiten digu besteoi, baina, jakina, beste euskalkietakook ere baditugu geureak, ingurukoei hainbeste min edo gehiago emango dietenak.

Gainerako hitzetan, partitiboan edo «-rik» bukaera dutenetan gertatzen da eskuarki: «dudik» / «dudarik»; «kezvik» / «kezkarik»; «axolik» edo «ajolik» / «axolarik», «ajolarik»; «faltik» / «faltarik»; «plantik» / «plantarik»; «ardurik» / «ardurarik». Forma hau ongi erabiltzen da, baina azken txapelketa nagusian entzun zen «ardurik» delako hori ere. *Bapatean 91*-n, honela agertzen dira bertso baten lehen bi puntuak:

*«Aspaldi hontan neronek ere
ez det negar malko faltik,
zurikerian ari zera zu
ez zazula egin plantik...»*

Mota honetako hitz batzuk, hala ere, guztiz onargarriak dira, baita bertsoan ere, idatzizko formetarako «a» hori gorde beharrekoa izan arren. Horrelakoak dira, esaterako, «histori», «kategor», «premi», «kontzientzi» eta zer esanik ez «egi», «anai», «arnas», eta abar.

LUZATZEAK

Alderantzizko kasua, hots, luzatzearena aditzaren «-tutzen» / «-tutzeko» formetan agertzen da ia soilik. *Bapatean 88* liburuan, gainbegirada bat eginez, honako hauek aurkitu ditut:

«sufritutzen du», «ordaindutzeko», «lagundutzeko», «ulertutzen det», «aurkitutzen naiz», «gauza esplikaturzen / orain nauk hasiko», «hartutzen det»...

«-tuten» / «-tuteko» formak bizkaiera zaharlean usu erabiliak izan ziren; gaur egun bizkaieraz ere zaharkituak dira. «-tutzen» / «-tutzeke» formek, berriz, ez dute tradizioz ahozko euskaraz; bertotan, ordea, neurria osatzeko baliabide bihurtu dira; baliabide nahiko itsusia da nire iritziz, baina lizentzia gisa onartzekoa litzateke agian, ahalik eta gutxien erabiltzekotan. Aditz laguntzailea ondoren duenean, erraz konpontzekoa litzateke: «sufritutzen du» esan ordez, «sufritu ohi du»; silaba berdina ditu eta euskaraz dotore esana dago horrela. «O rdaindutzeko» sartzen bada, horrek ez du ordezkorik, nik dakidala.

Bapatean 88 liburuan, «ez dedien galdu» agertzen da; «ez dedin galdu» (ez dadin galdu) beharko luke, baina horrelako aditz-formetan analogiak joko bihurriak eragiten ditu.

Bapatean 91 liburuan, berriz, Errealeko hiru atzeritarrez ari dela, bertsolariak bigarren puntua honela egiten du:

*«beste beltza bat ekarri zuten
izango zelako Sanson,»*

Leku-denborazko «-tikan» eta gauza bera «-rikan» partitiboa, Gipuzkoan eta Nafarroako toki batzuetan forma normala dela dirudi eta, beraz, onartzekoa?

Dena dela errazkeriara jotzea litzateke bertso osoa hone-lako atzizkiz errimatzea. Hona adibidetxo bat:

*Urri aldean hauek ez zuten
bajatzeko usterikan,
bost negatibo dauzkate eta
daude oso tristerikan,
une hauetan ez du merezi
adar jotzen hasterikan,
neri hauentzat ez zait gelditzen
errukia besterikan.*

Desegoki erabilitako hitzak

«Laster lanean hasiko zara / ta ni ezin geldi *keto*: «keto» hitza, Bizkaiko toki batzuetan erabiltzen da, baina ez du gaz-

telaniazko «quieto» esan nahi, bizitasun eta kemenik gabea, beldurtia, koldarra... ezeri aurpegi emateko lotsa dena baizik.

*Honek ikasi ditu
makina bat truko
bakea nahi dabela
hori ezin **uko***

«Uko» hitza gaizki erabilia dago hemen. Zerbaiti nahiz norbaiti «uko egin» da forma zuzena, edo zerbait nahiz norbait «ukatu».

Hitz desegokiak ez izan arren, erabiliaren erabiliz topiko nabarmen bihurtu direnak daude: denerako balio duten hitzak daude eta tradizioz erabili izan direnak; esaterako, «peskisan», «gisan», «hura zela *medio*», «espero» (hau, bertsolaritzatik hizketa arruntera igarotako hitza dela uste zuen Akesolo zenak), eta abar, eta abar. Hauek eta antzekoak, errimatzeke batez ere, egoki sartzen dira bertsoaren tolesturetan; horregatik ez dute belarriko minik egiten, baina bai gehiegi erabiliak izateak eragindako asperdura. Gaur egunean, itsusiagoak eta betegarri hutsak diren honelako hitz berri batzuk ere maiz erabiltzen dira; esaterako, «treta» / «meta» / «eta» (esaldi amaierako zergatikakoa); gorago aipatutako «truko» / «uko»; «enpeino» / «engaino»; «gula» / «dugula» / «angula» / «sekula»; «apuru» / «buru» / «seguru»... Topikoak izanez gainera, erdal hitz garbiak ere badira batzuk, baina errimarako errazak direnez gero, gero eta gehiago erabiltzen dira.

Bokalen aldaerak

Errimatzerakoan egiten diren trukaketak dira gehienak: «-ea» / «-ia» bukaeren arteko nahasketarik ez zuten egiten bertsolari zaharrek, Uztapideganainokoek ez behintzat; ahoskatzerakoan «-ea» guztiak «-ia» ebakitzen zituzten eta «-ia» guztiak «-iya», baina batzuk besteekin nahasi gabe beti ere. Bereizketa honi eustearen aldeko sutsua zen Xalbador zena, poto egitea baino ia akats larriagoztat jotzen baitzuen. «-oa» / «-ua» bereizketak, nik dakidala, ez du tradizioan oinarri finkorik.

Bapatean 91 liburuan datorren adibide bat hautatu dut, beste aldetik kontrastez eta ironia finez betea, baina aipatutako akats hori duena:

*Poz ematen zun uda partean
hauek harro ikustiak,
uste gabeen heldu zaizkie
oso momentu tristiak,
orain mutilak omen dirade
nobato edo gaztiak,
orain non dira Clementek zitun
harropuzkeri guztiak?*

Bizkai aldeko bertsolarien artean asko zabaldu da «-o» / «-u» bukaeren trukaketa: «hainbat *arazu*» (arazo), «*arranu*»; alderantzizkoak ere inoiz entzuten dira, esaterako, «*esku*» eta ez «*esku*»; maileguzko hitz batzuetan alternantziak baliatzen dira bertsolariak, bakoitzean zer komeni den, «-o» bukaeradunak edo «-u»dunak eginez: «*kaso*» / «*kasu*», «*pauso*» / «*pausu*», «*enpeino*» / «*enpeinu*», «*errespeto*» / «*errespetu*», «*apuro*» / «*apuru*», «*siko*» / «*siku*», eta abar.

«**Albista**» / «*artista*» / «*telebista*»... Hauekin errimatzeko, berez «*albiste*» dena «*albista*» bihurtzen da.

Aditz-erroa partizipioaren lekuan

– «Ez dago zertan ardura» («ez dago zertan **arduratu** da forma zuzena).

– «Biak buka dira» («*biak bukatu dira* da forma zuzena).

– «Nahirik lor» (formaz gainera, joskera traketsa: «*lortu nahirik*» beharko luke).

Bada tradizioz beti horrelaxe, aditz-erroa soilik erabiltzea arau duen hitzik; horietarikoa dugu «*laga*»; nekez entzun edo irakurriko dugu «*lagatu*». Beste hitz batzuek ere erraz onartzen dute aditzoina partizipioaren ordean eta, horrela erabiltzea zilegi da, jakina: «*mintza*», «*altxa*», baina hauen forma normalak «*mintzatu*» eta «*altxatu*» dira. Beste aldetik, subjuntiboa, potentziala nahiz inperatiboa denean, aditz-erroa egitea eta ez partizipioa euskara batuan araua da; hala ere, gipuzkeraz eta batez ere bizkaieraz partizipioa egin ohi da kasu guztietan; beraz, bertsotan hala egitea zilegi izan behar.

Toki batzuetan, berez aditzak direnak, hots, «-tu» bukaerarik ez dutenak, besteen analogiaz, horrela «-tu» bukaeraz erabiltzen dituzte: «*betetu*» eta «*asetu*» / «*bete*» eta «*ase*»ren lekuan.

Haiek lokalismotzat joko genituzke. Dena dela «irakurri» eta «irakurtu» biak erabiltzen dira, hura Hegoaldean eta hau Iparraldean.

Esaldi bihurriak

«Nola mutilzar bizi naizenez / guztiok badakizute». Ez dago zuzen horrela: «nola» eta «naizenez» ez dira elkarrekin lotzen; «guztiok badakizute»: hor ere «guztiok» eta «ba» ez dira erraz uztartzekoak, aditzaren aurrean biak ez behintzat; bata edo bestea kendu beharra da edota aditzaren ondora pasatu, «badakizute guztiok», baina orduan errima zer?: esaldi konpletibo bat izan beharko luke, agian: Ni mutilzahar bizi naizela (naizena) guztiok dakizute.

«Bakardadean berri ez daki / norbaitek probatu ezik»; «inork» behar du, ez «norbaitek».

«Gau eta egun *gogoan niok* / hik emandako peztakin»; «Gogoratzen nauk» edo antzeko zerbait izan beharko luke.

«Lenago ere pasa izan da / hamaika holako histori»; nire iritziz «holako hamaika histori» hobeki.

Bapatean 91 liburuan honela dator bertso baten lehen puntua:

«Gasteiz aldera umore onez
etorria naiz **asmoan**,»

«Asmoan» edo «asmotan» posposizioa da eta ez dut uste moduzko sintagma osatzeko balio duenik; «etorria naiz indarrez/gogotsu» eta abar erabil daitezke, baina «zerbaitetako asmotan» edo antzera esango litzateke euskaraz ongi esatekotan.

Liburu berean, aita eta ama banatuak eta biak maite dituen semeari aholkuak ematen dizkio bertsolariak:

«Deitutakoan al dan azkarren
zu biengana etorri,
erdi denbora amarengana,
bestea aitangana korri,
irrifar hori al dezunean
bieri berdin igorri,
berriz aita-amak elkar datzaken
bakarra zera zerorri.»

«Erdi denbora»ren ordez «denbora erdia» beharko luke...

«inuzentzian **hau** bizi dala
inork dudarik ez euki,»

«Inuzentzian bizi dala hau», joskera aldetik hobeki, nire ustez.

Egunerko hizkeran zenbait euskalkitan nabari diren akatsak, edota behintzat hain gomendagarriak ez diren usadioak, bertsotan baztertzera jo beharko genuke ahal dela. Gipuzkeraz nabari diren batzuk aipatu ditut: «a» itsatsiaren galtzea, «-tutzen, -tikan/-rikan» formak gehiegi erabiltzea, errazkerian eroriz... Bizkaieraz ere bada sustrai sakoneko usadiorik; esaterako, «eduki», «ukan»en lekuan («liburu polit bat *daukat* eskuartean, baina «berrogei urte *ditut*»; «egon», «izan»en lekuan («itzalpean jarrita *egon naiz*», baina «goizean Donostian *izan naiz*»); «ibili», «ari izan» edo «jardun»en lekuan («kaleetan zehar *nabi*», baina «hizketan *dihardut* edo hizketan *ari naiz*»; lehen esandakoaz gainera, «sasoian dago» forma baino egokiagoztat dut «sasoian da»...

Bada euskalki batena soilik ez den usadiorik ere; esaterako, «gustatzen zait»; erdararen kopia dirudi; hobeki legoke «maite dut», «gogoko dut» edo «atsegin dut». Ez da gomendagarria «arrazoia duzu» esatea, gutxiago oraindik «arrazoia daukazu». «Zuzen zaude horretan» eta antzeko esamoldeak ditugu horretarako.

ZENBAIT BERTSOREN EDERTASUNA

Azken urteotako *Bapatean* liburuak aztertzen aritu naiz iraizean, 91koa batez ere. Goian aipatutako akatsekin batera, ale ederrik ere bada hor, gainbegirada batez ikusten direnak. Ederra diodan hori era askotakoa izan daiteke: dialektika bizi eta indartsua, ironia fina edo zirikada gazia, bertso jantzi eta olerki kutsukoak. Hona, besteak beste, ederretsi ditudan adibide batzuk:

- Gaia: istripua izan ondoren, zaurituari zangoa moztea erabakitzen du mediku-taldearen buruak. Hona ebakuntza jasan duenaren bertsoetariko bat:

*Amorru puntu txiki bat bada
nere begien disdiran,
horrelakorik inoiz gehiago
ez nuke nahi nere jiran,
hanka bat moztu, ondo kobratu,
ta lagun deitu segidan,
zorionean neuk hautatzen det
adiskideak zein diran.*

Bertsoak egoeraren agerpena, haserrea, haserrearen arrazoia («hanka bat moztu, ondo kobratu,/ta lagun deitu segidan») eta bukaera. Arrazoia agertzean darabilen progresioa benetan polita da. Bukaerak badu indarra; hala ere, euskara aldetik, esaldian bada zerbait hots hain fina ez dakarkidana. «Neuk hautatzen ditut adiskideak» izango litzateke esaldi jatorra edota «neuk esan behar dut adiskideak zein diran».

«Hautatzen det zein diran...»? «Hautatu» aditzak osagarri zuzena eskatzen du eta ez zehargalderazkorik.

- Medikuaren erantzunean ere kontraste politikak datoz:

*Ni adiskide ta bera etsai,
horra neretzat ordaina,
bihotzetikan behintzat ez zera
itxuraz bezain bikaina,
zuri laguntzen ahalegindua
gaur damu det alajaina,
nahiago nuen hanka utzita
moztu banizun mingaina.*

Bertso ederra. Kontrasteetan aberatsa. «Bihotzetikan» baino hobeki legoke, agian, «bihotzez». Lehenengo bi puntuetan kontraste horiek adierazi ondoren, bere gogoeta tartekatzen du, hari-harira, hirugarren puntuan. Bukaeran bertsolari honek bere marka utzi du; espresio indartsua da, baina ia mailu-kada bat dirudi...

- Gaia: Erre g e-bezperan jarri dituzu zerbaiten esperantzan zapatak, eta lo zaudela harrapatu egin dizkizute:

*«Gorrotxategi hi bobua haiz’
pentsa izan det sarritan,
hori dela ta ari natzaio
neure buruari erritan,
pentsatze hutsak negar malkoak*

*sortzen dizkit bi begitan,
azkarragorik badabil hemen
ilargiaren argitan,
erregeena kontua degu,
lapurrarena egitan.*

Hirugarren puntua betegarria edo gehiegizkoa dela uste dut; nire iritziz, ez dator harira. Maite den baten heriotza edo balitz ere, baina hain dramatiko jarri beharrik ez dela uste dut. Azken bi puntuak ederrak dira eta euskara aldetik ere ongi tolestuak. Ondorengo bi bertsoak ere ederrak dira. Bigarrenean, merkatal etheen izenak datoz: «Alicante-ko Corte Ingles-en / erosi ta ekarriak». Goraxeago: «cuarenta y cinco numeroa ta / kolorez gorri-gorriak...» Lexikoan erabilitako erdarakadak, batzuetan, ez dute gaizki ematen erara etorritz gero. Baina horiek egoki tartekaturik eta tantaka erabili behar dira. Txitean-pitean erabiliz gero, zabarkerian eror gintezke.

- Gaia: Bixente Garzia, Parisen dago preso politikagatik. Hari eta haren antzera preso daudenei:

*Gaua etortzen ez den artean
ez zaigu bizten izarrik,
gure Herriko gaba honetan
badugu argi edarrik,
zuentzat badut anai presoek
bihotz barneko didarrik,
jakin zazute guda honetan
ez zaudetela bakarrrik.*

Idea ezagunak eta asko erabiliak izan arren, lehen bi puntu horien ederra dastatzea ezinbestekoa da moko fineko bertso-zalearentzat. Bertsoak egitura klasikoa du: sarrera bikain horren ondoren, bere bidean doa, mezua azken punturako utziz. Mezu hau espero zitekeena eta maiz errepikatua da, baina horrek ez du itsusten bertsoa. Transkribapeneko hutsa izan daiteke, agian, hirugarren puntuaren lehen lerroan datorrena: «zuentzat badut anai preso**ek**». «Preso» hitza hor ez da ergatiboa, bokatiboa baizik; beraz, kakotx artean sartuko nuke honela: «zuentzat badut, anai preso**ak**». Gainerakoan, aditz markatua «ba-» eta gero partitiboaz «-rik» dotore darabil.

- Bigarren bertsoak ere merezi du aipamenik:

*Menpean denak beti beregan
jarria du desgrazia,
une batean ezin da galdu
urtetan irabazia,
zuen hildotik etorriko da
iguzkiaren grazia,
kate artean erein duzue
libertadeko hazia.*

Metafora politak daude, maiz erabiliak izan arren, azken bi puntuetan. («ildo» honela, «h»rik gabe).

- Gaia: Athletic larri-larri eta negatiboekin...

*Harropuzkeri guztitan ere
Athletic denen graziko,
euskaldun hutsez jokatzeko baitu
ez ingles ta ez Frantziko,
nahiz ta batzuek irrikaz egon
segundan noiz ikusiko,
lehen ere ez zan inoiz jeitsi ta
gaur ere ez da jexiko.*

Bertso xumea, baina espresio bizikoa da, lagunarekin darabilen dialektikaren haritik egoki ekarria. Elipsiak dotore eginez prestatzen du azken puntuko mezua. Hirugarren puntuan zubi gisa esaldi kontzesibo polit-polita tartekatzen du: «nahiz ta batzuek irrikaz egon / segundan noiz ikusiko». «Noiz ikusiko egon» esamolde jatorra. Azkena, berriz, erremate indartsu eta bizi-bizia.

Aurreko bertso batean, honela ematen dio bukaera: «lehoia siestan daukagu baina / laster jarriko da tente».

- Gaia: Herriko hiru txapeldunei omenaldia Muxikako Areatzan. *Bapatean 91* liburuan datozenetatik bi bertso liriko hauek hautatu ditut:

*Sentimentuak lausotzen jataz
soinik gabeko hitzetan,
itsasoaren indarra legez
olatuaren bitsetan;
ene Muxika, hainbat meritu
ez zan gure ekintzetan,
betiko zordun egin gaituzu
neurritz gorako aintzetan.*

Idea poetikoa agertzen du bertsolariak lehen bi puntuetan, gero, honelako omenaldietan maiz esan ohi dena agertzeko hurrengo bietan.

- Ondorengo beste bertso batek honela dio:

*Martizozoak txorrotxioka
dakar bizitzaren txanda,
kukupraka ta bertso loretan
jantzi jaku gure landa,
omenaldiak beragaz dakar
erretiroaren tranga,
baina gureztat biharrerako
indar barri bat izan da.*

Kopla zaharren antzeko egitura du bertso honek: lehenengo izadiko irudiak agertzen dira; eta gero, logikazko lotura argirik gabe, ematen da eman beharreko mezua. Bertso honek ukaezinezko lilura du. Euskara dotore erabilia dago. Kantatu orduko, buruan ukitu batzuk egindako bertsoa dirudi. Azken puntuan badut zalantza txiki bat: «biharrerako» bi eratara uler daiteke, bertsolaria bizkaieraz ari baita: «beharrerako», hots, lanerako edota biharko egunerako. Azken hau esan nahi badu, forma zuzena «biharko» da, euskaldun jatorrak ez baitu sekula esaten «gaurrerako» edo «biharrerako», «gaurko» eta «biharko» baizik. Bide batez, euskara jatorrez, «betirako»rik ez dela esan nahi nuke, «betiko» baizik; eta hori, bai genitibo denean eta bai destinatibo denean: «betiko lekua» eta «joan da hemendik betiko»; ez «betirako» (Ikus L. Akesoloren *Idazlan Guztiak*, 3. liburukia, 102 or.).

Bertso liriko, gozo eta politen artean sartuko nituzke ondorengo biok ere:

- Gaia: Hire etxe aurreko sagarrak lore berritan ikusi dituk. Zer dakarkik horrek burura?

*Egunsentian hi ikusita
astindu zaidan bihotza,
iazko kimu punttan hor hago
lore txuri ta arrosa,
hire mezuak adierazten din
nequaren heriotza,
hiri eskerrak nabari dinat
Udaberriaren poza.*

*Hire polena miazka nahirik
erleak helduko zaizkin,
euri epelak sari gisara
ekarri hainbat xipriztin,
hegohaizeak petalo hoiak
bilakatzean hegazkin,
hi joango haiz ta zuhaitz honek
sagarrak izango dizkin.»*

Bertso hauek badute ederraren xarma. Xehetasun berezia, sagarrondoari noka hitz egitea, frutarbolak, lurra eta abar emetzat hartzen baitira euskaldunen pentsaeran. Liburu honetan bertan eta bertsolari berak kantatutako beste bertso pare bat ere begiz jo dut, hari berekoa, sentimentuz betea, baina luze-egi joko luke guztiak idaztea. Aipatu egingo dut soilik. Gaiak honela dio: Asko estimatu duzun pertsona betiko joan zaizu.

Beste estilo batetakoak, baina gainerakoak bezain ederrak edo ederragoak dira hamarreko txikiko hauek. Lehenengoa eta hirugarrena hautatu ditut:

- Gaia: Ustez maite zintuen neskak beste bat maite duela dio.

*Kanpotik eder bezin
barrutik ustela,
joera hau ez dinat
ulertzen bestela,
hionan hire maite
bakarra nintzela,
baina biharamunez
beste bat bazela,
aldatzen dakin haize
orratzak bezela.*

*Barrua hustu dinat
bi bertso medio,
baina nerea ez den
erdi amodio,
bihotzak buruari
gaina hartu dio,
hire menpeko naun ni
zer erremedio,
nahi baden berriz kaixo,
nahi baden adio!*

Sentimenduak eta ideiak hobeki agertzerik ba ote da? Azken bertso hau itzela da nire ustez. Lehenengo puntua sarrera gisakoa da, aurreko bi bertsoetan esandakoa aipatuz, ondorengo puntuetan maitemindurik agertzen du bere burua, bereziki laugarrenean: «hire menpeko naun ni/zer erremedio»; eta azkenez hau bukaera polita: «nahi baden berriz kaixo,/ nahi baden adio!» Lehen bertsoak, ona bada ere, ez nau bete hainbeste. Bertsoaren neurri, errimak eta abar hartaraturik, baina bestela lehenengo esaldia honela hobeki legokeela uste dut: «Kanpotik eder bezain ustel barrutik». Zangalatraba eta elipsiak maisuki darabiltza: «hionan hire maite / bakarra nintzela, / baina bihar ramunez / beste bat bazela, / aldatzen dakin haize / orratzak bezela».

• Gaia jarri eta bertsoa kantatzen duen unean bertsolariak dituen sentimenduak ezin hobeki adierazten dira bertso honetan:

*Mikrofono aurrean
sarri izerditan,
gaia entzuten degu
zalantza haunditan,
zer eta nola esan
rima ta neurritan,
buruan arrazoiak,
odola korrikan,
hori sentitzen degu
segundu gutxitan (bis).*

Ziri eta ironiaren aldetik, besteak beste, ondorengo bi hauek hautatu ditut:

• Bataren gaia: Andikoan, X. Amurizaren baserrian lurjausiak izan ziren:

*Era hontako deskalabroak
asko pasa dira aurten,
nere lagunan baserria're
behera doa susto baten,
tejabana bat egin zenduten
hori ere gaizki irten,
auzo honetan ez al dezute
deus ere tajuz egiten? (bis)*

• Bestea Nikolas Seguroalak emandako puntuari erantzuna. Hona puntua:

*Sekula izan al zera
zu laneari fina?
Galdera xelebrea
didazu egina,
langile amorratua
ez naiz izan baina,
halare egingo nuen
zazpi frailek aina.*

Hemen bertsolariak, lehenengo puntuan gaia jaso, galderari berari ukitutxo batzuk egin eta zuzenki erantzun dio. Ilargitik Lurrunarako distantziaz Fernando Amezketararak fraideari emandako erantzuna dirudi...

- Gaia: Hona etortzerakoan hau entzun dugu: Zer egiten du ume horrek gizonen artean? (Igor Elortza zen bertsolaria):

...
*ta esateko beste zerbait be
badaukat orain gogoan,
seguru nago esango dute
etxera joatekoan:
'Agure hoiek zer eiten zuten
gaztetxo horren ondoan?'*

Argudioari buelta eman eta ikaragarritzko ingenioa erakusten du hemen bertsolariak. Kontraste ezin biziagoa: Gaiak zioena: «hona etortzerakoan» (...) «zer egiten du ume horrek gizonen artean?» eta bertsolariaren erantzuna: «seguru nago esango dute /etxera joatekoan: / 'Agure hoiek zer eiten zuten / gaztetxo horren ondoan?」 Hona hemen bertsolaritzaaren dialektika, ironia eta grazia. Ondoren aipatzen ditudan bi bertsoak ere ironiaz eta ingenioz beteak dira.

- Gaia: Ordenagailu honi «ñ» hizkia kendu diote:

*Eztabaidatzen behar izan dute
ez dakit zenbat denbora,
«ñ» hizkia kendu delako
idazle asko aztora,
«n» gaineko txotxa kentzeko
zeinek hartu du aizkora?
Bagoaz ez dakit nora,
behar bada ez inora,
Begoña izena duten neskatxek
«ñ» nola ez añora?*

*Ordeñadora nintzan ni lehen
ta orain ordenadora. (bis)*

*«Ñ» kentzeak sortu dezake
hemen egundoko drama,
lehen amonak moño batekin,
orain danak mono bana,
lehen Muruak buru bikaña,
ta orain berriz bi-kana,
bertsolaria da Pena,
ta baita ere Egana. (bis)
Guardazibilak ta poliziak
sarritan «viva Espana»;
«zer kristo», eta «zer cono» ere
ez dago gaizki esana! (bis).*

Euskarari dagokion aldetik, bertso hauek ez nituzte eredutzat joko. Ez dago esamolde aberats eta gurpil aparta duenik; hala ere, bertso hauen eraikuntza eta tolestura ingenioz eta umorez betekoa da. Urteko bertso berezien gailurrean ezarriko nituzke zalantzarik gabe.

BERTSOZALE BEREZI BATEN IRITZIAK

Sail honi bukaera emateko, Rufino Iraolaren iritziak ekarri nahi nituzke hona, hark burututako lantxo polit bat eskuarteant baitut: «Lizardi Sariarekin Txutxu-mutxuka» du izenburu. Beraz, Lizardi Sarian aritu ziren bertsolari gazteen bertsoak aztertzen ditu, hizkuntzaren eta joskeraren aldetik batez ere. Agertzen diren forma jatorrak ederretsiz gainera, akastunak nola zuzen daitezkeen ere adierazten du. Hona aztertzen duen lehen bertsoa:

*Artzaian esanetan
hamalau bat ardi;
danak fuerte datoz ta
ibili behar argi.
Eta irabazi nahi
duenak «Lizardi»
atera beharko du
hamaika izardi!*

Iruzkinean hainbat gauzatxotan ezartzen du bere begirada zoro rotza Rufinok: «Artzaia» ordez «artzaian» darabil. Hori

gutziz onartua dago ahozkotasunean. Ez da akatsa. «Artzaian esanetan» ala «artzaian esanera» esaten da ordea?

Bi sineresi daude bertso horretan: «behar» eta «fuer-te». Berez, normalean, «be-har» eta «fu-er-te» ahoskatzen ditugu. Ni, sineresia guztiz ontzat ematearen aldekoa naiz. Badago elipsi jator askoa ere. «Lizardi» esaten du, «saria» isilpean utziz. Azken lau lerroetan enkabalgamendu edo zangalatraba totala dago. Esaldi kate bakar batean despatxatzen ditu bi puntuak. «Ar-tzaia» eta «ardi»z gain badago bi hauek bezain esplotatua den beste metafora bat ere: «izardi». Nahiz eta, egiten zuen beroarengatik, literalki ere har zitekeen.

...
*kantatzen entzun aurrena
 ta merezi badet pena,
 gartzela gaian aritutzea
 banator hurrena.*

Bertso honen joskera, begiratzen diogun lekutik begiratzen diogula, nahiko narratsa da. Ideietan ongi dabil (...) «Merezi badet pena» esatea astakeria dexentea da. Euskaraz «pena» kendu eta merezi bakarrik erabiltzea aski da. Kasu honetan, «zuen gustoko suertatzen banaiz, grazirik egiten badizuet, zuek merezi ainean aritzen banaiz, pasatzea merezi badut» edo antzekoren batzuk beharko lirateke. Guzti hauek, noski, neurriak eskatzen duen arabera. «Gartzela-gaia» formak, nik daki-danez, ez du tradizioirik. (...) «Banator» hori ere gaizki dago. Hor aditzaren aurretik joan beharrekoa, derrigorrez «aritzera» da. Beraz, honela konpon daiteke hori:

... aritzera
 nator ni hurrena

Lizardi Sarian

*Amaieran nengoke
 poztasun gorian,
 jaio ta hiltzen ez banaiz*

«Lehenengo aldiz plazaratzen zenetariko batek kantatua da hau. Zein espresio polita: 'poztasun gorian'. Zein kontraste polita: 'jaio/hil'. Sinalefaz ez dut ezer esango, zeren, oro har, gero eta gehiago sartzen ari baita bertsolaritzan. Bazen garaia!»

...
*kukil-kukil eginak
 gaur hamalau txita,
 gerrarako asmotan
 ez gatoz etsita.*

«Logikak ere behar duela tokia bertsotan, uste dut. Metafora polita, baina ez al dago kontraesan handiegia 'kukil-kukil eginak' eta 'gerrarako asmotan' en artean? (...)».

Hurrengo bertso-atalean, «horixe ezin da uka» esaldiak belarriko mina egiten dio aztertzaileari. «Hori' guztiak ezin daitezke 'horixe' bihurtu. Esaldiko galdegai edo informazio nagusia denean bakarrik izan daiteke 'horixe'», «Horixe ezin da uka»^{ren} ordez, «hori ez daiteke uka» jarriz konpon zitekeela dio. Bere ustez, euskara jatorrez egin ohi den bereizketa galduz doala eta kexu da: «Hanka hautsita daukat eta ezin naiz mugitu' eta 'dei bat espero dut eta ez naiteke mugitu' guztiz diferenteak direla defenditzen dugunok gerra galdu dugu jadanik, eta kito!»

Gaia: Bi «paixa» zarete. Kale-kantoiari bildu eta elkarri penak kontatzen hasten zarete.

*Neroni soilik gutxi banintzan
 hara bestea azaldu!
 Mutur beltza det eta beltzago
 ni etsipenean galdu.
 Erloju eta koilaretikan
 karga ugaririk badu,
 Afrika aldetik etorri eta
 ezertxo ezin det saldu.*

Bertso oso polita, baina aztertzaileak lotura-falta izugarria somatzen du hirugarren puntuan. Bere buruaz ari da eta nora doa hirugarren puntu horretan? «Karga ugaririk badu» esanik ongi geldi zitekeen. Ez ote zuen hori esan nahi izango bertsolariak?

Gaia: soldaduska Gurutze Gorrian egin duzue eta hamabost egun falta zaizkizue lizentziatzeko.

...
*guk igerian ibili behar
 hemendikan hareaino,
 baina salbatu nahikoa gutxi
 egin dira oraindaino.*

*Funerarian hobeto gaude
salbamendurako baino.*

«Bertso bikaina izan beharrekoa 'Funerarian hobeto gaude' horrek dexente itsusten du. 'Funerariako hobeak gaude' esan izan balu hobeto zegokeen».

Gaia: Aita-semeak. Semea, estudiatzen gaupasa egin ondoren azterketa egitera doa. Aita, buzo zaharra jantzita, lanera.

Ofiziotako dialektikan murgildu dira eta aztertzaileak honako puntu honetan aurkitu du zer zuzendua:

...
*lō egin besteik ez zendun izango
aurretik egin bazendu.*

Ukitu txiki batez bertsoa askoz txukunago geldituko zela agertzen digu Rufinok: «aurretik egin bazendu»ren ordez «aurrez ikasi bazendu» jarrita.

*Nere aitatzok bere buruan
ideologi zaharra.
Liburuekin ibili behar,
hau da mugimendu txarra.
Ikasten daukadan egoera
ez da batere earra:
behingoz gaupasa egingo eta
ikasten egin beharra.*

Zenbait ohar ongi ekarriak ditu hemen ere aztertzaileak. Haserre garenean aitari «aitatxo» esatea ez da logikoa. «Ideologi» hitza erabiltzeari gehiegikoa deritzo. Horren ordez, pentsamolde edo antzekoren bat hobeki sar zitekeela uste du. «Behingoz» eta «behin» ez dira gauza bera. Beraz, «behingoz» hori gaizki dago. Bertso honetan dauden elipsiak azpimarratzen ditu aztertzaileak, bertsolari ona izatekotan, errekurtsio hori ongi menderatu behar dela adieraziz. Neure aldetik, azken puntu hori gogoko dudala esango nuke, «behingoz» hori «behin»en lekuan erabili badu ere: ... gaupasa egingo eta/ikasten egin beharra.

Gaia: apaiz egin eta gaur ematen duzu meza berria. Zure anaia Punki hau han azaltzen da zeremoniara larruzko txamarra, txima harroak eta bota handiekin.

*Hasera onik ez diot eman
nere ordenatze horri;
begira hona ze anai dedan,*

*ikusi hutsez igarri:
galtza motxetan, txaketa beltza,
begi-urdin, ile-gorri.
Hamabostean bitan, gutxinez,
konfesatzera etorri.*

Bukaera hori ez du egokitzen jotzen gure aztertzaileak; zerbait esan behar grazia egitearren edo bota. Ez du aurrez esandakoekin zerikusirik... Hurrengoan beste itxura batekin etortzeko edota Jesusek edonor onartzen duela edo antzeko ideia-
ren bat proposatzen dio.

Gaia: Bi amona xahar zarete. «Hik zer edo zeinen alde errezatzen dun» galdetzen diozue elkarri.

Elkarrizketa bertsotan bere bidetik doa eta halako batean alerta gorria piztu beharrean izan dela dio aztertzaileak. Ez zen gutxiagotako, izan ere. Hona bertso horren azken bi puntuak:

...
*Errezorikan ez den egiten
eta asko pekatua;
eta horixe ez da izango
inorgatik barkatua.*

«Inorgatik barkatua» euskaraz ikaragarritzko hutsa da; euskaraz ez dugu hizkuntza erromanikoen duten ablatibo agente delakorik. Horrez gainera, «eta asko pekatua» ere esaldi nahiko traketsa da.

Gaia: neska-mutilak zarete. Dantzan ari zaretela egundoko kirats usaina nabarmendu da.

*Dantzan hasiak gera
okerka-okerka;
gorputz osoa jarri
biok berta-bera.
Kiratsa dala eta
sudurrai kolpeka?
Eguerdian jan dinat
babarrun platerka.*

«Berez, 'platerka babarrun' beharko zukeen, baina kasu honetan zeharo justifikaturik dago ordena aldaketa.»

Gaia: erabaki hiruron artean bigarren postua norentzat.

*Urteak joan eta
ondorena sarri;*

*hogeitabiko muga
estu eta larri;
hauek gazteak dira,
ez daude elbarri;
hara, lagun, mesedez
bihozpera jarri;
hurrengo urtean berriz
ezin naiz etorri.*

«Elipsi bat baino gehiago dago: 'hogeitabi urteko muga estu eta larri nabil'. 'Ezin naiz etorri' hori 'ez naiteke etorri' jarrita hobeto zegoen». Poliki eta erdi gordean eskatzen du, errukiz bada ere, beretzat hirugarren postu hori...

*Honuntza etorri naiz
poliki-poliki;
prestatu ere ez naiz
egin izan aski.
Batzuntzat ondo jardun,
bestentzat ederki.
Bigarren ezin gero
hiru gera noski;
laugarren konforme naiz,
zuek erabaki.*

«Batzuntzat ondo jardun, bestentzat ederki». Ez al da arraro samarra? Hamarretatik bederatzik «Batzuntzat ondo jardun, bestentzat gaizki» esango genuke. «Bigarren ezin gero hiru gera noski» zein hitz-joko polita!

Atal honetan Rufinori berari utzi nahi izan diot hitz egiten, neuk al bait gutxien esku hartuz. Handi-handika, behintzat, bat nator harekin agertzen dituen aburuetan. Dena dela, sinalefak egitea hark bezala nik ere ontzat ematen dut; hitzaren amaierako bokalak eta hurrengoaren hasierakoak beheranzko diptongoa sortuko luketenean, ontzat ezezik gomendagarritzat ere bai. Dieresiak eta sineresiak, ordea, gorago ere esana dudanez, ahalik gutxien egitera joko nuke. Rufinok dieresirik ez du aipatzen, baina sineresiak behintzat onartzen ditu.

Adarrik adar saltoka aritu ote naizen nago. Egitura edo tolestura sistematikorik gabeko lan bat burutu ote dudana susmoa ere badut. Begiratzen den guztian hobetzea edo osatzea eskatzen duen horietako gaia dugu, izan ere. Etengabe ukituka aritu arren, beti duzu zer ukiturik eta osaturik. Dena dela, hor-hemen barreiatu, gauza probetxagarri asko izango diren ustetan, hementxe utziko nuke... erdi-poto eginik!

BERTSOLARITZA HEDABIDEETAN

JOXERRA GARZIA

Bizi dugun gizartemodu honetan hedabideek betetzen dute behiala erlijioak bete ohi zuen funtzioa: zernahi giza jarduera, hitzarmen edo egoera sakralizatzearena, alegia. Hedabideetan agertu ezean izaterik ere ez dagoela esan liteke, gero eta gehiago.

Kultur jarduera ere ez da horretan salbuespen. Eta bertsolaritza, zer esanik ez, kinka horretan dago: hedabideek eskaintzen dioten bideari egokitu, horrek dituen arriskuekin, edota jatorrietako molde eta moduei itsu-itsuan atxiki, gizarte-mailako ezein eragini behin betirako uko ginez.

Duela zenbait urte entzun ziren jatorkeriaz blaituriko diskurtsoak ez dira oraindik ere isildu, eta badute beren arrazoi

puska ere. Nolanahi ere, badirudi bertso-mundua ren barruko jendeak argi eta garbi apustu egin duela bertsolaritza modernizatzearen alde. Eta modernizatze hori hedabideetatik egin beharko da, inola ere egitekotan. Lagunarteko bertsogintza fresko eta ziridunari bere lekua zer ukaturik ez dago, dioguna aurrera ateratzeko. Baina Txirrita (eta sagardotegietako Txirrita bakarrik) eredu bakartzat duten nostalgikoen bideak, atzera ezezik, ezerezera eramango luke, luze gabe, bertsolaritza.

Bertsolaritza hedabideetara eramane beharra dago, beraz. Eta bertan txertatuko bada, hedabide horien izakerari egokitu beharko zaio, gutxi-asko. Galduko ditu orain arte funtsezkotzat genituen hainbat eta hainbat ezaugarri, eta orain arte pentsatu ere gabeko zenbait jardunbide sortuko da.

Egokitze horretan, ordea, azalari dagozkion aldaketekin batera bertsolaritzaren funtsa bera ere gal liteke, zuhur eta azti jokatu ezean. Izan ere, hedabideen indarra ez baita gutxiestekoa, axalkeria eta lehian ditu oinarriak, eta onura adina kalte egin diezaioke bertsolaritzari nolahalako txertatzeak.

Txosten honek ez du bertsolaritzaren hedabideetaratzearen arazoei konponbidea ezartzeko usterik. Bere helburua betetzat luke, baldin eta arazo horietako gehienak aipatu eta haietaz ohartaraztea lortuko balu.

Ez dago horretarako hutsetik hasi beharrik. Aspaldi dago bertsolaritza, neurri batean edo bestean, hedabideetan. *Nola dagoen, zer egiten den, egiten den guztia egin behar ote litza-tekeentz, egiten ez denik behar ote lukeentz...* galdera horiei erantzuten hasteko *eztabaidarako gaia formulatzea* du txosten honek helburu apaltzat.

Eskualde mailatik gorako hedabideak soilik hartuko ditugu aintzat, herri eta bailara-mailakoak alde batera utzirik, oraingoz aski indar ez dutelako oro har. Nolanahi ere, badirudi aurki udal-irratien ugaltzea etorriko dela, eta baita, akaso, udal edo herri-telebistena ere. Baina horrek beste azterketa behar luke, hemen azalduko den panorama errotik alda dezakeelako. Besteak beste, hiritarrarengandik gertuago leudeke hedabide horiek, eta horrek nolabait «des-sakralizatu» egingo lituzke, non eta ez zaizkion, behintzat, handien ereduari gehiegi lotzen.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi: erdarazko «euskal» hedabideek ere balukete zer eginik bertsolaritzaren alorrean (eta beste

hainbatetan). Bertsolaritza kultur ondare bitxi eta bakan dugu, eta Euskal Herrian bada jende-multzo zabal bat (zabalegia, aukeran) horren berri ez duena. Oraindik egiteko dago, adibidez, bertsolaritzaren nondik norakoak azalduko dituen bideoa erdaraz, euskaraz ez dakien euskal herritarrari «horra zer galtzen duzun euskaraz ez jakitearren» edo, adieraziko liokeena. ETBren bigarren katea sortu zelarik era horretako lanen zain egon ginen koitaduok etsipena hartzen hasiak gaude, ikusirik Japoniako, Finlandiako, EEBBetako eta beste hainbat tokitako telebistek aurre hartu digutela horretan ere. Kanpora saltzekotan ere, errazago salduko lirateke horrelako lanak, inorena imitatu eta berdindu nahirik eginiko «normal» eta «homologatu» usteko asko baino.

Baina hori, esan bezala, aipatu besterik ez dugu hemen egingo, txosten honek aurrerantzean bestelako ikuspegiz helduko baitio bertsolaritzaren hedabideekiko harremanen kontuari: bertsolaritza eta hedabideetan murgildurik diharduen baten barne-ikuspegitik, alegia.

BERTSOLARITZA PRENTSA IDATZIAN

BERTSO JARRIAK

Prensa idatzian errazenik jaso litekeen alderdia dugu bertso jarriena, bistakoak diren arrazoiengatik. Miaketa erabatekoa egin gabe. 'Basarri'ren lana aipatu behar da atal honetan, *La Voz de España*-n lehenik eta *El Diario Vasco*-n gero beti izan baitu txokoren bat bertso jarrirentzat. Gerraosteko bertsojartzaileek ere, neurri handi batean behintzat, hari esker argitara ahal izan zituzten beren bertsoak.

Gaur egun badu 'Basarri'ren langintza horrek jarraitzaile fidelik. Fidelegirik, deskuidoan, 'Basarrik' bere garaian meritu handiz eginikoak ez baitu gaur egun egiteko zentzu handirik.

Eguneroko prentsan dabilta bada dabiltzanak. Astekarrietan, berriz, aspalditxoan galdu bide da *Argia*-ren ohitura, bertso-papere orrialde bat eskaintzekoa. *Bertsolari* aldizkariak badu atal bat bertso-paperentzat, baina gehienetan bertso-paper lehiaketetako bertsoak izan ohi dira. Bere funtzioa egiten du,

ezin uka, baina bertso-paperaren berriztatzeari buruz, ezer gutxi.

Izan ere, bertso-paperekin behiala izan zuten *komunikatzeko gaitasun* hura berreskuratzea baita hemen erronka nagusia.

Bide horretan ulertu behar da *Euskaldunon Egunkaria*-k bere bigarren orrialdean argitara ohi duen bertsoarena. Gaurkotasuneko gairen bati buruz enkarguz egindako bertsoa izan ohi da, eta prentsa idatzian *txisteak* edo *komikiak* bete ohi duten funtzioa betetzen du. Alde horretatik estimatzekoa da, noski. Baditu, halere, bere alde txarrak ere:

- Bertso bakarrean zail da goi-maila bat iristen.
- Lan-banaketa presaka eta korrika egin behar izateak, ondorio eskasak ekarri ohi ditu sarri, asko eta askotan gaiari buruzko ezaupiderik eza nabarmen geratzen delarik.

Esanak esan, nolabaiteko erreferentzi puntu izatera heldu dela esan daiteke. Merezi luke apur bat fintzeak.

BAT-BATEKO BERTSOGINTZA

Begi-bistakoa da, idatzia eta bat-batekotasuna ezin ezkon daitezkeela elkarrekin. Halere, eta azken aspaldion batez ere, bat-bateko saioak jasotzeko ahalegin nabarmena egin da prentsa idatzian.

Jenerohonetan, lehia gaiztoa du prentsa idatziak irrati eta telebistaren aldetik.

Gehienetan, bertso-saio baten *kronika* moduan planteatu ohi da. Lehendik bestetan egin ohi bazen ere, *Egunkaria*-k finkatu du jeneroa. Bertso-saioaren datuak emanez ekiten zaio: non, zer bertsolari, zenbat jende... Gero jarritako gaiak aipatu, dozena erdi bat bertso transkribitu, eta azkenik, kritika moduko bat ere bai.

Tankera honetako berri emateen interesa diskutigarria da. Saioan izan ez denarentzat, oro har, ez da nahikoa izaten. Jeneralean, saioak paperean hobetzeko joera antzeman daiteke. Eta hori, gaurko terminologiaz esateko, «konpetentzia ezleiala» da, bertsoak dauden-daudenean, ez onerako ez txarrerako aldatu gabe, eman behar dituzten hedabideekiko. Egitekotan, ahalik fidelen egin beharko litzateke transkripzio-lana, Ber-

tsolari Elkarteak horretarako finkatu dituen irizpideen araber.

Askoz ere interes eskasagoko dira saioen aipamen laburrak, jeneralean *omenka* eginak direlako eta ez dutelako deus aportatzen.

Nolanahi ere, bat-bateko bertsoen eremu honetan zail izango du beti prentsa idatziak hortik oso gora jotzea, nahiz eta aurre-rago hainbat irtenbide aipatuko dugun.

Bat-batekotasuna jasotzeko traketsago izanagatik, bat-batekotasunaren nondik norakoak aztertzeko aproposago dirudi prentsa idatziak, baina horrenbestez hurrengo atalean sartu gara.

TEORIA

Irratia eta telebista baino egokiagoa da prentsa idatzia bertso-gintzaren teoria landu eta azaltzeko. Maila askotan egin liteke:

- Jaialdi batean erabilitako *errima* guztien sailkatzea.
- Neurri eta bertso-motei buruzko argibideak.
- Bertso-pasadizoak.
- Denborapasa moduko bertso-ariketak.
- Bertso-estilistika.

Badirudi etekin hobea lukeela horrela prentsa idatziak, jaialdien kronika hutsa eginez baino. Halere, ezer gutxi egin izan da bide horretan:

- Euskitzek *Eguna*-n egindakoak.
- *Bertsolari* aldizkarian hiruzpalau lan.
- «Zabalik»en artikulua bat edo beste...
- eta ezer gutxi gehiago.

BERTSOLARITZA IRRATIAN

BAT-BATEKO BERTSOGINTZA

Prentsa idatzia ez bezala, irratia guztiz egokia dugu bat-batekotasuna jaso ahal izateko. Bera dugu hedabideetan espon-

taneoena, bat-batekotasunaren mirari txiki hori bereganatzeko aproposena.

Hasi ere, irratia azkar asko hasi zen bertso-kontuetan. Gipuzkoa eta Bizkaiko Herri Irratietako jarduna aipatu eta goraiatu behar, zalantzarik gabe, horri dagokionean.

Ohizko plazetako bertso-saioak grabatu eta eskaintzea izan zen irratiek eman zuten lehen pausoa. Saioa grabatu, eta aukera gehiegirik egin gabe, oso-osorik edo eskaini. Bertsolari-txapelketak bezala, bertso-jaialdi formalak edo afariak. Hitz batean, bertso-jarduna jaso eta isladatzea.

Makina bat gozatu hartu du bertsozale jendeak irratitari esker. Gaur egun apenas irratirik dagoen, euskaraz zerbait dihardutenetan behintzat, bertsoei tarterik egiten ez dionik. Aipamen apartekoa merezi du, duen dokumentu-balioarengatik, Euskadi Irratiaren «Patxi Mujikaren perlak» saioak.

Gainerakoan, halere, gaur egun ere hasieran bezala edota antzera jokutzen da, salbuespenak salbuespen, eta hortxe dago arriskua. Garai batean nahikoa ezezik guztiz onuragarri eta beharrezko zena gaur egun nahikoa ote da? Ezezkoan gaude. Irratiak, bertsoak eskaintzeaz gainera, beste hainbat ahalbide eskaintzen du, kritikarako, eztabaidetarako, etab. Eskaintako bertso-aukera ere, garai batean baino zehatzago behar luke.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu gauza bat dela irratia dituen ahalbideak eta beste bat, oso baino beste bat, irratietan ari direnen ahalbideak. Guk dakigula, gehienetan pertsona bakarreko taldeak dira bertso-kontuez arduratzen direnak, askotan beste hainbat alor ere zaindu behar dutelarik gainera. Eta modu horretan jardunik, nahi izatea ez da nahiko izatea, nahi den hori egin ahal izateko.

IRRATIKO PLAZA

Irratia, bere malgutasunarengatik, bertso-plaza egokia izan liteke. Egiten dena isladatzeaz gainera, eragin egin dezake, irratirako propio kantuan jarri bertsolaria.

Halakorik egin izan denean, txapelketa modua aukeratu izan da gehienetan. Loiola Irratiko txapelketak lekuko, edo Euskadi Irratiko «Pernando Amezketarra» herriartekoa.

Bestelako kariez ere jarri ohi dira bertsolariak kantuan: txirrindularitza dela, edo beste kirol-gertakari edo ospakizun

aipagarriren bat... baina anekdota hutsa baino ez dira horiek izan ohi, tokiz kapoko anekdotak ez gutxitan. Horretan badu bertsolariak berak ere erantzukizunik, zein plaza bai eta zein bertsotarako egoki ez den erabakitzerakoan.

Egiten denaz gain, beste hainbat bide tentatu beharko luke Irratiak:

- Bertsolari pare bat estudioetan, entzulego koskor batekin, telefonoak irekiz, jendeak iritzia eman, gaiak jarri, edo nahi duena esan dezan.
- Txapelketaz kanpoko *zuzeneko emankizunak*, hilean behin edo ahal denean, ondoren saioaren kritika eginez parte hartu duten bertsolariekin, adituekin, etab.
- Bertso-programetan ezezik, bestetan ere baduke bertsolariak tokirik. Debateetan, adibidez, bertsolari bakoitzak alde bana ordezkatzan duelarik, bat-bateko nahiz alde zuzenetik eztabaidagaiari buruz jarritako bertsoekin.

BERTSO JARRIAK

Geroago telebistarako esango denez, iratiak ere egin beharko luke bere ahalegina, bertso-paperei beren *funtzionaltasuna* emateko.

Inoiz edo behin egin izan da horrelakorik, baina gaur egun bertso jarriek ez dute irratian lekurik. Lehen ere ez askorik. Horretan ere Euskadi Irratia izan dugu aitzindari, zenbait data seinalatutan *informatiboak bertsoetan* edo *kopletan* egin izan baitira oso-osorik. Bakoitzari berea ematekotan, Antton Aranbururi zor zaio aitagoa. Nik dakidala, bide hori baztertutxeka dago egun. Eta hori albora uzteko erabakia hartzeko ez da inolako azterketarik egin, nik ez dakidala egin ez bada behintzat.

Bestela jarritako bertso-paperekin, berriz, bertsoak bere hartan, 8-12 ale besterik gabe kantatuak ez dira gaur egungo gustorako oso atsegingarri. Baina bertso horiek kantatu eta musikaren laguntzaz emanik, besterik lirateke.

Probatu beharreko bidea dugu, dudarik gabe.

TEORIA

Bertsogintzaranteknika, bertsolaritzaren historia, eta abar, apenas agertzen diren irratiko jardunetan.

Egin Irratian, Euskadi Irratian, zertxobait egin izan da noiz-bait, baina jarraipen handirik gabe.

Gaur egun, han-hemenka agertzen da zertzeladaren bat edo beste, txapelketen aitzakian gehienetan, baina ez modu ordenatu edo metodikoan. Egin beharko litzatekeen eredutik gertukoena, akaso, Euskadi Irratiko «Eta hitza jolas bihurtu zen» ataltxo dugu, eta agian, ez egun eta ordurik egokienean.

Bertsolaritza, bestalde, ahozko literaturaren atala besterik ez da. Duenik indartsuena, baina atala azken batean. Polita litzateke ahozkotasuna bere osoan landuko lukeen irratsaiore n bat sortzea. Atsotitzak, herri-narratiba, kontakizuna, aho-korapiloak, asmakiloak, elezaharrak... irratirako propio asmatu-riko elementuak dirudite, nahiz eta gure «besteak bezalako» izan nahi konplexuz beteriko horrek edo, itsuturik gauzkan, eskura dugun altxorra baino urrutiko intxaurrak beti estimatuago izateraino.

Lastimagarria, benetan, mundu osoan ahozkotasun berri bat nagusitzen ari den garaian, guk geureari horrela uko egitea. Behingoz puntaren puntan ibiltzeko aukera izan, eta ditxozko *homologazio-konplexu* horrek lotsarazita aukera alferrikaltzen ari gara.

BERTSOLARITZA TELEBISTAN

Euskarazko telebista bakarra dugunez «Bertsolaritza ETBn» ere izan zitekeen hor goiko izenburu hori. ETB sortu eta handik pare bat urtera hasi zen bertsolaritza telebistan agertzen. 1985. urtea zen, eta 1986ko martxoaren 23an amaitu zen txapelketa nagusiko saioen emanaldiekin hasi zen. Gero, Bertsolari Elkartearekin elkarlanean, «Ahotik ahora» saioa izan zen, hilean behin bertso-saio bat antolatu eta hura grabatuta eskaintzeari ekin zion. Geroago etorriko zen Amuriza eta Sebastian Lizasoren arteko desafio hura, zuzenean eskaini zena, eta

1988ko abenduan hasi zen «Hitzetik hortzera» programa, hasieran hilean behin eta 1989ko urriaz gero astero.

Bertsoa telebistan txertatzeko asmotan sortu zen programa, eta ildo horretan jorratu du hainbat bide, beste hainbat albora utzita.

BAT-BATEKO BERTSOGINTZA

Hasierako ahalegin frustratu batzuen ondoren, ohizko bertso-saioretako bertsoak aukeratu eta ematera mugatzen da telebistako jarduna. Zuzeneko transmisioak, txapelketako azken saioretara mugatzen da, bestetara iristea ezinezkoa delako.

Aukeratutako bertsoak eskaintzerakoan, bai gaika, bai jaialdiz jaialdi, modu guztiak probatu dira. Ez dago garbi zein modu den hobea. Denek dute beren alde ona eta denek beren alde txarra.

Irratian baino denbora gutxiago izaki, bertso-aukera estuago izan da beti telebistan, eta horrek, akaso, halako *irudipen* faltsu bat sortu du bertsozalearengan, telebistako *intentsitate* -rik ez baita bertso-saioretan.

Hori dela eta, azken urte honetan, antologi kutsu gehiegizko hori kendu nahi izan zaio programari, jaialdia harturik elementu nagusizat, eta komentariogile aditu baten laguntzaz.

Eskaintzen diren bertso-saiorik gehienak, gajartzailleekikoak dira, eta hor ere bada desoreka handi bat, hori eskainiz hori promozionatzen delako gehienbat. Libreko saiok grabatu grabatzen dira, baina zail izaten da ikusentzuleekiko lotura (testuinguru amankomuna) lortzea. Afari eta abarretako *tempus-a*, gainera, ez da telebistarako egokiena. Teleikusleari ere ulergarri zaion testuingurua sortzea da, oro har, telebistako jardunak duen kokarrik handiena.

TELEPLAZA

Telebista bera bertso-plaza bihurtzeko egin diren saioretan, emaitzak oso kaskarrak izan dira. Telebistaren lan-erritmoa eta bat-batekotasuna guztiz kontrajarriak daudela dirudi, eta arti-

fizialkeria hutsa gertatu dira gehienetan, urtero-urtero egin diren santaeskeko saioak lekuko.

Lizaso eta Amurizaren arteko hura ere ongi zegoen behin egiteko, baina beti gauza bera errepikatzeko arriskua legoke, sarri eginez gero. Inguruko fokoak, beroa, eta elkarren akatsak, besterik zer dute ba bertsolariak teleikusentzuleekin amankomunean?

Nolanahi ere, bitartekoen faltaren errua izan liteke hori, eta baliabideak ugaltu eta hobetu ahala, berriro saiatzeko moduko bidea.

Irudi bidez gaiak jartzen ere izan da saio bat edo beste. Baina irudien erritmoa eta bertsoena parean jartzea ezinezko gertatzen da, eta oso eskarmentu eskasa izan da bide horretan.

Bertso-programaz gainera, interesgarria litzateke bestelako programetan ere (magazin, debate, eta abarretan) bertsolariak sartzen ahalegintzea, esandakoak komentatu, gonbidatuak zirikatu, edota atal batetik besterako pasabideak egiteko. Estrenatu berri den «Berbaguren» programak (1993 otsaila) erronka horri heldu dio, baina dituen baliabideekin zaila gertatzen dela dirudi txertaketa hori natural egitea eta bertsolariaren lanari funtzionaltasun benetakorik ematea. Bat-bateko bertso gintza *komunikazioa* da oroz gainetik, eta platoan entzulerik izan ezean nekez lor daiteke horrelakorik. Hala dirudi behintzat lehen programak ikusita.

BERTSO JARRIAK

Hemen ere hainbat bide saiatu dira:

- Bertso-paper bat hartu, eta dagozkion irudiz estali. Bertso-saila luzea baldin bada, nekeza egiten da. Bat edo bi, gehienara hiru izanez gero, ondorio politak atera izan dira. Gauza bera egin izan da bat-batean kantatutako zenbait bertsoekin ere, baina gaiak behar du horretarakoxea.

- Bertso-paperak hartu eta besterik gabe, musika eta guzti kantatu. 1991-92an egin zen, Xabier Lete kantari zela, bertso zaharrekin. Iritziak denetarikoak izan ziren, baina segitzeko moduko bidea izan liteke. Gaurkotasuna bilatu beharko litzateke, bertso berriak eragin. Gaiak nola aukeratu, nork ber-

tsoak jarri, nork eta nola kantatu... asmatzen bada, halere, nahikoa buruhauste.

Nolanahi ere den, hemen ere «funtzionaltasuna» hartu behar litzateke helburutzat. Bertso-paperentzat, paperaz bestelako «formatoa» bilatu eta topatu behar da. Telebistan, telebistari dagokiona, uneoro eskaintzen diren «bideoklip»en estetika imitatu gabe, baina hori hor dagoela ahaztu gabe. Suelto jarritako bertsoek, berriz, lehen aipatu bezala, bertso-programaz kanpora ere izan dezakete tokirik. Bertsoak ezezik, *koplak*, *esaldi erri-matuak*, *ditxoak*, ezinago aproposak izan litezke, adibidez, publizitate-mundurako. Baina horretarako ere, publizitate hori *euskaraz* pentsatu eta diseinatu beharko litzateke.

IRUDIAK

Bertso-saioretan topa litezke ikuspegi ez-ohizkoak, gertuko planoak, irudi bitxiak. Lehendik *Bertan ikusia* liburuan Maite Gonzalezek jorratutako bidetik, hainbat «bertso klip» landu zituen 1989ko txapelketa nagusian. Ez dirudi oihartzun handirik sortarazi zutenik, ez behintzat hartutako nekearen parekorik.

TEORIA

Bertsoak eskaintzerakoan bidenabar egiten diren azalpen teknikoez gainera, teoriari propio atal bat eskaintzeko asmoa askotan gogoan izan bada ere, ez zaio irtenbide egokirik topatu orain arte. Egitekotan, eskola-kutsu edo sermoi-itxurarik gabeko zerbait behar luke, telebistaren baliabidez emana. Txo-txongiloa eta marrazkiak erabiltzea ere pentsatu izan da, baina ezin izan da ezer tajuzkorik atera.

Galdetzekoa litzateke, ordea, telebistari ote dagokion zuzenean bertso-alfabetatzeren lan hori, ez ote diren beste hedabideak horretarako aproposago. Gaur egun programak dituen emisio-egun eta orduak ere dexente mugatzen du horretan, igande-eguerdia ez baita berriketarako aproposena.

Bertsolari zaharrekin egindako elkarrizketa luzeak ere, ez dirudi oso ikusentzulegoaren gustoko gertatu zirenik, eta albora utzita daude. Honen ordez, bertsolari eta bertsozale zahar

nahiz gazteek kantatutako bertso-pasadizoak grabatu eta minutu pare bateko formatoan eskaintzeko asmoa dago aurki.

Erreportaia gisakoak ere landu izan dira inoiz edo behin. Aipagarriena, «Bertsolarien entrenamentuak» izenekoa. Baina, behin berriro ere, orain baino azpiegitura sendoagoa behar litzateke horretan segi ahal izateko.

Kontuan hartzekoa da astean 45 bat minutuko emanaldia dela, eta emititzen den garaian *dibertimentua* nahi duela, batez ere, ikusentzule bertsozaleak. Dibertimentua, bistan da, bertsoa da bertsozalearentzat.

Datu hori begien bistatik galdu gabe egin beharko dira horrik aurrerako pausoak. Programak bereganatu duen ikusentzulegoa bertso-kontuan alfabetizatzen hasi eta gehienak asper-asper eginda uxatzea ere marka litzateke.

DUDAK ETA MUDAK

Bertsolaritza hedabideetan dago, eta hala behar du iraungo badu. Horrela genion hasieran, eta horrela diogu hedabideetan bertsolaritza nola dagoen nola edo hala azaldu ondoren ere.

Ondorioak hor daude:

- 150.000 teleikusle inguru astero telebistan.
- Inoiz baino bertso-saio gehiago antolatzen da.
- Inoiz baino jendetza handiagoa saio gehienetan.
- Sekula ez bezalako prestigioa eta itzala bertsolaritzak eta bertsolariek. Gaur egungo euskal kulturaren diren izar ia bakarrak.

Hori guztia hor dago eta lorpenzat hartu beharra dago. Jendea, bertsozale arrunta, pozik da. Bertsoa eskatzen du eta *berriketa gutxiago*. Baina bertsozale arduratuen artean, bada kezkarik, bertsolaritzak bizi duen «boom» hau dela eta:

- Hedabideek, telebistak bereziki, *elite bat* promozionatu du, izar gisa kontsagratuz. Elite horren ingurukoak gero eta baztertuago bide daude.

Kezka horren aurrean bada horrek *hala behar duela* dioenik. Elitearen jardunak sortuko duela zaletasunaren zurrun-

biloa, eta hori bideratzeko beste bide batzuk bilatu behar direla. Hala egin izan da, eta egin da, beste alorretan ere.

Datuek diotenez, gainera, saioen ugaltzeak bertsolari asko eta askorentzat aukera ekarri omen du, eta ez omen da egia baztertzeraren hori.

- Bertsozaleen orde, bertso-forofoak sortu omen ditu hedabideen ekinak.

Beste hortzetan esanda, *promozioa* eta *formazioa*, heziketa, eskatzen zaizkio gaur egun sektore arduradun/arduratuetatik telebistari. Horiek dira, izan ere, bertso-munduan sortu den zurrunbiloan eskas diren bi zutabe nagusiak. Aintzat hartzea da, beraz, hedabide itxuraz indartsuenari gaitz horren eta gainerakoen sendabidea eskatzea. Baina telebista baino horretarako dexente egokiago dira beste hedabideetan egiten ez dena. Telebistak soilik eta bete-betean egitea astakeria galanta litzateke.

Horrek ez du esan nahi, telebistak promozio eta formazio-lanik egin behar ez duenik. Egin behar du, eta egiten du, neurri batean behintzat.

Promozioa egiten du, baina betiere nazio-mailako elite batean sartzeko gai dirudienarekin. Azken aspaldi honetako adibidea aipatzearren, hor dago Maialen Lujanbioren kasua. Maila bate-tik beherako bertsolaria telebistan agertzeak ez telebistari, ez bertsolariari berari egingo lioke mesede. Bertso-eskolatik telebistara bada hainbat maila, edo izan behar luke behintzat. Eta ez badago, telebistak ez du bertso-munduaren *eraketarik* eza erremediatuko.

Formazioan, berriz, badihardu telebistak, horretarako egokiago diren beste hedabideetan apenas ezer egiten dela ikusirik, eta betiere gehiegizko berriketak jendea uxatuko duen kezkaekin.

AURRERA BEGIRA

Azaldutako kezka nagusi horiek arrazoizkoak dira, beraz. Eta bertsolaritza hedatu eta gizartean sendotzeko garaia gainditua dugu akaso. Duguna hobetzeko garaia dukegu orain.

Lantegi horretan, halere, ez dago hedabide bakoitzaren izaera ahaztu edo albora uzterik. Lana bada denontzat adina. Banaketa bakoitzaren izaeraren arabera egitea komeni da orain, batek hobeto dezakeena beste bati eskatu gabe.

Amaitzeko, eta orain arte esanikoaren haritik, hemen aipatu ditugun hedabideak *osagarri* iruditzen zaizkigu izatez. Ez litzateke kalterako izango *multimedia* moduko baterako egitaraua proposatu eta aurrera ateratzea.

Hau da, eta adibide baterako:

- Telebistak bertso-saio bat eskaintzen du, osorik edo laburturik. Eskaini ahala, aditu batek komentarioak egiten ditu.
- Telebistaz emaniko saioa irratian eztabaidatzen da, adibideak errepikatuz, etab. Saioan parte hartutako bertsolariak eta entzuleek ere izan dezakete hitza.
- Prentsa idatzian, mintzagai izan diren bertsoetariko batzuen egitura azaltzen da, lerroz lerro, errimak bereiziz, paradigmak eskainiz, etab. Era berean, denborapasa moduko ariketak planteatzen dira: bizpahiru oin falta duen bertsoa, azken puntua falta duena, bukaera aldaturik duena...
- Prentsa idatzian planteaturiko ariketaren *soluzioa* irratiz eta telebistaz ematen da hurrengoan...

Horrela ez bada horrelatsu izan liteke gerorako proposamena. Era horretan, entzule gehiengana heltzen den hedabideak denontzat jakin beharrekoa den «heziketa orokorra» eskainiko luke soilik, gehiengoak ez baitu bertso-aditu edo epaimahaiko zer izanik.

Hortik aurrerako sakontasuna nahi duenak, berriz, baduke bere nahia non aserik.

Esandakoa egin ezinik ez dago teknikoki behintzat. Auke-ran, logikoena, euskara hutsez diharduten hedabideak behar lukete izan, eta akaso hor sor litezke, gaur gaurkoz, oztopoak.

Lehendik zer aztertu eta eztabaidatu aski ez genuelarik, horra hor txosten honen ondorioz azterketarako eta eztabaidarako beste gai bat.

BAT-BATEKO BERTSOGINTZAREN DIDAKTIKAZ

PELLO ESNAL

Galdera nagusi bat du honako lan honek abiapuntu: *nola irakatsi bertsotan bat-batean egiten?* Alegia, nola irakatsi bertsotan egiten, bat-bateko bertsoak sortzen? Beraz, bat-bateko bertsogintzaz jardungo dugu; bat-bateko bertsogintzaren irakaskuntzaz, zehatzago.

Baina galdera nagusi hori egin bezain laster datorkigu gogora beste galdera zirikatzaile hura: irakats al daiteke bertsotan egiten?

Galdera zirikatzaile honen aurrean, mota guztietako jarre-rak ikusi ditugu: batzuentzat alferrikako galdera da, eta denborapasa hutsa horri erantzutea; beste batzuentzat, berriz, galdera teorikoegia. Gure ustez, aldiz, lagungarria da, ondo

erantzunez gero; batez ere, galdera nagusiari erantzuten lagun diezagukeen neurrian: *nola irakatsi bertsotan bat-batean egiten?*

Horregatik, bigarren galdera horri erantzungo diogu lan honen atarian. Gero pasako gara lehenengo nagusiari erantzutera. Bukatu, berriz, zenbait ondorio atereaz bukatuko dugu. Beraz, hiru zati ditu lan honek, hiru galderaren ardatzean: 1) irakats al daiteke bertsotan egiten?, 2) nola irakatsi bertsotan bat-batean egiten?, 3) atera al daiteke ondorio praktikorik?

Galdera horiei erantzuteko, argibide bat baino gehiago erabili beharko dugu.

- Hasteko, geure buruarekin izandako eskarmentua, nola entzule gisa edo lagunarteko bat-bateko bertsogintzan, hala bertso-eskoletan ikasleekin bost urtetan izandakoan ere; izandako eskarmentua eta nere eta laguneren bertsogintzaz egindako zenbait gogoeta.
- Gainera, eta ezinbestez, gure artean bertsogintzaz eta bertsolaritzaz jardun duten eta dihardutenen jarduna eta ekarria.
- Era berean, argibide izango zaizkigu didaktikan oro har eta hizkuntz irakaskuntzaren didaktikan (Glotodidaktikan) bereziki egindako zenbait gogoeta eta argitutako zenbait kontzeptu.

Besterik gabe, has gaitezen.

IRAKATS AL DAITEKE BERTSOTAN EGITEN?

Funtsik gabeko galdera dirudi, baina ez dugu uste halakoa denik, berehala ikusiko dugunez. Izan ere, batetik, beste zenbait galderaren bilduma dugu eta, bestetik, zenbait erantzunen bideragarri.

Hasteko, bada gure artean hori baino galdera zaharragorik eta zenbait hizpide jarri duenik. Besteak beste, honako hau: «bertsolaria jaio ala egin egiten da?»; edo bestela eginda, «berezkoa ala ikasia da» bertsotarako gaitasuna?

BEREZKOA ALA IKASIA?

Galdera honek erantzun bat baino gehiago jaso ditu: batzuk xebreak, beste batzuk ez hainbeste. Hemen horietako hiritara mugatuko gara: lehenengoa Joxe Agirre bertsolariak emana da, bigarrena Antton Aranburu eta Joxe Mari Iriondorena eta hirugarrena, berriz, Xabier Amurizarena.

Joxe Agirreren erantzuna Joxe Mari Iriondok eta Antton Aranburuk (1980) jasoa dugu. Hona hemen beren hitzetan:

«Joxe Agirre ‘Orandak’, behin batez “estraineko jaio behintzat” erantzun zidan *jaio ala egin* egiten zen galdegin niolarik.» (45 or.)

Antton Aranburu eta Joxe Mari Iriondoren erantzuna, berriz, Joxe Agirrerenaren ondoren dator, idazlan berean (1980):

«“Estraineko jaio” egiten dela bistakoa bada ere, gero *egin* egiten da bertsolaria. Eta euskaldunon ahozko literaturaren tradizioa laguntzaile delarik, ofizioa gero ikasi egiten dela esango nuke, neurri haundi batetan behintzat.

“Amezketan zilegi da bertsotan aritzea; horregatik, bertsolari on asko dago han” zioen behin batez Iztuetak. Eta egia da, Amezketako giroak, Errenteriakoak, Hernani edo Usurbilgoak, Asteasu eta Muxikakoak, bertsoari asko *egin* duela. Odoletik baino gehiago *girotik* bait dator bertsolaria, zati haundi batetan. Eta Xalbador zena, Lasarte, Lizaso edo Enbeitatarren semeek ere, giroz dakarte herentzia hori, nere ustez.

Nukleo jakinetan hainbat bertsolari izanaren arrazoia hor dago.» (45 or.; azpimarrak egileenak dira.)

Xabier Amurizak ere erantzun dio galdera horri. Luzea bada ere, ekar dezagun hona. Honela erantzuten dio bertsolaritza «berezkoa ala ikastekoa» den galderari (1985):

«Alderdi teknikoa pixka bat azaldu ondoren, ia topikoa dugun galdera horri erantzuteko moduan gaude, ea bertsolaritza berezkoa ala ikastekoa den alegia. “Horretarako jaio egin behar da”. “Berezkorik ez bada, alperrik ari zarete”. Uste honek aspaldi gaiditurik egon behar luke, baina oraindik ere hor dabil normahiren ahoan. Berezkoa behar dela edo jaio egin behar dela esatea ezer ez esatea bezala da. Horrek ez du ezer esplikatzeko ez ezertarako argitasunik ematen. Bertsolaritzan ez ezik, beste edozein kirol, arte nahiz lanbidetan ere, “berezkorik ez bada, alperrik ari zarete”. Baina gakoa berezko hori non

dagoen aurkitzea da, norik eta zenbat daukan jakitea. Berezkoa lehengaita bezala da: lehenbizi topatu egin behar da eta gero landu.

Horretarako modu bakarra aprobatzea da eta aprobatzeko aukera izan behar da. Aukera hori zoritxarrez gizarteko antolakuntzaren mende dago gehien bat. Gehienok irakatsi zai-guna ikasi dugu eta ikusi dugunari edo aukeran jarri digutena gustoa hartu diogu, hartu baldin badiogu. Haurrek herrian pilotaleku egokirik badute, pilotari ekingo diote eta aukerarik jartzen ez bazaie, haien berezkotasun guztiak hantxe joango dira hilobira, munduratu ziren moduan.

Gizakiak daukan berezkorik ederrena ikasmena da. Ez al da ikasteko ahalmen horixe animalietatik berezten gaituen dohai-rik haundiena? Zorionez berezkoaren lehengaita oso zabal eta diskriminazio haundirik gabe zabaltzen du naturak gizakien artean. Gero datoz hor istiluak, lehen horretaz ohartzeko eta lantzeko aukeretan alegia. Ikastea esatean, ez ikastetxeak bakarrik izan buruan. Ikasmena jaiotzetik hil arte doan ahalmena da, bai etxean, bai ikastetxean, bai kalean, bai ametsetan, bai bakarrean, bai elkarrekin, bai oharturik, bai oharkabean. Nolanahi hitz batez, baina inola ere ez funtzionamendurik gabe. Beste kontu bat da sail askotan funtzionamendu horren mekanismorik ez ezagutzea, baina hori geure ezjakintzaren kontua da, ez berezkoaren misterioa. Zorionez bertsolaritzaren mekanismoak, teknika mailan batez ere, misteriotik atereak ditugu eta nahi duenak aprobak egiteko modua badu gaur. Ez dago esan beharrik aprobak egiteko ere bere garaiak direla eta txikitatik hasten denak, besteak beste, abantaila haundiak dituela, bai bertsolaritzan eta bai beste edozertan ere.» (472 or.)

Horra hor hiru erantzunak, zein baino zein: umoretsua lehenengoa, osoagoa bigarrena, erabatekoa hirugarrena. Eta hirurak jakingarriak. Sakon ditzagun zertxobait.

Bai; bat gatoz Amurizarekin: «Uste honek —‘horretarako jaio egin behar da’; ‘berezkorik ez bada, alperrik ari zarete’—aspaldi gainditurik egon behar luke, baina oraindik ere hor dabil nornahiren ahoan». Eta hor dabil, gure ustez, askatu gabeko korapiloren bat egon daitekeelako tartean, nahiz eta Amurizak berak askatua izan, egoki askatua ere, bi muturretatik tira eginez. Segi dezagun guk ere bi muturretatik tiraka.

HEZKUNTZA INFORMALA ETA HEZKUNTZA FORMALA

Hasieran ez zen eskolarik eta dena zen eskola: eskola zen familia, eskola zen lagunartea, eskola zen ingurua, eskola zen ametsa... Hasieran ez zen eskolarik, baina haurra gizon edo emakume egiten zen, hezi egiten zen, oro eskola zen hartan.

Gero etorri zen eskola, orain «eskola»z ezagun dugun hori. Eta pixkana-pixkana, gauza berriak ikasten hasi ziren haurrak eta ez hain haurrak, familian eta gizartean berez eta ia oharkabean ikasten zituzten haietaz gain. Eta gerora, eta apurka-a-apurka, gizartea eskolaren gain utziz joan da, batzuetan oharkabean eta besteetan jakinaren gainean, lehen, oro har, gizartearena zen eginbeharra.

Eta, hala, bi hezkuntz eta bi eskola-mota ditugu gaur egunean: batetik, eskola formala eta hezkuntza formala —denok eskolaz eta bertan ematen den hezkuntzaz ulertzen duguna— eta, bestetik, eskola informala eta hezkuntza informala —fami-
liak, lagunarteak, ingurugiroak eta abarrek osatzen dutena—. Gogora ditzagun Amurizaren hitzak:

«Ikastea esatean ez ikastetxeak bakarrik izan buruan. Ikasmena jaiotzetik hil arte doan ahalmena da, bai etxean, bai ikastetxean, bai kalean, bai ametsetan, bai bakarrean, bai elkarrekin, bai oharturik, bai oharkabean.»

Eta bertsolaritzarentzat ere balio du, jakina, balio beharko du, oro har eta «edozein kirol, arte nahiz lanbide» edo gaitzat balio duen horrek.

Zer gertatzen da? Ia-ia gaur arte hezkuntza informaleko eta eskola informaleko gaia izan dela bertsolaritza: familian, kalean, lagunartean, tabernan, ingurugiroan... ikasi duela euskaldunak bertsotan («odoletik baino gehiago *girotik* bait dator bertsolaria, zati haundi batetan», diote Antton Aranburuk eta Joxe Mari Iriondok, aipatu berri dugun lanean).

Baina horrek ez du esan nahi bertsolaritzak itxita behar dituenik aurrerantzean hezkuntza eta eskola formaleko atea. Ikasi ezezik, irakatsi ere irakats baitaiteke bat-bateko bertsogintzan. Izan ere, garbi dago inor ez dela ikasia jaiotzen. Garbi dago, beraz, bertsolari denek ikasi egin dutela. Garbi dago, era berean, ia-ia denak eskola informaleko umeak direla.

Garbi dago, bestalde, ikasiz egiten ari direla eta egingo direla biharko bertsolariak ere. Baina agian bada hain argi ez dagoenik ere. Bi galdera eginez azalduko ditut neure zalantzak, beharbada beste norbaitenak ere izan daitezkeenak: 1) zein neurritan dira azken labekadako bertsolariak eskola formaleko ume, eta zein neurritan eskola informalekoak?, eta 2) zein neurritan izango dira biharko bertsolariak eskola bateko edo besteko?

Eta ez dut uste alferrikako galderak direnik, geroxeago ikusiko dugunez. Baina segi dezagun korapiloa askatzen, orain bigarren muturretik tiraka.

NORBEREGANATU ETA IKASI

Hizkuntz irakaskuntzari buruzko teorizazioan bada oinarritzko bereizketarik, bat-bateko bertsogintzaren didaktika ere argi dezakeena: norbereganatze eta ikastearen arteko bereizkuntza. Hona hemen, Jose Ignacio Hualderen hitzetan (1986, 140-141 or.):

«Hizkuntza norbereganatzeko prozesua azpikontzientea da, haurrek beren hizkuntza azalpenik eta ariketarik gabe bereganatzen dute. Hau da hizkuntza batean trebetasuna lortzeko berezko bidea. Ikastea, alderantziz, zentzu tekniko honetan, hizkuntza bati buruz jakintza kontzientea lortzea da. Ikasi dituzun araei buruz hitzegin dezakezu, zeureganatu dituzunei buruz ez. Ikastea esplizitua da; bereganatzea implizitua. Ohizko irakasteknikak, hala nola akatsen zuzenketa, arauen azalpena, etab., ikaste implizitoari zuzenduta daude. Irakasketa honek hizkuntza lortzeko ez du baliorik.

Puntu hau frogatzeko badago ebidentzia; batez ere haurren-gandik. Gurasoek ez dituzte zuzentzen haurren gramatikazko akatsak eta zuzentzen dituztenean haurrek ez dute egiten kasu handirik. Hala ere, haur guztiak uzten diote akatsak egiteari une batean.


Hipotesi honek esaten du helduek bi bide dituztela hizkuntzaz jabetzeko, alegia, bereganatze implizitua, haurrena bezalakoa, eta ikaste esplizitua, eskolan normalki erabiltzen dena. Helduengan ere lorpen implizitua beste bideak baino garrantzi askoz handiagoa du hizkuntz trebetasuna eskuratzeko.»

Nahiz eta hitz batzuk ilun eta nahasle gertatu, argi geratu da, noski, bi modutara eskuratzen dela hizkuntza bat: oharkabeen (gutako askok ume-umetan euskara eta geroxeago erdara eskuratu genituen bezala) eta jakinaren gainean (eskolan frantsesa edo ingelesa eskuratu-edo genituen bezala). Goroxeago aipatutako pasartean, Amurizak berak ere gauza bera dio: ikasmena jaiotzetik hil arteko ahalmena dela, eta bai etxean, bai ikastetxean... ikas daitekeela, «bai oharturik, bai oharkabeen».

Edukia garbi geratu denez, saia gaitezen hitzak ere argitzen. «Ikasi» hitzean egon daiteke gakoa. Normalean bietarako erabiltzen baita: oharkabeko ikastea eta jakinaren gainekoa adierazteko. Beraz, zein hitz erabili oharkabeko ikastea adierazteko; eta zein hitz, jakinaren gainekoa adierazteko?

Hasteko, ingelesera jo beharrean gaude; Estatu Batuetatik etorri baitzaigu bereizkuntza, Stephen Krashen-en eskutik hain zuzen. Krashen-ek «acquisition» erabiltzen du oharkabeko ikastea izendatzeko eta «learning» jakinaren gainekoa izendatzeko. Gaztelerara itzultzeko ez dute oztopo handirik izan: «adquisición» erabili dute lehenengoaren ordainetan eta «aprendizaje» bigarrenarenean. Eta euskaraz? Ez dugu eragozpenik izan bigarrenarekin: ikasketa (eta dagokion aditza: ikasi). Zailxeagoa gertatu zaigu, ordea, lehenengoaren ordaina aurkitzea; «norbereganatze», «bereganatze» eta «lorpen» hitzak erabili dira gehienik, baina badirudi «norbereganatzea» dela egokiena.

Beraz, era berean, bi modutan egin daiteke norbait bat-bateko bertsolari, bi eratan eskura dezake gaitasun hori: *berez*, gaitasun hori norbereganatuz, eta *ikasiz*. Horiek horrela, lan honetan behintzat, esanahi horrekin erabiliko dugu «ikasi» hitza: jakinaren gaineko ikasketa adierazteko; oharkabeko edo berezko eskuratzea edo lorpena adierazteko, berriz, «norbereganatu» hitzaz baliatuko gara; «eskuratu» hitzak, azkenik, bai «ikasi» eta bai «norbereganatu» hartzen ditu bere baitan. Grafikoz adierazita,



Horrela jokatu, bestalde, ez dugu uste «ikasi» hitzaren esanahia gehiegi behartzen dugunik; berezkoaren aurkako bezala ere erabiltzen baita, lehenxeagoko «berezkoa ala ikasia?» galderak adierazten duenez.

BERAZ...

Beraz, bi bereizkuntza egiteko bidea zabaldu digu goragoko galdera horrek, bertsolaritza «berezkoa ala ikasia» den argitzeko eskatu digunean. Alferrrikako galdera itxuraz, baina argibide-iturri gertatu zaiguna.

Izan ere, bertsoak bat-batean kantatzeko gaitasuna berezkoa ala ikasia den galdetzean, honako bi galdera hauek egiten ari gara, oharkabean ala jakinaren gainean: 1) hezkuntza informalez edo formalaz egiten da norbait bertsolari?, 2) bereganatu ala ikasi egiten da bertsotan bat-batean egiten?

Bi galdera hauei erabateko erantzuna eman aurretik, gogora dezagun nola egin diren gure bertsolariak eta nola egiten ari diren.

- Ia-ia gaur arte hezkuntza informalean egin da bertsolarigaia bertsolari: familian, kalean, lagunartean, sagardotegietan, ingurugiroan... «Odoletik baino gehiago *girotik* bait dator bertsolaria, zati haundi batetan», esan digute Antton Aranburuk eta Joxe Mari Iriondok.
- Era berean, bertsolarigaia oharkabean egin da neurri handi batean bertsolari, ia-ia konturatu gabe, euskararen jabe egin zen bezala, berez, gehiegi ikasi gabe. Eta kasu batzuetan, gero etorri da gaitasun horren jakinaren gaineko ezagutza; gaur egun gehiagotan lehen baino; eskolatuon euskarari buruzko jakinaren gaineko ezagutza geroago etorri den bezala.
- Beraz, bertsotan bat-batean egiteko gaitasuna, batetik, hezkuntza informalearen emaitza izan da ia-ia gaur egun arte eta halaxe da batipat gaur egun ere eta, bestetik, norbereganatu egin dute ia bertsolari guztiak gaitasun hori, nahiz eta gero batek baino gehiagok ikasi ere egin duen. Baina apenas izan den ikasiz bertsolari egin denik. (Esan gabe doa: arestian emandako esanahi teknikoaz ari gara hemen «ikasi» hitza erabiltzen.)

Horiek dira gertaerak zirriborroz adieraziak, xehetasune-tan sartu gabe. Merezi dute, ordea, xeheagotzea eta ñabarduraz hornitzea. Hona hemen bizpahiru puntu gehiago:

- Beraz, nola ulertu «halako *berez* da bertsolari» edo «halakok *berezkoa* du bertsolari izatea» bezalako esaldiak? Gure ustez, honako hau esan nahi da funtsean: hezkuntza informalean egin dela bertsolari. Hau da, bi gauza esaten ari gara batean: 1) eskolatik kanpo egin dela bertsolari eta 2) ikasi gabe eskuratu duela gaitasun hori (beti ere, «ikasi» hitza arestian aipatu bezala ulertuta).
- Eta halaxe egin dira bertsolari gaur egun arte gehienak: bertso-eskolara joan gabe eta bere gisa. Baina, halere, komeni da bi alderdiak bereiztea; gaur arte batera eman badira ere, gerta baitaiteke aurrerantzean ez hala izatea eta asko argi baitezake bat-bateko bertsogintzaren didaktika. Izan ere, batetik, eskolaz kanpo ere ikas daiteke; eta, bestetik, eskolan eskuratua, ikasia ez baina, norberaganatua izan daiteke.
- Guzti hori baliagarri zaigu bat-bateko bertsogintzaren didaktika argitzeko. Lehen hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren didaktikek lagun diezagukete horretan. Izan ere, orain arte lehen hizkuntzaren moduan eskuratu dute bertsolariak bat-bateko bertsogintzarako gaitasuna; eta bigarren hizkuntzaren didaktikaz ari gara neurri batean, «bertso-eskola» eta «bertsotan ikasi» bezalako kontzeptuak erabiltzen ditugunean.

Eta besterik gabe, goazen bat-bateko bertsogintzaren didaktikaz jardutera, printzipio batzuk edo aipatuz.

NOLA IRAKATSI BERTSOTAN BAT-BATEAN EGITEN?

Labur erantzuten baino errazagoa izaten da labur galde-tzen. Dena den, oso hitz gutxitan erantzun diezaiokegu lan honetako galdera nagusiari. Nola irakats daitekeen bertsotan bat-batean egiten? Oso erraz: *hizketan irakasten den bezala*.

Baina erantzun labur guztiak bezala, motz gera daiteke erantzun hori ere, eta argibide eske irakurlea.

Lau sailetan bil daitezke irakurleak, gure erantzun horri egindako harreraren arabera.

- Batzuei erantzun hutsala irudituko zaie: «Hori esan edo ezer ez esan, berdin».
- Beste batzuek zorrotz epaituko dute erantzuna: «Ez da nahikoa hori esatea; hizkuntza ikastea baino gehiago da bertsotan ikastea».
- Izango da tartean irakurle ezkorrik ere: «Ederra aterramendua! Hainbeste eta hainbeste ordu sartu dizkiak frantsesa eta/edo ingelesa ikasten; baina ez alferrik. Beraz, ni bezalakoak badira besteak ere, hemen ez dik inork bertsotan ikasiko».
- Baina eskerrak ez den irakurleetan baikorrik faltako: «Hau egina zegok, motel! Hemen denok ikasten diagu hizketan eta. Umetan gainera! Hori baino errazagorik!»

Horiek horrela, nork du arrazoi lau irakurle-mota horietan? Lehenengoak ez beste hiruek. Izan ere,

- asko esatea da esan duguna: hizketan bezala irakasten dela bertsotan egiten;
- hizkuntza ikastea baino gehiago da bertsotan egiten ikastea;
- bigarren hizkuntzan edo hizkuntza arrotzean egiten ikastea bezain zaila da bertsotan ikastea;
- ama-hizkuntzan egiten ikastea bezain erraza da bertsotan ikastea.

Azter ditzagun banan-banan azkeneko hiru puntuok. Hartara, bide batez, garbi geratuko da zenbat esatea den erantzun dugun moduan erantzutea: hizketan bezala irakasten dela bertsotan egitea, alegia.

BERTSOTAN EGITEN IKASTEA, HIZKUNTZA IKASTE BAINO GEHIAGO?

Horra hor galdera. Hona hemen, berriz, bat-bateko erantzuna: bai; hizkuntza ikastea baino gehiago da bertsotan egi-

ten ikastea. Baina modu askotara uler daiteke erantzun hau. Beraz, xehe dezagun apur bat. Xehetuta gero, bat-bateko baiezkoa bere lekuan uzteko moduan izango gara: batetik, beroarenik gabe eta, bestetik, esanahi betearen jabe.

Bertsolari-hizkuntza, hizkuntza berezia

Hizkuntza berezia da bertsolari-hizkuntza. Berezia da, azalean eta mamian.

Has gaitezen azaletik. Bertsolari-hizkuntza neurtua eta erri-matua da berez eta izatez: silaba-kopuru jakinez osatutako lerroek osatzen dute bertsoa; silaba-kopuru jakinekoek eta errimadunek. Ez dago bertsoarik, neurririk eta errimarik gabe. Hori edonork daki.

Bertsogintzari azala urratu dion edonork daki, era berean, baldintzatua dela bertsolari-hizkuntza, neurtua eta erri-matua izateak baldintzatua. Ohizko hizketa normalean askatasun gehiagoz jokatzeko dugu. Bertsogintzan, ordea, lotuagoak gaude, neurriaren eta errimaren mende. Hain zuzen, horrexegatik da bertsolari-hizkuntza, besteak beste, ohizko hizkerak ez dituen ezaugarrien jabe.

Bertsolari-hizketa, ohizko hizketa ez bezalakoa

Ohizko hizketa ez bezalakoa da bertsolari-hizketa: hizketa kantatua eta antzeztua.

Bertsolaria, jendaurreko bertsolaria, ez da bertsogintzara mugatzen. Bertsoa sortu ezezik, kantatu ere egiten baitu, eta antzeztu eta dramatizatu. Hizkuntza kantatua eta antzeztua da bertsogintza. Jendaurreko bertsolari izateko ez da nahikoa bertsoak egiten jakitea; beste gaitasunik ere behar da: kantatzen jakitea, plaza-gizon izatea, jendearekin harremana sortzen jakitea... Lehen eztarri onekoa izan behar zen gainera. Gaur norbaitengatik «eztarri ona du» esatean, askotan gehiago esan nahi da; besteak beste, goian aipatu berriak: badakiela kantatzen eta plaza-gizona dela eta erraz bereganatzen duela jendea...

Beraz, bertsogile hutsa baino gehiago da bat-bateko bertsolaria. Eta hori ere kontuan izan beharko du bertsogintzaren

didaktikak. Zenbat bertsogile on geratu ote da plazatik kanpo, bertsogileaz gain kantari eta antzezle eta komunikatzaile ere ez izateagatik?

Bai, baina...

Beraz, hizkuntza ikastea baino gehiago da bertsotan ikastea; berezia delako bertsolari-hizkuntza (neurtua eta errimatua) eta ohizko hizketa ez bezalako delako bertsolari-hizketa (hizketa kantatua eta antzeztua).

Horiek horrela, xehetuta dago goian emandako erantzuna: hizkuntza ikastea baino gehiago dela bertsotan egiten ikastea. Pasa gaitezen orain agindua betetzera: erantzuna bere lekuan jartzera, beroarenik gabe eta esanahi betearen jabe.

Has gaitezen erantzunari bero a ren kentzen. Hizkuntza da funtsean bertsolari-hizkuntza; hizketa da funtsean bertsolari-hizketa. Ezin ahaz dezakegu: hizketa da funtsean bertsogintza, hizkuntzaren erabilera. Hizketan jardutea da bertsotan aritzea. Hitzez eta esaldiz eta esapidez osatzen da bertsoa. Hizlaria dugu azken batez bertsolaria.

Horrexegatik, hizkuntzaren didaktikaz hitz egin behar da funtsean, bertsogintzaren didaktikaz mintzatzean: bertsolari-hizkuntzaren didaktikaz eta bertsolari-hizketaren didaktikaz. Jakina, «bertsolari-» horrek eransten dionaren didaktika ahaztu gabe: hizkuntza neurtu eta errimatuaren didaktika eta hizketa kantatu eta antzeztuaren didaktika. Baina «bertsolari-» horrek ez dio, nere ustez, funts handiegirik gehitzen hizkuntzari. Beraz, beroarena kenduta, hizkuntza ikastea da funtsean bertsotan egiten ikastea.

Eta, behin beroarena kenduta gero, egin dezagun erantzuna esanahi betearen jabe, batetik kendua bestetik emanez.

Esan dugunez, bi alderdi zaindu behar ditu gutxienez bertsogintzar didaktikak, hizkuntzaren didaktikak bezala: hizkuntzaren eta hizketarena. Eta bigarren honena azpimarratu nahi dugu; ez baita nahikoa bertsoak egiten jakitea. Ez baita berdin bertsogile izatea eta bertsolari izatea. Bertsogilea baino gehiago baita bertsolaria: bertsogilea ez ezik, plaza-gizona, antzoki-gizona, kantaria, antzezlaria. Bertsoak egitea baino

gehiago baita bertsoan egitea: bertsoak egiteaz gain, bertsoak kantatzea eta antzetzea; bertsoan hitz egitea bakarka eta lagunekin; hitz batean, bertsoan komunikatzea.

Izan ere, bi sail egin ditzakegu bertsolariekin: komunikatzaile onen saila eta bestelakoen saila. Eta komunikatzaile izateko, bi baldintza bete behar ditu bertsolariak: bertsoak egiten jakitea (bertsolari-hizkuntza jakitea) eta bertsoan jakitea (bertsolari-hizketan jakitea).

Beraz, bi alderdiak zaindu behar ditu bertsozaintzaren didaktikak, lehenengora mugatu gabe.

Eta horretan zertxobait geratu banaiz, susmo bat dudalako geratu naiz: ez ote dugun bertsozaintzaren didaktika bertsolari-hizkuntzara gehiegi makurtu, bertsolari-hizketarena pixka bat baztertuz. Horrexegatik, uste baino gehiago esaten ari gara goian esandakoarekin: beroarena kenduta, hizkuntza ikastea da funtsean bertsoan egiten ikastea.

Horra hor, beraz, goiko galderari emandako erantzuna, beroarenik gabe eta esanahi betearen jabe. Orain hizkuntzaren didaktikari buruz jardutea besterik ez zaigu falta; betiere, hizkuntzaz ari garela, hizketaz ere ari garela kontuan izanik.

BERTSOTAN IKASTEA: BIGARREN HIZKUNTZA IKASTEA BEZAIN ZAILA ALA LEHEN HIZKUNTZA IKASTEA BEZAIN ERRAZA?

Gogora dezagun zer erantzun diogun lan honetako galdera nagusiari: *hizketan irakasten den bezala* irakasten dela bertsoan bat-batean egiten. Gogora dezagun, era berean, nola hartu duen irakurle ezkorrak erantzun hori: «Ederra aterramendua! Hainbeste eta hainbeste ordu sartu dizkiak frantsesa eta/edo ingelesa ikasten; baina ez alferrik. Beraz, ni bezalakoak badira besteak ere, hemen ez dik inork bertsoan ikasiko». Eskerrak bestelakoa izan den irakurle baikorrak erantzunari egindako harrera: «Hau egina zegok, motel! Hemen denok ikasten diagu hizketan eta. Umetan gainera! Hori baino errazagorik!».

Irakurle ezkorrak eta baikorrak, biek, arrazoi dutela ere aurreratu dugu. Eta norbaitek esan diezaguke ezin dezaketela biek arrazoi izan. Eta honi ere arrazoi eman behar. Hau

katramila! Nola daiteke guzti hori? Nola daiteke, batetik, denek arrazoi izatea eta, bestetik, denek elkarrekin ez bat etortzea? Oso erraz. Hizkuntzak horrelako gauzak dituelako: hitz berdinez gauza ezberdinak esan daitezkeelako, eta hitz ezberdinez gauza berdinak ere bai. Beraz, erabilitako hitzak eta esandako zenbait kontu argitu beharrean gaude. Tranpa gehiegi egin baitugu hitzetan.

- Lehenengo argitasuna. Lehenengo puntuan egin dugu, baina gero ez dugu kontuan izan. Gogora dezagun.

Bi modutan ikas daiteke: oharkabeen (gutako askok u me-umetan euskara eta geroxeago erdara ikasi genituen bezala) eta jakinaren gainean (eskolan frantsesa edo ingelese ikasi genituen bezala). «Norberenganatu» aditza auke-ratu dugu «oharkabeen ikasi» adierazteko eta «ikasi» aditza utzi dugu «jakinaren gainean ikasi» esateko. Aldi berean, «eskuratu» aditzak bi ikasmoduak izendatzeko balio du.

Hori garbi utzi dugu lehen puntuan. Baino geroago ez diogu jaramonik egin. Eta hortik etorri zaigu nahasmena, norberenganatzea eta eskuratzea izendatzeko ere «ikasi» aditza erabili baitugu. Ea hemendik aurrera kontu handia-
goz ibiltzen garen.

- Bigarren argitasuna, berriz, «lehen hizkuntza» eta «bigarren hizkuntza» hitzei dagokie.

Bada zalantzan jarri duenik lehenengo eta bigarren hizkuntzen arteko dikotomia (Mackey, 1984). Eta dikotomia hori zalantzan jartzean, zalantzan jartzen du noski bien didaktiken dikotomia ere. Eta bat gatoz Mackey-rekin.

Izan ere, kontua ez da lehenengo edo bigarren edo hirugarren hizkuntza eskuratzea; *nola* eskuratzen den baizik: oharkabeen norberenganatuz ala jakinaren gainean ikasiz.

Baina gauzak nahastean sortzen da katramila. Garbi dago denok oharkabeen eskuratu dugula lehen hizkuntza, ama-hizkuntza alegia. Hurrengo ez dago garbi: jakinaren gainean ikasiz eskuratu dugula bigarren hizkuntza. Izan ere, euskaldun gehienok oharkabeen eskuratu dugu bigarren hizkuntza ere: dena delako erdara; eta gehienok ume-

tan eta zenbaitek geroago. Bada gure artean urrutiago joan denik ere: hirugarren hizkuntza oharkabea ikasi duen edota ikasten ari denik ere.

Kontua lehen esan duguna baita: *nola* eskuratzen den hizkuntza, eta ez zenbatgarrena den hizkuntza hori.

Gero, noski, jakinaren gaineko bihurtu dugu askok lehen oharkabea eskuratua. Eta besteak beste, lehen eta bigarren hizkuntzan idazteko eta irakurtzeko gaitasunak ere eskuratu ditugu.

- Beraz, bi argitzeak batera ekarriz:
 - Lehenengo hizkuntza eskuratzea bezain erraza izan daiteke bigarren hizkuntza eskuratzea ere, baldin eta oharkabea eskuratzen bada.
 - Lehenengo hizkuntza ikastea bezain zaila zatekeen bigarren hizkuntza ikastea ere, baldin eta lehenengo hizkuntza jakinaren gainean ikasiko balitz. (Ez da hala gertatzen, ordea; lehenengo hizkuntza, ikasi ez baina, norbereganatu egiten baita.)
- Beraz, bertsotan egiteko gaitasuna eskuratzeari aplikatuz:
 - Lehenengo hizkuntza eskuratzea bezain erraza izan daiteke bertsotan egiteko gaitasuna eskuratzea, baldin eta lehen hizkuntza bezala eskuratzen bada: oharkabea, alegia.
 - Bigarren edo hirugarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza ikastea bezain zaila izan daiteke bertsotan egiten ikastea, baldin eta jakinaren gainean ikasten saiatzen bagara.
 - Beraz, kontua ez da bertsotan egiteko gaitasuna eskuratzea, baizik eta *nola* eskuratzen den: oharkabea ala jakinaren gainean.
- Horiek horrela, orain argiago uler ditzakegu, agian, lehenago esanak:
 - ... bertsolarigaia (ia-ia gaur arte) oharkabea egin da neurri handi batean bertsolari, ia-ia konturatu gabe, euskararen jabe egin zen bezala, berez, gehiegi ikasi gabe. Eta kasu batzuetan, gero etorri da gaitasun horren jakinaren gaineko ezagutza; gaur egun gehia-

gotan lehen baino; eskolatuon euskarari buruzko jakinaren gaineko ezagutza geroago etorri den bezala.

- Beraz, bertsotan bat-batean egiteko gaitasuna, batetik, hezkuntza informala emaitza izan da ia-ia gaur egun arte eta halaxe da batipat gaur egun ere eta, bestetik, norberegianatu egin dute ia bertsolari guztiek gaitasun hori, nahiz eta gero batek baino gehiagok ikasi e re egin duen. Baina apenas izan den ikasiz bertsolari egin denik. (Esan gabe doa: arestian emandako esanahiaz ari gara hemen «ikasi» hitza erabiltzen.)

BERTSOTAN EGITEKO GAITASUNA ESKURATZEA/IRAKASTEA

Horiek horrela, uste dugu asko esatea dela bertsotan egiten ikastea hizkuntza ikastea bezala dela esatea. Baina berehala erasoko digu lehen saileko irakurleak:

—Kontua ez huan horrela, bestela baizik.

Eta jarraituko du:

—Honako hau huan galdera: nola irakatsi bertsotan bat-batean egiten? Eta hik emandako erantzuna, berriz, beste honako hau: «Labur erantzuten baino errazagoa izaten da labur galdetzen. Dena den, oso hitz gutxitan erantzun diezaiokegu lan honetako galdera nagusiari. Nola irakats daitekeen bertsotan bat-batean egiten? Oso erraz: *hizketan irakasten den bezala*».

Eta nik, orduan:

—Hori esan edo ezer ez esan, berdin. Eta hik luze erantzun duk, baina ez nik egindako galderari; nola *irakatsi* duk galdera, eta hik nola *ikasten* den erantzun.

Zer esan horretaz? Ba, arrazoi duela. Uste baino zorrotzagoa dela lehen saileko irakurlea. Antz eman diola nere hitz-jokoari: nola *irakasten* den izan galdera, eta nola *ikasten* den erantzun nik.

Eta nola atera korapilo honetatik? Bide bakarra dago gure ustez: bi ikasmodu berezi ditugun bezala (oharkabekoa —norberegianatzea— eta jakinaren gainekoa —ikastea—), bi irakasmodu bereiztea hurrenez hurren (oharkabekoari dagokiona eta jakinaren gainekoari dagokiona). Izenak ere modaltu beharrean gaude: dirudienez, «irakatsi» dagokio «ikasi» aditzari eta

beste aditzen bat «norbereganatzeari»; agian, «erakutsi» litzateke egokiena, «irakatsi» baino zeharbidezkoagoa eta leunagoa eta informalagoa baita esanahiz; «azaldu», «aurkeztu» eta abarre n kidekoa. Eta, horiek horrela, hirugarren aditz bat ere tajutu beharko dugu, «eskuratu» aditzari legokiokeena eta «irakatsi» eta «erakutsi», biak, baitan hartuko dituen.

Hitzak hitz, ezin gera gaitezke teoriaren armiarma-saretan katramilatuta, batez ere errealitatean korapiloa askatu samarra dagoenean. Hor daude hezkuntz arloan, esate baterako, A eredu, B eredu eta D eredu. Gogora ditzagun arlo bakoitzaren zer-nolakoak, orain zedarritutako hiztegiaren arabera:

- A ereduan, ikasleak ez daki euskaraz, eta euskara jakinaren gainean ikasiz saiatzen da bere burua euskalduntzen.
- B ereduan, ikasleak ez daki euskaraz, baina ikasgaiak euskaraz eskuratuz bereganatzen du euskara, batipat oharkabean eskuratu ere, jakinaren gaineko ikasteari ateak itxi gabe.
- D ereduan, ikasleak badaki euskaraz, eta euskaraz egiten da hainbat ezagutzaren jabe. Ikasleak, batetik, oharkabe lantzen du euskara eta, bestetik, ohartuki lantzen.

Halere, ez da konforme izango gure irakurle zorrotz bezain egoskor eta zirikatzailea. Saia gaitezen, beraz, esandakoa gehiago zehazten eta xehetzen, bat-bateko bertsogintzaren ikas/irakaskuntzari aplikatuz.

- A ereduko bertso-eskolan, bertsotan ez dakien bertsolariak jardungo luke, bertsotan jakinaren gainean ikasiz.
- B ereduko bertso-eskolan, bertsotan ez dakien bertsolaria arituko litzateke, baina zeharbidez eta oharkabean ikasiko luke bertsotan egiten, jakinaren gaineko ikaskestari ateak itxi gabe.
- D ereduko bertso-eskolan, bertsotan badakien bertsolarigai arituko litzateke, bertsogintza gehiago landuz, bai oharkabean, bai ohartuki.

Beraz, horra hor bertsotan «irakasteko» hiru irakasmodu. «Zein da hiru ereduetan onena eta eragileena?», galdetuko digu

oraindik ere geure irakurle egoskorrak. «Egoera eta baldintzak eta bertsolarigaiak nolakoak diren ikusi behar aurrez», erantzungo diogu setatsu. «Eta besterik ez?», hark. Eta guk: «ez al da nahiko, ondorio batzuk atera eta bidea urratzeko?».

Beraz, atera ditzagun ondorioak. Eta gero gerokoak.

ZENBAIT ONDORIO

Gu re ustez, funtsezkoena esana dago. Baina laburbil dezagun zenbait puntutan, eta atera zenbait ondorio, gaingiroki bada ere:

Hizkuntza eskuratzen den bezala eskuratzen da bertsotan egiteko gaitasuna

Ikusi dugunez, baieztapen honek egoki zabaltzen dizkio bertsolaritzari didaktikaren ateak. Batetik, atzean geratzen dira zenbait uste ustel eta erabat gaindituta hainbat oztopo; baina, bestetik, agerian azaltzen zaizkigu mugak ere. Hitz batean: zabalik ditu bertsolaritzak didaktikaren ateak eta markatuak nondik-norakoak.

Euskal gizartea izan da gaurdaino bertsolari-eskolarik onena eta ia bakarra. Lehen eskola horretan sortutako hutsunea betetzera dator gaur eskola formala

Horixe da berez lehen momentuan eskola formala: gizartearen lagungarri eta osagarri eta, batzuetan, ordezkari. Gizartearen egitekoa indartzera dator eta, ahal duen eran, indartzera. Horrexegatik, ahalik eta gehien erabiliko ditu, alde eta moldez, lehen eskola (izan) den gizarteak eskainitako baliabideak.

Hiru motatakoak izan daitezke bertso-eskolako jardunak: hezkuntzako A, B eta D ereduaren antzekoak

Labur esanda, jakinaren gaineko bertsogintzan oinarritzen da A ereduko jarduera: lehenik arauak eta teknikak ikasi eta ondoren jardun. Bertsolarigaiak *ikasi* egiten du bertsotan, A ereduko erdaldunek euskara bezala: asignatura moduan, kanpotik, ariketa paradigmaticoak eginez.

Bertsoak entzunez, bertsoak buruz ikasiz, bertsoak eginez eta kantatuz egiten da bertsolari, ia-ia ustegabea egin ere, D ereduko jardueran murgildutako bertsolarigaia. Ikasi ez baina, *norbereganatu* egiten du bertsoarako gaitasuna, D ereduko eskoletako neska-mutilek bezala: bertsoak erabiliz, ari-keta sintagmatikoak eginez.

Bi eredu horien artean geratzen da B ereduko jarduera.

Hiru jardueretara zabalik egongo da bertso-eskola. Eta hirurak erabili beharko ditu, aldiari aldiko egoera eta beharren arabera.

Bertso-zaletasuna piztera eta areagotzera joko du batez ere bertso-eskolak

Bertso-zaletasunean oinarrituko da bertso-eskolaren jarduna. Zaletasun hori du abiapuntu eta zaletasun hori areagotzea helburu. Horretarako, bertsolarigaiek bertsoa gozatu dezaten egingo du lan.

Giro sortzeak du bertso-eskolan lehentasuna

Hezkuntza informala nagusigoa aitortzearen ondorio besterik ez da.

Ahalik eta gehien erabiliko ditu bertso-eskolak bertso-gizartearen baliabideak

Bertso zaharrak buruz ikasi, bertsolari-jaialdietara joan, komunikabideetako lanez baliatu, herriko bertsozaleak eta inguruko bertsolariak eskolaratu... Bertso-eskolak gizartearen baliabide horiek eta gehiago. Ezin gera daiteke erabili gabe.

Bertso-teknikak erabiliz ere irakatsiko da eskolan

Jarduera formalak ere toki garrantzizkoa du bertso-eskolan. Hezkuntza informala lehentasuna aitortzeak ez dakar formala baztertea; hau haren zerbitzuan jartzea baizik; eta biak bertsolariaren zerbitzuan.

Datorren bezala landu behar da bertsoari gaita

Kaltegarri izan daiteke, adibidez, metodo itxi bat ezartzea, bertsoari gaitaren berezkoari atea itxiz.

«Metodoa» hauxe da, hain zuzen: bidea, ezinbesteko bidea, zerbait ikasteko nahitaez ibili beharrekoa. Hitz egokia dugu, esate baterako, piano-irakaskuntzarako; matematika-irakaskuntzarako ere bai. Ez, ordea, hizkuntz irakaskuntzarako; ezta bertso-eskolarako ere.

Metodo guztiak bide gisa erabili behar dira: lagungarri diren neurrian.

Ez da beharrezkoa bertso-eskolako maisua bertsolari izatea

Bestela esanda, bertsolari izan gabe ere izan daiteke bertso-eskolako maisu. Honek, jakina, ezagutu beharko ditu bertso-gintzaren teknikak; jakin beharko du bertso-giroa sortzen, bertsoari gaitiak akuilatzen eta hauen jarduna bideratzen... Baina bertsolari izan gabe ere egin daiteke guzti hori.

Galdezka hasteko irrikan egongo da, noski, puxka batean isilik egon den irakurle egoskorra: «eta guzti hori, nola?». Hurrengo baterako utzi behar geure erantzuna. Orduan erakutsiko diogu zer egiten dugun bertso-eskolan. Baina beste batean izan beharko.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- AMURIZA, Xabier (1985): «Bertsolaritza», *Euskal Herria: historia eta gizartea*, Donostia, Jakin, 469-489 or.
- HARANBURU, Antton eta IRIONDO, Jose Mari (1980): «Bertsolaritza gaur eta bihar», Donostia, *Jakin* 14/15, 38-49 or.
- HUALDE, Jose Ignacio (1986): «Bigarren hizkuntzen norbereganatzearen teoria eta euskal irakaslea», Donostia, *Zutabe* 10, 138-146 or.
- MACKEY, William F. (1984): «Sei galdera L1/L2 dikotomiaren balioari buruz», Donostia, *Zutabe* 5, 125-147 or., Donostia. (Jatorrizko testua frantsesez argitaratu zen «Six questions sur la valeur d'une dichotomie (L1/L2)» izenez, *Rassegna Italiana di Linguistica Applicata* (XV. urtea, 2-3 zk., 23-58 or.)

AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA

ANTTON KAZABON

MIKEL MENDIZABAL

Aspaldiko urtetan, eskolako hezkuntza paperekora mugatu ohi da. Dena da idatzizkoa, dena da liburukoa. Behar bada, horregatik galdu ditu kaleko hizkerak berak ere bat-bateko freskotasan eta bizitasunak. Tamalez, zaila da gaur egun, garai bateko euskara xamurra eta arina edozein lekutan entzutea. Gure eguneroko hizketak galdu egin ditu ziriak, graziak eta piperrak; lehengo herrikoitasun eta ahozko kontrakzioak, elipsiak, ditxoak eta gainontzeko ahozkotasanaren beste zenbait ezaugarri eta lizentzia fonetiko, idatzizko korrekzio gramatikalak ahozkoa jateraino, ia-ia. Herri eta auzoetan ere, gehienbat batua erabiltzen da hizketarako ere, zenbaitetan, idatzirako ezarritako arauak puntaraino erabiliz, bertako euskalkiak eta hizkerak baztertuz eta ahaztuz.

Bertsolaritza izan daiteke, beraz, oraindik ere, ahozko espresio jatorraren erabilpena berreskuratzeko bideetariko bat.

Eta ez bertsolaritza soilik, modu zabalean ulertutako ahoz-kotasuna baizik, non, bertsolaritza, eta batez ere bertsogintza, zati garrantzitsu bat izango litzatekeen.

Eta, ahozkotasanaren gurdira igotzekotan, azkar egin beharko dugu gainera. Bat-bateko bertsogintzan ere nabari baita bertso idatziaren eragina eta presentzia. Bestela, entzun gaur egungo hainbat eta hainbat jaialditan zenbat bertso doazen kasik idatzizko moldeetan kantatuak.

Hala ere, bertsogintzan badu oraindik etorkizunik ahozko-tasanak. Igual, Rap-modaren laguntza ere ongi letorkiguke. Eta bide batez, bertsolaritza ere modan dagoela aipobetxatuz, gure hizkuntzari berriro ere kolorea emateko ordua iritsi da, eskoletan ahozkotasuna landuz, edukia ahaztu gabe, noski, baina batez ere forma eta estetika landuz, itxura bizi eta graziduna indartuz.

Hizkuntza eta gramatika lantzeko eta ikasteko bide bakarra ez da era formala. Deklinabidearen mugagabearen zerrendak eta subjuntibozko aditzen koadroak ez dira derrigorrezkoak. Deklinabidea, aditza eta perpaus txertatu konpletiboak, era ez-formalean edo informalean ere landu eta ikas daitezke, betiko era zintzo, legal eta formalekin tartekatuz, nahi bada.

Gainera, hizkuntzaren, euskararen zati bakarra, alderdi bakarra, ez da gramatika eta bere barruko egitura. Hizkuntza menderatzeko eta erabili ahal izateko, lexikoa, semantika beharrezkoa da. Morfologia eta sintaxia, zer esanik ez. Eta espresiorako, ahozko nahiz idatzizko arauak (fonetika, ortografia...) ere menderatu beharko ditu ikasleak.

Baina, batez ere, hizkuntza baten lanketan, helburua ez da hori soilik. Hori bide erdian gelditzea litzateke. Zertarako landu, ikasi eta menderatu hizkuntza bat, gero ez erabiltzekotan?

Eta hori da helburu nagusia hizkuntza bat landu eta ikas-terakoan, beronen eralpipena. Hizkuntzaren funtzio nagusiak ezagutu eta erabiltzea.

Hizkuntz funtzioen taxonomia edo sailkepenera jotzen badugu, ia denak batean laburbil daitezke: funtzio komuni-

katiboan. Funtzio komunikatibo horren barruko azpifuntzioak ahaztu gabe, noski: norbere defentsarako dela, besteak kritikatzeko dela, norberaren ekintzen azterketa eta kritikarako dela, gertakizun eta esperientzien kontaketarako dela, gertakizun baten esanahi nagusia ateratzeko dela, iritziak eta ekintzak arrazoitzeko dela (arrazonamendu logikoa), irudimenaren munduan murgildurik asmatzeko eta kontatzeko dela...

Horretarako, zergatik ez erabili, ohizko bide formaletatik at, atsotitzak, kantuak, koplak, leiendak, ditxoak eta bertsoak hizkuntzarako baliabide edo tresna gisa, helburu gisa erabili orde? Noski, bide batez, haurrak koplagingintzan eta bertsogintzan ere ikasiko duela, baina ahozko literatura eta kreaioa, hizkuntzaren lanketarako bide gisa planteatuz eta erabiliz, horien bidez, hizkuntzaren arlo guztiak landu baitaitezke:

Gramatika-mailan: – Lexikoa, semantika
 – Morfologia
 – Sintaxia
 – Fonetika, ortografia

Funtzio-mailan: – Arrazonamendu logikoa
 – Kontaketa
 – Irudimena
 – Funtzio komunikatiboa, oro har
 – ...

Bertsolaritzan eta bertsogintzan oinarritzen bagara, hizkuntzaren funtzio komunikatiboa izan liteke bereziki eta gehienbat landu daitekeena, bide batez, ahozkotasanaren ezaugarri propioak ere landu eta erakutsi genitzakeela ahaztu gabe:

– Errima (errimakeria, potoa...).

– Metrika (silabak, diptongo, hiato, hankaluze, hankamotz, sinalefa, etena...).

– Atzekoz aurrerako teknika.

– Ahozkoaren kontrakzio eta arau propioak.

– Irudiak: metafora, elipsia, konparaketa, errepikapena...
 – ...

Gainera, hizkuntza bera erregistro ezberdinetan lantzeko eta ezagutzeko aukera emango genieke ikasleei, funtzio komu-

nikatibo hauek lantzerakoan: kultoa, euskalkiak, batua, hita-
noa (neska-mutil), jergak...

Gure apustua, beraz, euskara lantzeko orduan, beti ahozko elementu batetik abiatzea da. Atsotitzen bidez, ditxoen bidez, koplen bidez, leienden bidez, kantuen bidez, bertsoen bidez... euskara landu. Eta ez soilik arlo batzuk, bere osotasunean baizik: gramatikatik funtzioetaraino.

Bertsoa aitzaki, ahokorapiloa aitzaki, ipuin kontaketa soporte eta bide. Baina, horien aitzakian, hizkuntza bera helburu.

Askotan zaila izango da helburuak eta baliabideak bereiztea ere. Zenbaitetan, bat egingo baitute biek. Baina, beti, ahozko elementu batetik abiatu, eta bera protagonista.

Beste batzuek, horretarako antzerkia erabili izan dute. Txo-
txongiloa ere bai zenbaitek. Irratsaio bat ere oso baliabide ego-
kia izan daiteke egitura gramatikalak nahiz hizkuntz funtzio
ezberdinak lantzeko.

Baina gure hemengo asmoa bestea da. Hori guztia ahozko-
tasunaren bidetik soilik lortzea, alegia.

Adibidez, batzuetan *atsotitz batetik* abiatu gintezke, guk
nahi dugun zerbait lantzeko, hizkuntzaren edozein atal lantzeko.
Bide batez, noski, atsotitzak ere aztertuz eta ikasiz, baina hiz-
kuntzaren zerbitzuan.

• *Balizko olak burnirik ez.*

1. *Balitz, banintz, bagina...* Baldintza eta ondorioa.
2. *Olak, olek, ola...* Nor-nork kasuak (sing. eta plur.)
-a itsatsia...
3. *Burnirik.* Partitiboaren kasua
Erabilera (ezezkoetan, galderazkoetan...)

• *Hagina dabilenean, sabela pozik.*

1. *Dabilenean.* Perpaus txertatu denborazkoak
Txertagailuak: -enean
2. *Pozik.* Moduzko adberbioak.
Beste batean, *ditxo batetik* abiatuko gara.

• *Batixta, sar hadi kaketan txista.*

1. *Sar hadi.* Agintera

- 2. *Txista*. Onomatopeiak
- 3. *Kaketan*. Non kasua. Deklinabidea.
- *Joxe Mari, miri mari, lau hanka ta bost belarri*.
 - 1. *Belarri*. Mugagabea noiz erabili.
 - 2. *Bost*. Zenbatzaile zehaztuak, zehaztugabeak...

Horiek, egitura gramatikalari dagozkionak. Eta antzeko ditxo eta esaera berriak sortuz, hizkuntz funtzioetan sartuko ginateke, hemen bereziki, irudimena eta kontaktarena.

Beste batean, *kantu bat* izan daiteke abiapuntu, tresna edo baliabide. Kantuak, gainera, beste aberastasun bat eskaintzen digularik: musika eta erritmoarena, alegia. Lexikoa eta morfosintaxia ezezik, irakasle globalizatzaileak musika-arlorra eta zenbaitetan, zergatik ez, historiara eta natur arlorra ere bidaiatxoak egin ditzake.

Hemen, kantua diogunean, bertsoez eta koplez ere ari gara, noski, nahiz eta bertsoek eta koplek beste atal bat ere izango duten gure azterketa honetan.

- *Alferraren astea*
 - Astelehena...*
 - ta ez goaz lanera, ta ez goaz lanera...*
 - 1. Ezezko esaldiak. Batez ere, aditz konposatuetan.
 - 2. *Goaz*. Aditz sintetikoak. Orainaldi bukatua.
 - Orainaldi bukatugabea.
 - Ohiturazkoa.
 - ...
- *Aldapeko sagarraren...*
 - Aldapeko sagarraren adarraren puntan...*
 - 1. Izenlagunak (Izlg.) -en, -ko
 - ...

Kantuen atal honetan, bada beste arlo bat ere, hizkuntza baten egiturak gureganatzeko behar-beharrezko zaiguna, eta oso ondo landu daitekeena: memoria. Euskal kantu eta bertso zaharrak buruz ikasiz.

Tarteka, irakasleak *txisteetara* ere jo dezake.

— *Intxaur arbola batean hamar birigarro zeuden...*

1. I.S. eta A.S.
2. Adizlagunak (Adlg.)

Sintaxi-mailako edozein arlo landu eta jorra daiteke ikasleak gelan kontatutako txisteez baliatuz. Eta hemen ere, hizkuntz funtzioei dagokienez, funtzio komunikatiboak garrantzi handia har dezake: *asmakizunak, aho-korapiloak, hitz-joko eta esa-moldeak, leienda eta ipuin-kontaktak...*

BERTSOGINTZA -0-

Bertso bat egitea ere, berdin-berdin, aitzakia polita izan daiteke, bidean, irakasleari komeni zaizkion eredu linguistikoak jorratzeko eta lantzeko.

Adibidez, ondoren datorren bertso hau, gelan osatuko bagenu, irakasleak, hona zenbat elementu landu ditzakeen ikasleekin. Azkenean, noski, bertsogintzan ere trebatuko lirarteke ikasleak, bide batez, baina bertso hori batez ere, hizkuntza eta ahozko literatura lantzeko bidea izango litzateke.

• Gramatika

– Lexikoa: Sinonimoak, antonimoak, homonimoak
Hitz elkartuak, eratorriak

...

– Morfologia: Graduatzaileak
Izenlagunak
Izenak
Adjetiboak
Aditza. Denboraldiak
Deklinabidea. Erlazio-atzizkiak

...

– Sintaxia: Perpaus txertatu kausalak.

...

• Bertsogintzaren teknika

– Etena. Silabak, diptongoak, hiatoak

- Errima. Arauak, p/t/k
- Figurak. Errepikapena
- Betelana. Hitz hornitzaileak

• *Hizkuntz funtzioak*

Hizkuntz funtzioei dagokienez, gehienak lantzen dira bertso hau edo beste bat burutzerakoan:

- Norbere defentsa
- Bestearen kritika
- Arrazonamendu logikoa
- Gertakizunen kontaketa
- Irudimenaren garapena

...

* * *

Donostian, 1989-XII-17

Txapelketa Nagusiko finala

Bertsolariak: Andoni Egaña eta Xabier Euskitze

Gaia: Egañak, bertsoan entrenatzeko entrenatzaile bat behar duela eta, Euskitze aurkeztu zaio.

*Txapelketa bat badator
prestatu nahi nuke bapo
mutil gazte bat hurreratu zait
nahiko txulo, nahiko guapo,
kazadora bat nahiko snow-a
ta galtzetan franja pranko
piura txarra iruditzen zait
esparring on batentzako.*

(A. Egaña)

- Bukaerako arrazoia: Itxura txarra daukak entrenatzaile batentzako.

Sinonimoak: Itxura, figura, planta, pinta... *piura*

Entrenatzaile, botilero, irakasle... *esparring*

- Neurtu: Daukak... *iruditzen zait*
Fin, duin... *on batentzako*
(Silabak, etenak, diptongoak...)

—*piura txarra iruditzen zait
esparring on batentzako*

- Errima: batentzAKO: p/t/k (kontsonante hoskideak)
Adj.: flako, guapo, txato...
Adb.: bapo, txarto, franko...
I.: zahato, zapo, malko, zanko, salto...
A.: faltako, botako...
Izlg.: nongo, norako, noizko, nolako, norentzako,
zertarako, norenganako...
Perpaus txertatu kausalak: *-lako*

Ondorengo lana, beste hiru puntuak osatzea.

- Ideiak: 1. Txapelketarako prestatu nahi dut *bapo*
2. Mutil gazte bat etorri zait nahiko *guapo*
3. Kazadora modernoa eta galtzetan franja *pranko*

- Neurtu: 1. puntua

Etena: Txa-pel-ke-ta-ra / ko
Txapelketa bat / badator eta
(Hitz hornitzaileak: bat, ba, eta...)

- 2. puntua

Mutil gazte bat / etorri zait (Silaba bat falta)
Etorri-ren sinonimoak: azaldu, agertu, heldu,
iritsi, hurbildu, inguratu, *hu-rre-ra-tu...*
Nahiko guapo: beste lau silabak, errepikapen
baten bidez: guapo-ren sinonimoak: gazte, lirain,
lerden, eder, gordin, polit, *txulo...*
—*Nahiko txulo nahiko guapo*

- 3. puntua

Etena: Kazadora mo / deroa eta
Kazadora bat / nahiko berria
aski polita
zeharo elegantea
txit modakoa
guztiz *snowa*
(graduatz.) (adjet.)

BERTSOGINTZA -1-

Berriro ere hizkuntz funtzioen taxonomiara itzuliz, arrazonamendu logikorantz joko genuke, eta eskola-mailan arlo honek dauzkan gabeziak eta txirotasunak nolabait ezabatzen saiatzeko, ideala izan daiteke, «gai bat emanda» honen inguruan arrazoiak garatzeko aukera aparta eskaintzea. Eta logikarekin batera, irudimena ere, zer esanik ez.

Gaur egungo ikasleek, beharbada, ez dute irudimena garai batean bezain landua eta garatua. Faktoreak asko izan daitezke. Batzuk aipatzearren, honoko hauek izan daitezke erabakiorrenak:

- Gaurko jostailuak. Bukatu eta elaboratuegiak. Haurraren irudimenarentzat lekurik ez duten jostailuak.
- Eskolako lan-teknika zuzenegia eta markatuegia.
- Telebista.
- ...

Haurraren jarrera egoera ezberdin gehienetan, pasiboa eta inizatiba eskasekoa da gaur egun.

Askotan irakasleak ere ez daki zein egoeratan jarri ikaslea, irudimen hori martxan jartzeko. Idazlanetarako gaiak, askotan, orokorregiak eta zabalegiak izan ohi dira.

Bertsolariak bertsoarako izan ohi dituzten gaiak oso baliagarriak izan daitezke eskolarako. Ez soilik irudimen eta arrazoietan sakontzeko, baita hizkuntzaren sekretuak aurkitzen joateko ere, nahiz morfologi mailan, nahiz sintaxi-mailan, nahiz lexiko-mailan... Eta nola ez, baita ahozko literaturak dituen baliabideez jabetzeko eta bere irudien erabilpenean lehen urratsak ematen hasteko ere.

Haurrei edo ikasleei «gai» bat aukeztu ondoren, honoko hauek izan daitezke eman beharreko urratsak, goiko hori guztia landu ahal izateko eta, bide batez, idatzizko bertso gintzan ere abiatzeko.

1. Gaia eman ondoren, irudimena landuz, ideiak eta arrazoiak garatu, hiru bat ideia nagusitako «eskemaraino» iritsiz.

2. Ideia nagusi horiek «neurtuz», hiru bertsoen azken puntuak osatu.
3. Bertso osoa hornitu, azken puntutik abiatuz eta eske-
metako ideiez baliatuz.

* * *

Oñatin, 1991-XII-8
Gipuzkoako Txapelketako final erdia

Gaia: Zu, sendagile ospetsu bat zara. Zure bizitza osoa dar-
mazu bihotzeko gaitzak ikertzen eta sendatzen. Gaur
zure emaztea operatu behar izan duzu, baina ez da suer-
terik izan.

• Eskema

1. Bertsorako

- Sarrera.
- Gaia esplikatuz.
- Egoera gogor horrek sendagileari sortzen dion mina
eta *ezina* adierazi.

2. Bertsorako

- Eta orain, zer?
- Aurrera egin eta lanean jarraitu.
- Trantze gogor hau *beste inork jasan ez dezan*.

3. Bertsorako

- Azken *agurra* emazteari.
- Baina, gordin eta gogor. Drama eta samintasuna nola-
bait nabarmentzeko.

• Neurtu

Eskemako hiru ideia nagusi horiek neurtu, bertsoen azken
puntuak hornituz edo osatuz.

- I. Gaiaren gogortasuna nabarmentzeko, azken puntu hone-
tan bi ideia kontrajarriak ipini kontrastea lortuz. Nolabait,
barruko haserrea eta inpotentzia horiek azpimarratzeko:

ezezagunak
neure maitea

Binomio horrekin tragediaren efektua lor daiteke modu nabarmenagoan.

*ezezagunak sendatu ditut
ta neure maitea ezin*

- II. Azken puntua, ez dugu beti azken aurrekoarekin lotu beharrik, baina lotuz gero, efektu hobea lortzen da eta bertsoa ere askoz ere ederragoa eta jantziagoa gertatzen da. Lehenengo ideiak mina eta ezinari aurre egitea da hemengo ideien ardatza, beste inork min hori senti ez dezan.

*Aurrera ere jendearekin
egingo dut ahalegina
beste inortxok senti ez dezan
orain nik daukaten mina*

- III. Azkenik, lanean jarraitzeko asmoz, baina ezinaren ezinez drama eta mina azalduz eta emazteari barkamena eskatuz, azken agurra.

*Barka zaidazu eta adio
nere emazte maitea.*

(Bukaerak, Sebastian Lizasorenak)

Hurrengo pausoa, bukaera horiek jantziz, behetik gora eta puntuz puntu, bertso osoa hornitzea izango litzateke. Baina ez da derrigorrezkoa.

Alderantzizko bidea ere erabili dezakegu. Bertso-sail bat aztergai hartu gelan eta tripak atera. Bertsoak sailean eta banaka aztertuz, bertsolariak berak bertsoak egin aurretik eginiko eskemara iritsi.

Hala ere, irudimena eta bertsoa bera lantzeko, lehenengoa da biderik egokiena: *gaia, eskema, neurtu, bertsoa*.

1. Eskema egin. Hiru bat ideia nagusi.
2. Ideia horiek neurtu. Azken puntuak.
3. Bertsoak osatu.

Ikasleen irudimena martxan jartzeko, beraz, irakasleak aski du gai zehatz eta hurbil baten aurrean ikaslea ipintzea, honek hiru ideia sor ditzan. Ez da derrigorrezkoa gero bertsoraino heletzea.

BERTSOGINTZA -2-

Hizkuntz funtzioen alorrean jarraituz, gaiak banaka ezezik, binaka edo taldeka emanda ere, ia funtzio guztiak landu daitezke:

- Autobaieztapenarena
- Kontaketa, iritziak ematearena
- Irudimen eta sormenarena
- Arrazonamendu logikoarena
- ...

Batetik, bakoitzak bere bidea ireki behar duelako, eta bestetik, ondokoaren arrazoiaren entzun ondoren, erantzuten saiatu behar duelako. Horrela, aho-hizkuntzaren gailurrera joko genuke, hitzaren harian eta arrazoiaren oinarrietan elkarrizketa zuzena sortuz. Batek hitz egiten duen bitartean, besteak entzun egin behar du. Eta beharbada, erraza dirudien arren, baliteke hauxe izatea ariketa honetan lanik zailena, lagunari entzutea, alegia.

Lagunak nondik jotzen duen entzun eta honen azken hitzari buelta eman. Arrazoiari beste arrazoi baten bidez erantzun.

Era honetan, komunikaziorako gaitasuna lantzen delarik, irudimena eta erreflexuekin batera. Hitzaren sokak eta arrazoiaren jarraipen zuzenak dialektikaren bidean jarriko gaitu.

Gelan gaurkotasuna izan dezaketean gaiak aurkitzea eta ipintzea izango litzateke lehenengo lana, ondoren, binaka jarritz, irudimenari atea irekitzeko.

Elkarrizketa hauetan, gainera, hizkuntzaren erregistro eta forma ezberdinak ikusi, ikasi, aztertu eta lantzeko parada ere izan dezakegu:

- Hizkuntza kulta
- Herrikoia
- Batua
- Euskalki ezberdinak
- Hitanoa (neskak - mutilak)
- ...

Lehenengo urratsa, beraz, ofizio-banaketa egitea, bikoteko bakoitzak bere arrazoiak aurki ditzan, besteari erantzunez.

A: Kuadrila bateko neska. Igande goizean mendira joan nahi duzu.

B: Kuadrila bereko mutila. 12ak arte lo egin nahi duzu.

Neska: Ez zaitetz ohean usteldu adin horretan.

Mutila: Gaupasa errekueratu behar dut.

Neska: Mendian izerdituta pasako zaizu.

Mutila: Aste barruan nahiko izerdi botatzen dut.

Neska: Zure bizitza antola ezazu.

Mutila: Gaztea naiz. Oraindik ez dut formaldu nahi.

...

Arrazoi horiek hitz neurtuetara pasa ditzakegu hurrengo pauso batean, bakoitza puntu batean neurtuz edo koplak nahiz bertso osora helduz:

NESKA

Igande goiza data
goiztar esnatuta,
mendirako asmoa
hain daukat gertu-ta
zu ere etor zaitetz
motxila hartuta
*ez zaitezen usteldu
ohean sartuta.*

MUTILA

Zure ahots gozoa
iristen zait ozen
ez zaidazula esan:
—Mendira goazen,
gau pasa egin dugu
batzuek hain zuzen,
*utz nazazu patxadan
errekuerutzen.*

...

– Zuk, egunkaria aurretik atzera irakurtzen duzu.

– Zuk, atzetik aurrera.

– Zuk, lagun bati deitu diozu goizeko seiretan.

– Zuk, deia jaso duzu.

– ...

BERTSOGINTZA -3-

«Irudi literarioak» ere izan daitezke hizkuntza lantzeko bidean lagungarri. Bertsoa osatzeko orduan, gai batetik abiatu ordez

irudi batetik abiatzen bagara. Bertsogintza irudi literarioen zerbitzuan, edo, alderantziz nahi bada, irudi literarioetatik abiatuz, bertsoraino heldu. Bidean, noski, egitura gramatikalak eta hizkuntz funtzioak landuz.

Gauzak adierazteko eta komunikatzeko erabiltzen diren moduak, formak eta esaerak dira, hain zuzen ere, hizkuntza bat aberastu edo pobretzen dutenak. Bertsogintzan ere gauza bera gertatzen da, eta bertso baten prozesua hizkuntzan oinarritzen denez, batean erabiltzen den erregistrotik bestearen moldeak eta galga adieraziko dizkigu.

Horregatik, irakaskuntza-arloan, guztiz onuragarri gertatzen da, bertsogintzarako baliagarritasunak aprobeztatuz, berriek landu eta beroiekin jolastea. Eta nahi bada, bertsoraino heldu.

Ikasleari gauzak adierazteko modu zuzenez gain, zeharkako bidea ezagutzen eta erabiltzen erakutsi behar genioke: *ironia*, *metafora*, *onomatopeia*, *elipsia*... eta gainontzeko irudiek, hizkuntzari kolorea ematen diotela. Eta bertsogintzan ere, baduela lekurik hizkuntza honek, oso erabilia eta preziatua delarik.

Atal honetan, irudiak berak ezezik, hizkuntz funtzioak landuko genituzke gehienbat:

- Esperientzien kontaketa
- Iritziak ematea
- Deskribapenen azalpenak

...

Adibide modura, batzuk ikustekotan:

- *Onomatopeia*

Haizeak fiu-fiu
Errekak mar-mar
Itsasoak braust eta braust

...

Neurtuaz: - Haizearen txistua
fiuka- fiuka
- Errekatxo gardena
badator mar-marka

...

Bertsoraino heldu nahi bada...

• *Metafora*

Txirrindulari tropela: suge koloreduna

Parranderoa: kaleeteko gautxoria

Begi urdinak: bi itsas puska horiek

Beldurra: barruko zezena

Neurtuaz: – Suge koloreduna
bizi-bizi dator

– Kaleko gau txoria
gaur ere kantari

– Bi itsas puska horiek
baditut aurrean

...

Bertsoraino heldu nahi bada...

• *Elipsia*

Mendian elurra
zuritu gailurra
artzaiak beldurra
zaunkaka zakurra
tristura begian
beti aulerian
ez haren premian

Bertsoraino heldu nahi bada...

• *Pertsonifikazioa*

Itsasoak kopeta beltzatu zuen

Txakurkumeak esan dit amarekin uzteko

...

Neurtuaz: – Itsaso beltzak haserretuta
zimurtu zuen kopeta

– Txakurkumeak negar-zotinka
hala esan dit goizean

...

Bertsoraino heldu nahi bada...

- *Anaforak*
 - Ez da erraza... ez da erraza...
- *Paralelismoa*
 - Ezpainak apurtu
 - Hortzak erori
 - Mihia ebaki
 - ...
- *Konparaketa*
 - Gure ikurrina lore sorta bat bezala
 - Armairu xokoko ardoa bezala
 - ...
- *Hiperbolea*
 - Lurrera botatzen du euli baten kargak
 - ...
- *Idea kontrajarriak*
- *Ironia*
- *Eta abar*

Bukatzeko, gure proposamena hauxe litzateke, nolabait laburbildurik: *euskararen ikasketa eta lanketa ohizko meto -doetatik ateratzea.*

Betiko taulak eta aditz-zerrendak ere ikasi behar direla, baina, *ahozkotasunaren* apustutik. Berdin da, *atsotitzen mun -dua jorratuz, ditxoak, kantu zaharrak, txisteak, asmakizunak, aho-korapiloak, hitz-joko eta esamoldeak, leiendak, koplagingintza edo bertsogintzatik* abiatuz. Baina, betiere, egitura gramatikalak eta hizkuntz funtzioak helburu eta ikasgai. Hori bai, hasieran esan duguna, askotan helburuak eta baliabideak nahastuko ditugula, baina azken finean, bi arloak landuko ditugu parean:

- Gramatika eta hizkuntz funtzioak.
- Ahozko literatura (ezagutu, sortu —teknika—...)

Beraz, irakasle, bete ezazu zure karpeta bertso zahar eta berriz, koplak eta euskal kantuz, atsotitz eta ditxoak, txiste eta leiendak, aho-korapiloak eta asmakizunak... eta batez ere, irudimenez. Eta ea euskarako klaseetan gehiago gozatzen dugun.

GAIAK

RAMON ZALLO

ETB: TXOSTEN BATI BURUZKO TXOSTENA

JOAN MARI TORREALDAI

ETB ETA EUSKARA

ETB: TXOSTEN BATI BURUZKO TXOSTENA

RAMON ZALLO

EITBren Zuzendaritzak kontsulta-enpresa batekin batera 1992ko ekainan prestaturiko txosten zabalak proposatzen duen telebista-ereduan antzeman daitezke birtute handi bat (zerbitzu publikora jarria dagoen telebista autonomiko bat berresten du, ongi ezberdindutako bi kanalekin), eztabai-datzeko modukoak diren zenbait gai (programazio eta produkzio-ereduak, esate baterako), bi akats nabarmen (logika paragubernamentalaren informatiboen edukinean batetik, eta audientziekiko obsesioa bestetik, honek enpresaren ikuspegi damaiolarik areago Ente Publikoarena baino) eta bi ausentzia azkenik (telebista lokalarena bata eta gaur egun puripurian dagoena bestea, zuzendaritza-organoena alegia). Ez ditut ukitzen azterketa honetan arazo linguistikoak —Joan

Mari Torrealdaik ongi baino hobeto jorratuak—, ezta irratia ere.

ETB LORPEN GISA

Txostenak *asmatzen du* printzipio-aitorpenetan, ETBren eginkizun sozialean, bi kanalen defentsan —nahiz eta ETB-2k elebitasuna gehiago zaindu beharko zukeen, Entearen Sorrerako Legea bete nahi izanez gero—, kanalen artean programazio-lerrak banatzeko dagoen kontzeptuan, ETB-1ek duela lehentasuna aitortzerakoan, ETBk ikus-entzunezkoen euskal industriarikiko duen paperean eta FORTA rekiko harremanak mantentzearen aldeko asmoa erakustean ere, —noiz edo noiz katalanek egiten duten bezala harengandik desengantxatzea eskertzekoa izango litzatekeen arren—. Azpiegituretan egin beharriko inbertsioen zerrenda egokia da, zenbait esparrutan (Goimailako Definizioan, adib.) inbertsio horien egikaritzea fase desberdinetan zertxobait berandutu zitekeen arren, eta behar-beharrezkoa dirudi merkatal gestioko eremua indartu eta sendotzea, Publiespaña-rekin egindako kontratuak suposatu zuen akatsaren ondotik, pribatuak etorriko zirenerako nahitaezkoa izango litzatekeen *egiten jakite* horren lagatzearen aldetik.

EITB herria eraikitzeko beharrezkoa da, eta lorpen hori zerbitzu publikoaren eta aurrekontuen arrazionaltasunaren bidez ordaindu behar zaio, jakinik gainera ustiapenagatiko diru-sarrerak osagarriak izango direla beti. Zenbait kasutan entzuten denaren kontra, ETB ez da telebista txarra, bere kalitateagatik nabarmentzen ez den arren. Dena dela, bera da gure telebista eta begi-bistan dago hobe daitekeela.

Txosteneko eredu orokorraren aurrean (bi kanal eta bi programazio), badira beste modelo posible batzuk, nahiz eta onartezinak izan. PP alderdiak bi kanaletatik programazio bera bi hizkuntzatan ematea defenditzen du —informatiboetan, lehia-keretan eta zuzeneko programetan izan ezik—. Proposamen honek bi arazo handi dauzka aurrez aurre. Batetik, komunitate diglosiko baten barruan, ETB-2k konpetentzia desleiala

egingo lioke ETB-1eri eta *euskaldun zaharrak* nahiz *euskal -dun gaiak* erabat adoregabetuko lituzke ulerpenaren aldeko esfortzu txikiena egitera, programazio berberarekin beste kanal bat edukiz gero, gaztelaniaz. Zuzeneko emankizunak, informatiboak eta lehiaketak, bestetik, kasu askotan osatzen dute programazioaren zatirik garrantzitsuenetako bat, beraz ez dira inondik ere ikusten kanal bakoitzak bere nortasuna galtzeak ekarriko lituzkeen abantailak, ekonomikoak ez badira behintzat. Bidaia hori egiteko merkeagoa litzateke kanal bakar bat soinu dualarekin irрати bidez. Besterik litzateke, noski, programa jakin batzuk, behar bezala egokitu ondoren, kanal batek bestera elkar trukatzea.

ETB-2ren pribatizazioak, bere garaian Jose Alberto Praderak planteatu zuela ahaztu gabe, zerbitzuak eta instalazioak kanaletan bereizita ez daudenez horrek ekarriko lituzkeen arazo teknikoez gain, hiritarren gehiengoa zerbitzu publiko autoktono bat gabe utziko luke, kate pribatu espainoletako programazio guztiz eztabaidagarria ikusiz —ez baitaude kate horiek inolako obligazioetara lotuak, frantsesekin gertatu ohi den bezala—, Euskadin egiten den TB larriki pobretuko lukeelarik guzti horrek.

ETB-2ren likidazioa, aspaldi batean PSOEek eskatu eta proposatua nahiz eta gaur egun kohabitazio-arrazoak direla eta baztertua egon, katastrofe bat litzateke, argi eta garbi. Epe motzera ETB-1 kanal elebidun bihurtuko luke, gaztelania hutsan igortzen diren emisio-espektro zabalaren barruan. Ideia egokia litzateke, ordea, TVE-2 Komunitate Autonomoei lagako balitzaie.

PERSPEKTIBA NAHASGARRI BATZUK

Txostenaren alderdi estrategikoak, consulting batek egina izan arren, ez dauka inolako estrategiarik bere baitan eta bai, ordea, gaur egun inolako krediturik ez duten zenbait tesiren estrapolazio hutsak, horrek erabaki kaltegarrietara eramán gaitzakeelarik.¹

Lehengoz eta behin, *oker dago esatea TB mailan egindako publizitate-inbertsioak desplazatu egingo duela* gero eta gehiago

komunikabide idatzi eta irratietako publizitate-inbertsioa. Ez da horrela izan, eta ez da horrelakorik onartzen ere aurrikuspenik fidagarrietan, 95. urtea bitartean bederen. 1995etik haratago hitz egitea zientzia fikzioa egitea da. TBko publizitate-saturazioak, TBko ikus-entzulegoak neurtzeko ereduak zalantzan jartzeak, publizitate-inpaktuaren kostu errealdaren, tarifa ofizialaren eta tarifa errealdaren arteko distantziak, eta beste komunikabideetan (zuzeneko marketing, mailing, etab.etan) eta baita prentsan ere publizitatea egiteko dagoen eskari gero eta handiagoak horrelaxe erakusten dute epe ertainera. Salmentengatik espero diren diru-sarrerak (%10-15 bitarteko gehikuntzak urtez urte) *optimista samarregiak* dirudite horrela, Krief/Intermatrix-ek Publiespaña Institutuarentzat «Publizitate-Inbertsioaren Garapena Espainian» gaiari buruz egindako 1990-95 prospektiba-txostenari kasu egiten badiogu behintzat, txosten horrek telebistarentzat %8ko urteko gehikuntza nominalak aurrikuspen baititu. Eta horrek esan nahiko luke aurrekontuak aurrikuspen horien arabera planifikatuz gero bitatik bat, edota programazio hiperkomertzial bat egiten da edota garaia iristerakoan fondo publikoetara jo beharra egongo litzateke berriro ere.

Bigarrenik, *Mugarik gabeko TBren Gidaraua*-ren eraginak TB publiko handien mesederako baldin badira, ez dira *txikientzat* lagungarri gertatuko ekonomikoki, kalitatea hobetzeko bidean ahaleginaren aldekoak izango badira ere. Kostu gehiago ekarriko litzuzke produkzio propioan (barrukoan nahiz kanpokoan), mugapen gehiago publizitate-inbertsioak erakartzeko orduan eta bestalde, ez dago batere argi produkzio independente autoktonoarentzat mesedegarria izango denik, hobera egiten ez badu behintzat, Europako produkzio independentearengana jo beharko baikenuke.

Hirugarrenik, oso exageratua da esatea 2000. urterako *milioi bat aparatu egongo direla Goimailako Definizioan hartzeko gai izango direnak* Estatu Espainiarrean, honek gaur egungo produkzio eta transmisioko sistema beste sistema berriekin handitzera behartuko baikintuzke, guzti hometarako beharrezkoa den inbertsioarekin.

Izan ere, oraindik nahasmendu handia baitago azkenean nagusi eta garaile irtengo diren arauen inguruan, Europako Bartzordeak HD Mac izenekoaren alde apustu egin baldin badu ere. European elkarte gurutzatuak eta ezadostasun garrantzitsuak ari dira gertatzen borroka horretan USA sartu denetik. Jende arrunta aparatu hartzaileak erostera kalera irten baino lehenago —eta gaur egun aparatu horiek oso garestiak dira oraindik— beharrezkoa izango da alde zuretik produkzio eta transmisio sistemak erabat aldatzea —krisi-garai batean— eta arau berrian programa-stock garrantzitsu bat pilatzea. Aurretik disko konpaktoaren, bideotexaren, antena parabolikoen, kableatuaren, bideodiskoaren, etab. en ereduak erakusten dituztenez, teknologia batzuk 10-15 urte inguru atzeratzen dira gizartean errotu baino lehen, aurrikuspenek esandakoarekiko. Azken finean, goiz samar dirudi ETBk berak Goi Definizioan eta produkzioaren eta emisioaren esparruan ekipamendu handi bat eskuratzeko (1.100 milioi aurrikusten ditu ETBk 1995-97 bitartean), bere kostuengatik eta zaharkitua geratzeko arriskuengatik, eta zuhurragoa dirudi, beraz, aprobako tresneria edo aparatajea erdieste.

Laugarrenik, programazioaren analisisian eta estrategian aditua den edozeinek albo batera utzi eta baztertuko lituzke «2000. urterako programazioaren joerak European» izeneko lanaren ondorioak, zeren eta ez baita posible konklusioak aurrikustea programazioko eredu guztietan aldaketa sakonak gertatzen ari diren unean. Gero eta gutxiago balio du generoen eredu konbentzionalak, generoen eta formatuen alorrean bete-beteko iraultzan murgilduta gaudenean. Italian, Britainia Handian eta partzialki bada ere baita Frantzia gaur egun, eta batez ere TB publikoan, *TB konbentzionala*, parte-hartzailea, eta baita pentsamendu librekoa eta kritikoa ere nagusitu egin da —iritzi publikoa sortu eta instituzio eta partiduen behaketa egiteko orduan prentsarekin lehia bizian ari dena—, formatuz askoz ere arinagoa eta irratia ren antzekoa, ibai gisako programazioarekin, zuzenekoak pisu garrantzizkoa hartzen duelarik bertan, fikzioaren murrizketa handiarekin, eta kulturaren eta entretenimenduaren, TB aldebakarrekoaren eta TB aktiboaren arteko muga zurrunik erabat hautsiz.

Gaur egungo programak —eta horietakorik bada Euskadin— *infoshow*, *talkshow*, telejustizia, bizitza errealaren telekronika, telesalaketa, telebilaketa, komunitatearekiko eta berorren gutxiengoekiko telezerbitzua, teleenplegua, teleintegrazioa edota antzeko izenez ezagutzen dira. Hor denetik dago, noski. Hasi zaborra, morboa eta populismo merketik eta kalitatea, imaginazioa eta demokratizatorainoko bide luzea. Gizar-tearen konplexutasuna TBn sartzen ari da eta hau gizartea uniformatu edo bateratzeari uko egiten hasia da.

Europako batezbestekoak ez dute jadanik balio programazioaren erduei dagokienez, hor ere bi abiaduratako Europa baitago: lehenago pribatuak ezarri zituztenak batetik, eta ezarri ez zituztenak bestetik; publikoentzako espazio definitu bat aurkitu dutenak eta oraindik ere krisian daudenak, Estatu Espainiarraren kasua den bezalaxe.

Estatu bakoitzak historia bat dauka eta eredu erabat desberdina. Eta testuinguru horretan ausardia baino gehiago litzateke axiomatzat hartzea —ondoren axioma moduko hori produkzioaren esparruan eta baita organigraman ere erreproduzitzen baita— TB erregionalak «notizia, sitcom, ikuskitun/lehiaketa eta programa kultural eta heziketakoetan» espezializatzen direla, nazioarteko merkatuak «musika, kirolak, akziozko fikzioa, marrazki bizidunak eta «soap» direlakoak» besterik emango ez lituzketen bitartean.

Telebista publiko handien problematika, gainera, ETBrena ez oso bestelakoa da —hau potentzia ertaineko TB bat denez— eta inork ez digu ukatuko geure espazio propioa bilatu eta aurkitzeko esfortzu eta ahalegina. ETBk ez dauka BBC edo RAI kateak bezain erraza, bere kanalak demografi segmentuen arabera (familia, gizarte-segmentuak, adinak) edota TVEk bezala kategorien arabera espezializatuz (orokorra, espezializatua), zeren eta ETBren lehenengo espezializazioa hizkuntzaren arabera baita, besteen eskaintza maioritarioak betetzen duen testuinguru batean, eta horrek ETB bi kate orokor baino zerbait gehiago eskaintzera behartzen du, bi programazio gainerantzekoekiko alternatiboak eta elkar osagarriak direnak alegia.

Bostgarrenik, *Suitzako edo Belgikako ereduak ez du balio Euskal Herrirako*. Herrialde horietan, bertako TB hizkuntza berean emititzen diren programazio arrotzei nagusitzen baitzaie. Egia da hiritarrendandik gertu dagoen TB batek baduela konparazioan abantaila bat, erabiltzen jakin behar dena. Baina Belgikan edo Suitzan ez bezala, ETB-2 —kanal propioa izanik— minoritarioa da TVE eta pribatuekiko, hizkuntza berbera erabili arren. ETB-1ek ez du beste inolako TBk erabiltzen duen hizkuntza berean emititzen. Eta ez zaigu tokatzen aurreko bi adibide horietatik espero daitekeen etorkizun distiratsurik, audientzia minoritarioa baizik Euskal Herrian bertan.

Seigarrenik, TB ez da irla bat, elementu bateratzaile bat baizik, kultura tradizionalen bezala baita kultur industrietan eta ikus-entzunezkoan bereziki. Ez da posible EITBren paperaren eta proiektu estrategikoaren definizioa egitea, *euskal komunikazio eta kultur sistemaren plan estrategikoa, oro har*, eta diagnostikoa egin gabe, eta egiteko hori, zoritxarrez, ez da aurrera eraman oraindik. Horrela bakarrik jakingo genukeen ea Kultura Sailak EITBn erabiltzen duen Aurrekontuaren %56 ikaragarri hori sozialki /probetxuzkoa ote den eta zein leku bete behar duen EITBk.

Ez gaude bada eredu funtzional bat oinarrituko lukeen proiektu estrategiko baten aurrean, eta hemen proposatzen denak, zentzuzkoak diren hainbat arloekin batera, esate baterako organigramaren klarifikazioa, giza baliabideen politika jakin bat —lan-malgutasun bezala hartu behar ez litzatekeen nolabaiteko mugikortasun funtzionaleko kontzeptuarekin— edota gestio-zuzendaritzakoen eta teknikarien egonkortasuna, arazo nabarmenak ere baditu.

Adibidez, Zuzendari Orokorraren eginkizunak zabaltzeak (planifikazioa eta politiken formulazioa), Irrati eta TBko zuzendarien autonomia mugatzen den bitartean, bere irudiaren eta baita Administrazio-Kontseiluaren demokratizazio eta sozializazioa testuinguru batean soilik edukiko luke zentzurik, telebista paragubernalaren testuinguruan eredu autoritarioa bat arriskatuko lukeen bitartean.

Bestalde, jakin daiteke *zein eremu izan behar duten egiturazkoak eta zein izan behar duten koiunturazkoak, zein modutako TB egin behar den jakinez gero*. Ez da horrela gertatzen ordea. Ez jakitearen aldera, ez dira ezagutzen kontabilitate analitiko bidez orduko eta programako kostuak ere, eta hori dela eta galdera asko egin daitezke planteatzen den eremu eta enkizunaren banaketari buruz, hala nola txostenean erabiltzen den kostuen murriztapenari buruz ere, helburu guttiz zuzena eta bidezkoa izanik ere.

EZTABAIDATZEKO MODUKO GAIAK

Lehenik eta behin, ahalegin ikaragarria egin den arren eta nahiz eta Mugarik Gabeko Telebistari buruzko Gidarau europarra betetzen dugun, *produkzio propioari* dagokionez, baina bezala baita kanpokoa ere, ez da alferrik izango %60 edo %70eraino hazi beharko lukeela, horixe baita Europako telebista publikoen batezbestekoa. Eta, bide batez, esan beharra dago euskarara bikoizteak ez duela programa bat «propio» edo bertako egiten kultur identitatearen ikuspegitik, txostenean esaten denaren alderantziz.

Produkzio propio baten aldeko ahaleginak kanpoko dependentzia eta morrontza hori gutxitzea eskatzen du, alderdi ekonomikotik baina batez ere kulturaren alderditik, kultura transnazionalaren terminal bat izan nahi ez bada, ETBk erosketak egiterakoan leku eta jatorri desberdinetara jotzen duen arren.

Produkzio propioa indartzea garestia denez, produkzio horren zati bat *epe ertainera planifikatua* izatera beharturik gaude —eta ez inprobisatua—, eta ahal den neurrian bestelako operadore batzuen aurrean, autonomikoak izan edo atzerrikoak izan, *saltzeko modukoa* izan dadila. Egiten den produkzioa kalitatezkoa, konpetitiboa eta beste kultura batzuentzat ulergarria izateak herrialdeak apustu estrategiko bat egitea esan nahi du ikus-entzunezkoen alorrean sektore ekonomiko eta kultural bezala. Horretarako abiapunturik badago baina Industria, Kultura eta Hezkuntza Sailen eta baita Diputazioen erabaki kontziente bat ere beharrezkoa da.

Gaur egun ezinbestekoa da euskal produkzio kulturala zer den jakitea, diagnostikatzea eta lurraldearteko borroka eta lehia hori ebitatuko lukeen planifikazio estrategiko bat egitea. Lurralde bakoitza bere aldetik doa, Komunitate gisa daukagun sormen eta produkzio-ahalmena alferrik galduz. Karlsruhe, Colonia, Hamburgo, Montpellier, Aubervilliers, La Villette, Poitiers eta Sheffieldeko Kultur Industria eta Sormenaren Parkeak bisitatu ondoren pentsa liteke ea Euskadik aukerarik ba ote duen ikus-entzunezkoen industria eta informatika eta ikus-entzunezkoen industria, gainbehera doan ekonomia industrial batek beharrezkoak dituen etorkizuneko ordezkoko sektore horietako bat bezala hartzeko eta ea *Media Park* batzuma bidea lurraldearteko sarean izango ote litzatekeen biderik egokiena. Geure konklusioa baiezkoa da.²

Bigarrenik, *TB publikoak programatzaile bakarrik izan behar al du edota baita produzitzaile ere?* Txostenak TB funtsean programatzaile baten apustua egiten du, produzitzailearen aldekoa baino, informatiboak, kirolekoak eta, koiunturalki, beste programa gutxi batzuk kanpoan uzten baditugu. Eta programazioaren gainerantzekoa kanpoko produkzio proiektorekin (enkarguak, koprodukzioa, produkzio delegatuak eta produkzio finantziatuak batipat, beren eskura jarriz Miramongo instalazioak) eta besteren produkzioarekin beteko litzatekeela suposatzen da.

Hala ere, ikus-entzunezko europarraren etorkizuna ez da programazioan jokatzeko, denboraren poderioz eta kateen arteko oreka lortzen denean nolabaiteko estandarizazio batera joko baitu, produkzioan eta eskubide audiobisualen edukitzan baidiz. Horixe da telebistaren produkzio-prozesu globalaren leku estrategikoa. Eta arriskugarria dirudi operadore publikoa produkzioa bitartean presente ez egotea bere *egiten jakite* pilatu hori aprobetxatuz eta eragile pribatuen produktuen kalitatea *konpentsatuz eta estimulatuz*. ETB eite ertaineko telebista bat da, TB lokal iparramerikar txikietatik oso desberdina, azken horiek batipat programatzaileak eta errepikatzaileak direlako. Ez da ahaztu behar inola ere lanarekin, ekimenerako gaitasunarekin, erreziklajearekin..., etab. berriro ere adoretu beha-

rreko plantila bat hortxe dagoela. *Gaur egun gogorik eza begi-bistakoa da ETBren plantilan.*

ETBk programatzailea eta produzitzailea izan behar luke, produkzio-baldintzak eta baldintza sozio-profesionalak hobetuko lituzkeen eta kalitate, parametro tekniko, prezio, formazio... eta beste hainbat arlotako akordio global baten bidez modu erabakiorrean potentziatu behar den ikus-entzunezkoen euskal industria baten *motore eta akuilu* gisa jokatzeko inolako kalterik gabe.

Hirugarrenik, bi kanal mantentzeak kostu ikaragarria suposatzen du herrialde txiki batentzat, eta beste helburu kultural batzuen bizkarretik seguruena. Horrek kostuen murrizketa bat eskatzen du, zerbitzu publikoaren ez kalitatea eta ezta eginbeharrak hondatzearen bidetik etorri behar ez lukeena. Komenigarria lirudike bi neurri hartzea: emisio-ordutegia murriztea batetik eta programazio global eta osoaren ideari uko egitea bestetik, genero guztiak lantzeari dagokionez. Apustuak, batez ere, euskal erabiltzaileak jasotzen dituen gainerantzeko eskaintzak dituzten kalitate, irudimen, modernotasun, informazio eta partaidetza-mailako hutsuneak konpentsatuko lituzkeen telebista baten aldekoa izan beharko luke, TB hurbileko batek dituen konparaziozko abantailak aprobetxatuz horretarako.

Ez da oso ongi ulertzen, izan ere, zergatik saiatzen den hainbeste txostena ETB-1 orokorra, globala eta ETB-2, berriz, espezializatua direla frogatzen, zeren eta *bi-biek orokorrak edo generalistak balira bezala jokatzeko baitute*, ETB-1ek kirolak, haurrentzakoak eta magazineak eta ETB-2k fikzioa, dibulgiokoak eta informatiboak azpimarratzen badituzte ere, hurrenez hurren. ETB-1 eta ETB-2k generalistak behar lukete izan populazio guztiari eta baita minoria edo gutxiengoaren batukariari ere zuzentzen zaizkion neurrian soilik, baina genero guztien programazio orekatua ez da nahitaezkoa. Dena dela ere, kanal bakoitzak bere identitatea eta nortasuna eduki behar luke.

Honek ez du esan nahi, hala ere, ETBk telebista kultural bat izan behar duenik. Hori ez litzateke Zerbitzu Publiko bat izango, eliteko telebista bat baino, bestelako telebista-katei audientzia

eskainiko liekeen lujo bat. Gaur egun kultura, informazioa edo hausnarketak eskainiko badira entretenimenduar**en**bidez egin behar da. Bi kateen arteko nolabaiteko espezializazio horrek *hizkuntza bidezkoa* izan behar luke (partzialki) —eta hau eztabaidara eramateko moduko iritzia da—, *publikoen eta programen arabera*koa, generoen arabera baina gehiago.

ETBk ez du TVE eta pribatuen arma berdinekin borrokatu behar, konpetentea izan behar du, identitatea, kalitatea, sormena eta desberdintasuna landuz eta «batezbesteko publikoari» eta gizartearen segmentu diferenteei aditasun eta atentzio bikoitza eskainiz. Ezinbestekoa da programazioa egokitzea (ez ordea kontraprogramazioa egitea), baina zenbait programatarako audientzia handiei uko egin gabe.

ERABATEKO EZADOSTASUNAK

Zerbitzu Informatiboen gidarauetan «gizarte-ohartzunari kasu egitea», «euskal gizartean, oro har, duten ezarpen-maila objektiboaren arabera informazioa ematea (indar politiko desberdinei buruz ari dela)», «zalantzagarritasun informatiboa ebitatuko da», «iharduera politikoaren lorpenak eta alderdi positiboak demokrazia defendatzeko modu egokia bezala erakutsi», «instituzionalak lehentasuna merezi du», «ez bultzatu artifizialki mesfidantza eta pesimismoa», «instituzioen ospea eta prestigioa sustatu», «informazio-zerbitzuek Ajuria Eneako Hitzarmena deritzon Bakearen alde sinatutako politika bere egiten dute eta horretan oinarritzen dira» bezalako esamolde eta espresioak irakurtzen direnean, dardarka hasteko modukoa da.

Mahai gainean dagoena telebista-eredu paragubernamental eta doktrina-emailea iruditzen zaigu, inoiz ere arautua izan ez baina bai ordea 1986tik aurrera egikaritua izan zena, analisia**ren** aztertzailak diotenez eskuineko demokrata frantses edo aleman nabarmenena ere izutuko lukeena, eta Europako komunikazio-aztertzailak igorritik gero eskuliburuetan agertaraziko luketena. Egia esan informazio-zerbitzuentzat emandako arau horiek eskandalosoak dira, ados egoteko moduko printzipiozko deklarazio orokor onginahizkoen barruan bilduak doazen arren.

Horri informazio-iturri instituzionalen gehiegikeria edo abusuaren arazoa gehitu beharko litzaioke. Instituzioen luzapen bezala kontzebitua izan den TB publiko batekin, bertan herrialdearen, demokraziaren eta beronen instituzioen defentsa instituzioen politikaren defentsarekin nahasten denean... Europako telebista-joeren antipodetan gaude, beste muturrean hain zuzen ere, 60ko hamarkadan nagusitu eta 70ekoan, Estatu Espainiarrean izan ezik, porrot egin zuen eredu zaharra berriro ere erreproduzitzen den bitartean.

Egun, biztanle edo herritarrarengan eta berorren adin-nagusitasunean sinesten delako, Europa osoan erabat nagusi den kontzeptua TB publiko librearena da, irekia, freskoa, transparentea, sentsibilizadorea eta Euskal Herrian gaur egungo Entearn Sorraera-legearen posible dena. ETBk gizarte errealaren ispilu eta katalizadore behar du izan eta ez, ordea, Administrazioak bere administratuengana zuzentzeko darabilen komunikazio-sistema. Txostenaren enfokea ontzat ematen baldin bada, 20 urteko atzerapausoa emango dugu.

Txosteneko Informazio-Zerbitzuen gidarauetako esamolde horiek Entearn Sorraera-legea apurtzen dute (bi, hiru eta hogeitabat artikulua, bigarren parrafoa), lege guztiz aurrerakoia baita —organoei dagokien zatia izan ezik, eta azken finean horixe gertatu da zatirik garrantzitsuena—. Gidarauek telebista manipulatu ahal izateko eskubide osoa ematen dute, gizarte osoak egituratzeko, disidentzia integratzeko, elkarrizketa bultzatzeko eta herria normalizatzeko aurrera daraman ezarritako mesede eskasa egiten dioten bitartean.

Transparentziarik balego, edukinaren analisia egiteko ikerketa bat enkargatuko litzateke —horretarako badaude teknika kuantitatibo nahiz kualitatiboak—, EITBren Sorraera-legearen printzipioak betetzen ote diren egiaztatzeko eta, bereziki, inpartzialtasunari, komunikatzeko eskubideari, iritzia eta informazioaren arteko bereizketari, edota programazioaren eta publikitatearen artekoari, pluralismoari, esangura txikiagoko taldeen antena-eskubideari edota «euskarazko irrati-telebistako emisioen oreka, maila globalean, komunitate autonomoan» izeneko printzipioari buruzkoak. Zein motatako telebista egin izan den jakitea ez dut uste gehiegi eskatzea denik.

Audientzia da, bestalde, ETBko zuzendaritzakoen obsesio-rik behinena, eta honek kate handiekin maila berean baina baliabide gutxiagorekin konpetitzen saiatzeko ekinaldi eskizofrenikoan sartu ditu buru-belarri, audientzia legitimazioarekin identifikatuz eta audientzi indizea ulertuz ez indize oso garrantzitsu bat bezala, INDIZEA bezala baizik. Azken finean, zera esatera iristen dira, audientzia dela TBren termometroa, publikoa nahiz pribatua izan, audientziaren helburuak mugatzen duela programazioa eta bien arteko desberdintasuna ematen zaien eginkizunean dagoela: komertziala kasu batean, zabalagoa bestean.

Eta hala ere, ETBk ez dauka zertan borrokatu %15 edo %20tik gora dauden batezbesteko audientziak lortu asmoz, aurrean lau kate indartsu eta masibo dauzkanean. Baina, saiatu behar litzateke, ordea, portzentaia horiek gainditzen interes berezia duten hainbat programatan, kalitatezko programa edota besterik gabe ongi egindako programatan. Askotan audientzia ez da erabakiak hartzeko irizpiderik egokiena zerbitzu publiko batentzat. Entearen eginkizuna, funtsean, beste eskaintza batzuren aurreko eskaintza osatzean datza, eta eskari-mailak albo batera utzi gabe, ezta gutxiagorik ere, bere helburuak zerbitzu publikoarenak dira. Horrela ez balitz, merkeago litzateke telebista pribatu bat. ETBren enfokeak baditu zenbait ondorio: posibilitateen gainetik egiten da lan, gehiegizko kostu globalekin —ez kostu unitarioak gehiegizkoak direlako, haatik— eta programazioaren zati handi bat irizpide komertzialekin erabaki eta tajutuz, Entearen printzipio orokorren kaltetan.

FALTA DIREN GAIAK

Lehendabizikoz, faltan ikusten da TB lokalaren etorkizuna planteatu ere ez egitea, gai hori agendan egonik Ortuondon garaian. Egia da Estatu mailako arautegi berri bat, izaeraz murriztailea, berehala agertuko dela eta, zoritxarrez, agian TB lokala kable bidezko TBrekin lotuko duela eta azken hau Estatuarekin. Baina lekuan lekuko bizipenak eta arazoak hain

sustraituak dituen herrialdearentzat eta arau estataleki lotua ez dagoen TBrekin —konpetentziaz Estatutuaren azpian baitago—, eta sare propioarekin, posible izan behar luke lokala nazionalarekin artikulatzea, ETB-2ren lotura eta errepikagailuen sarea aprobetxatuz. ETB-2 ordu batzuz desengantxatu zitekeen, lekuan lekuko komunikazioari eskainiz ordu horiek, eta are gehiago emisio-orduak murriztuko balira. Beste era batera esanda, TB lokalak euskal telebistaren zati izan zitezkeen, izanik konpetentzia udalarena eta gestioa, ordea, gizarte osoarena. Azken bi xehetasun horiek funtsezkoak dira.

Bigarrenagoz, gure TBren estugunerik larrienetakoa zuzendaritzako organoetan dago. Estatu Espainoleko espezialisten artean nagusi den ideia zera da, EITB RTVEren «eskalako kalakoa» dela, organoei eta TBren erabilera politikoari dagokienez. Zuzendari Orokorrak ez luke izan behar organo pertsonabakarra eta erabat politikoa, organo kolegiatu bateko ejekutiboa baizik —ordezkaritza sozial, kultural, profesional eta politiko egokian oinarrituriko Administrazio-Kontseilu baten gisa—, beronek hautatua izateaz gain, beronen aurrean erantzuteaz gain eta egun dauzkanak baino dezente eginkizun gutxiago edukitzeaz gain.

Entearen printzipioak betetzen direla egiaztatuko lukeen Goi Autoritate independente bat ere existitu behar luke, izanik era berean bere ardura komunikazioari buruz ematen ari diren beste hainbat arazo larri ere (diskriminazioak, indefentsioak, komunikazio-ereduaren beraren hipotekak azken finean). Batzorde aholku-emaileak martxan jartzea garrantzi handikoa litzateke baita ere. Eta noski, Eusko Legebiltzarraren gainbegirada, ikuspen eta aurrekontuen mailako definizioak existitzen jarraitu behar luke.

TB garrantzitsuegia da trapitxeo eta «negozio» politikoen azpian jausteko arriskuan erortzeko. Horretarako hobe litzateke italiarren gisara *lottizzazione* bat egitea (kateak partiduen artean banatzea alegia). Pluralismo politikoa ez da derrigor pluralismo sozialaren sinonimoa, mundu osoan onartzen den bezala, zenbait kasutan Gobernuak, Lehendakaritzak edota Koroak izendatzen baititu azken finean erantzuleak.

Herrialde txikia gara, eta gure artean ez dago bipartidismoa segurtatzeko moduko gehiengo edo maioria politikorik. EITBrako gure neurriko egitura organikoa sortzeko aukera daukagu esku-eskura, pluralismo politikoaren eta, batez ere, pluralismo sozial eta kulturalaren erronka nagusiari erantzungo dion egitura. Egungo egiturak ondotxo erakutsi ditu bere mugak eta ez du inolako konfidantzarik merezi. Behar-beharrezkoa da Legearen erreforma bat eremu edo alor honetan, eta honetan bakarrik.

Laburpen gisa, balantzerik, diagnostikorik eta joeren analisi seriorik ez edukitzeaz gainera, txostenak ez ditu konpontzen gogobetez euskal TBren etorkizuneko arazo nagusiak, eta berehitzetan defenditzen duen Zerbitzu Publikoaren logikaren ordezkari bikoitza erabiltzen du, paragubernamentalaren informazioan eta komertziala, berriz, programazioan. Txostenaren lehenengo zatiak, eta ez ahaztu EITBk egina dela zati hau, gaur egun EITBk telebista-ereduari, programazio-ereduari eta informatiboen ereduari emandako bidea azaldu eta justifikatzen du, eredu guzti horiek normatibizatuz etorkizunari begira. Bigarren zatiak, berriz, txosten estrategikoak eta eredu funtzionalak eta giza baliabideen ereduak, alegia, eta zati hau consulting batek egina izan da, kostuen eta funtzioen beharrezko arrazionalizazioa konpontzen du, baina horretarako erabiltzen edo proposatzen dituen neurriak gehiago dira enpresarialak Ente publikoarenak baino.

Euskaratzailea:
JABIER AGIRRE

1. Kulturari edota komunikazioari dagozkien eta ikusteko aukera eduki dudana azken txostenak, kontsulta-enpresek enkarguz eginak izan dira. Eta makina-erremintaren, industri hondakinen, parke

teknologikoen edota kulturaren diagnostikoa egitera jarriak dauden enpresa horien txostenek problema nagusi bat ezin gainditurik dabilta beti ere, eta zera da: ez dutela kulturaren espezifikotasuna onartzen eta problema guztientzat, desberdinak izanik ere, metodologia bera ezartzen dutela. Guggenheim-i buruzko Peat Marwick txostena eta beste batzuk, Idom txostena zineari buruz, Andersen-ek Bilbo Metropoliaren kultur zentralitateari buruz egindakoa edota gaur esku artean dugun hauxe bera, guztiz eskasak gertatzen dira, akatsez beteak ez daudenean, eta aldez aurretik esatea nahi dena besterik ez dute esaten. Unibertsitate Publiko bat zertarako ote dugun galde geniezaioke geure buruari.

2. Patxi Azpillaga, Juan Carlos de Miguel eta Ramon Zallok elkarlanean Gasteizko Udalarentzat egindako hiru txostenetan horrelaxe adierazten da. Txostenetako batean esaten den bezala, «komunikazioa/kultura sektorea eta berezikiago oraindik bere ikus-entzunezkoen azpisektorea, hedapenean dagoen sektorea izateagatik ezaugarritzen da gaur egun, enplegu kualifikatu eta balioaniztuna sortzeko ahalmen eta gaitasun garrantzitsuarekin, PYME malguen egitura osatzeko joera handia duena, garapen teknologiko etengabe eta kombinatuen eramailea, industri ehunaren enparatuan berrebilgarriak diren hainbat berrikuntza eta sormenen iturri, eskari sozial, publiko eta enpresarial gero eta handiagokoa, logika deszentralizatzaileekiko gai, aukera estrategiko berrien bila dabilzan kapitalen erakarmen-gune eta nazioarteko instituzioen aditasunaren objektu. Horrek ez du kentzen enpresa hauek badituztela baita beren alderdi txarrak ere, eta horien artean aipatu behar dira industriak merkatuaren gorabeheren aurrean eta Talde botere-tsuenen nazioz gairikoa kontzentrazio-logikaren aurrean duten ahuldadea (produktu sinbolikoko industriak izaki), hala nola etengabeko trebakuntza eta training-a mantendu beharra, pertsonalaren mugikortasunarekin batera, enpresa berritzaile eta pertsonal oso kualifikatua, eta baita inbertsio, batzuetan kostu handikoa eta erraz zaharkitzen dena dutenei dagokien bezala». Txosten horretan garatzen dira ideia hauek modu exhaustiboan. Ikus «Kultur Park baten proposamena Gasteizerako». Sustapen Ekonomikoa eta Enpleguaren Saila. Gasteizko Udala. 1993.

ETB ETA EUSKARA

Hamar urteren bueltan

JOAN MARI TORREALDAI

Konstatazio batetik abiatuko naiz gaurkoan: ETB jaio zenetik hona komunikabide honi buruz azaldu diren iritzi guztietan hizkuntzari buruzko iritzi-sorta izan da gehien agertu denetariko bat. Ez dakit kuantitatiboki ere gehiena bera ote den, baina eztabaidarik bizienak arazo honen inguruan hezurmamitu dira.

Hiru momentu berezi bereiz genitzake arazo honen inguruan:

1. *Lehen bizpahiru urteak*. Euskaldungoak ahobatez aupa-tzen zuen telebista. Beti ikuspegi berdinetik, soziolinguistikaren aldetik. Lehen euskal liburuaren optimismoa zekarkeen burura euskaldungoaren jarrerak telebistaren aurrean. Kon-trako jarrerarik ez zen falta izan, noski. Oso gogorra, gainera. Bai zenbait intelektual dibulgatzailearen aldetik eta, batez ere,

politikari ez-abertzaleen aldetik. Diskriminazioa zen kontra-argudio nagusia.

2. Euskal Telebistan erdararen presentziaren alde jokatzeko zutenen ahotsak *derrefente isildu ziren 1986an*. Beno, hizkuntzari zegozkionak isildu ziren, baina indarberritu erabilerara edo manipulazio politikoari zegozkionak. Hasierako erdarazaleen salakuntzak politikara lerratu ziren arras. Euskaltzaleek, aldiz, gogor salatu zuten erdararen aldeko jarrera-aldaketa.

3. *Azkenaldi honetan, pare bat urte*, hirugarren momentu batean gaudela ematen du. ETBren hizkuntz eredu berriz salatzen da. Eta kurioa: atzera ere hastapeneko argumentu berdin-berdinekin. Protagonistak aldatu egin dira, baina ez argumentuak.

EZTABAIDAREN MAMIA: DISKURTSU-AZTERKETA

Euskal Telebistari buruzko hizkuntz ereduaz ari garelarik, egin ohi den diskurtsoa ez da autonomia, diskurtso orokorragoaren zatia bat baizik. Esan nahi dut eztabaida honen markoa «euskara eta gizartea» dela. Euskarazko telebistari egin ohi zaizkion salakuntzak euskarazko irakaskuntzari, funtzionarien euskalduntzeari... egin ohi zaizkien eite eta molde berekoak dira.

MAILA ESPLIZITOAN

Bi argudio nagusi ageri dira euskara hutsezko telebista baten aurkarien aho eta lumatan, biak gainera elkarri lotuak: *diskriminazioa eta demokrazia*.

Esplika nadin:

Euskara ulertzen edo/eta hitz egiten ez duen ororentzat diskriminazioa omen da lehengo ETB (oraingo ETB-1), aktiboki zein pasiboki, esan nahi baita, telebista baitan aritzeko (langile nahiz konbidatu) zein ikusentzule gisa. Guztion zergekin ezin omen da gutxi batuentzako baliabiderik sortu.

Demokraziaren abiapuntutik ere ondorio beretara iristen dira hauek berauek. Demokrazian, gehiengoaren iritzia nagusitzen da, eta kitto.

Ez naiz luzatuko iritzi-trukaketa hauetan, baina ezin etsi puntu pare bat aipatu gabe, ETB euskaldunaren legitimitate-bilaketan:

- Hizkuntza minorizatu baten kasuan gaude, eta irizkera soziolinguistikoko elementalaren ikuspegitik euskarari *diskriminazio positiboa* zor zaio. Nola nahi da, bestela, bi hizkuntzen baitako hiztun komunitateen indar-korrelazioa hobetu. Nola nahi da, bestela, Euskararen Erabilera Arauzkotzezko Oinarrizko Legea betez, gizarte elebiduna eraiki, ahulena indartuz ez bada, eta horretarako baliabideak jarritz, eta beraz Euskal Telebista?
- *Demokraziaren* izenean egina izan arren, funtsean argudio ez-demokratikoa da ETBz egin ohi den diskriminazioaren salakuntza. Nik dakidala, demokraziaren funtsa, hain zuzen, gizarteko basa indarrak, berezko indarrak, bideratzean, zuzentzean, orekatzean datza. Eta ez gehiengoaren matematika besterik gabe aplikatzean. Eta deskuidatuz gero, zenbait arazoren gain soroan alferra bezala pasatzean.

MAILA INPLIZITOAN

Maila inplizito honetan, hau da, esan eta adierazten denaren azpi-azpian, batzuen eta besteen diferentzia honetan datza: euskararen gizarte-funtzioak onartzen diren ala ez.

Edozein hizkuntzaren —eta beraz, euskararen— gizarte-egitekori oinarrizkoenak bi dira: funtzio sinbolikoa, identifikatzailea; eta funtzio pragmatikoa, komunikazioaren funtzioa.

Galdera gisa honela formula genezake hori: Onartzen al da euskara dela Euskal Herriaren hizkuntza, bateko, eta besteko, Euskal Herriko gizarte modernorako gai dela?

Diskurtsu-azterketak hor bilatzen du jarrera batzuen eta besteen gakoa, galdera bikoitz horri eman ohi zaion erantzunean. Hortxe dago marra bereizlea.

ETBren ONARPEN POLITIKOA GAUR

Baina ez ote naiz ari errealitateari pittin bat alde banatara tira egiten?, edo/eta aspaldiko tirabira bat aipatzen?, zeren eta ETB- lek gaur egun guztien onarpen politikoa baitu?

Egunkarietatik jakin dut onarpen horren berri. Talde politiko guztiek onartzen *omen* dute ETB-1. «Bai, baina...» esango nuke nik. Esaldi horren azpian formula asko kabitzen dira, eta ez dute denek balio berdina euskararen normalizazio soziolinguistikoaren aldetik eta, ezta ere, segurura, hiztun-komunitate euskaldunaren premien aldetik. Ikusi egin beharko litzateke formula batzuk balio ote duten ETB komunikabide den aldetik edo/eta soziolinguistikaren ikuspegitik.

Esanberri dudan guzti honek balio du jarraian esatera noana ulertzeko, kokatzeko, esplikatzeke. Hemendik aurrera konkretuan arituko naiz, baina ez nuke nahi ikuspegi orokorra galtzea. Atsotitz edo esaera zahar txinarrak dioena saiestuz, ez bainuke nahi ilargiari begiratu beharrean norbait behatzari begira gelditzea. Horregatik da hain beharrezko testuingurua eta markoa gogoratzea.

ETBz ZENBAIT OHAR

Hiruzpalau puntu azpimarratu nahi nituzke hemen, nola bilakaeraz hala egungo egoeraz, eta hitz erdi bat etorkizunaz.

FUNDAZIO-HELBURUAK ETA SORRERAKO IZPIRITUA

Ez naiz bakarra zera pentsatzean, abiapuntuko helburu haiek ez direla zaharkitu. Adibidez, nere oraingo alorrari dago-kiona bakarrik aipatzearen, EITB Legearen zortzigarren puntuaren ekarria:

«La promoción de la cultura y lengua vasca, estableciendo a efectos de la utilización del euskara, los principios básicos de programación, teniendo presente la necesidad de equilibrio a nivel de oferta global de emisiones radiotelevisivas en lengua vasca en la Comunidad Autónoma.»

Azpimarra dezagun euskararen promozioa eta euskararen erabilpena, biak printzipio-mailan dauzkagula hemen emanik. Maila bera du, baita ere, gero ikusiko dugun *eskaintza orokorra orekatu beharrak*. Oso inportantea.

Printzipio fundazional honen izpirituari telebista-sortzailleen gogoia eta borondate politikoa erantsi behar zaio. Eus-

kara hutsezko telebista arrunt eta osoa izan behar zuen ETBk, hauen ustetan, sekula lortu ez bazuen ere lortu osoki euskarazkoa izatea, nahiz eta beti izan den antidiglosikoa.

(Borondate politiko horren frogak eta testigantzak mila dira.)

Gaurko telebistak, onerako zein txarrerako, distantzia dexente hartu du jatorrizko izpiritu eta gogo hartatik. Horregatik diot, ez dela hau guk amestu genuen telebista. Gu geunden oker. Agian, inozo eta optimistegi ginen.

ETB-2, BESTE HISTORIA BAT

Arras desberdina da 1986ko diskurtsua, Jose Maria Gorordok desarroilatu zuena. ETBn erdara sartzeari eskatzen zutenen diskurtsua bereganatu egin zuen, eta ETBren hizkuntz mugak gaintitzea, efikazia, euskara eskusibista ez izatea, zergak ordaintzen dituen %100engana iristea proposatzen du. Hortik dator ETB-2, eta mihi gaiztoek diotenez eragin politiko zuzenaren bilaketatik.

Sorrera-arrazoiei so, bistan da lehenaren eta bigarrenaren aldea: gako edo klabe kulturala da nagusi lehenaren sorreran, eta gako politikoa ETB-2ren sorreran. Bi helburu, eta beraz, bi hizkuntza.

ETBren historia, beraz, bitan banatzen da: Gorordo aurreko eta harrezkerokoa.

ETB-2 sortzeaz gain Gorordok ETB-1en programazio-eredua ere moldatu egiten du. Hitzez hitz jarraitzen diotela ematen du behintzat, aitatasuna aitortu gabe bada ere. (Egia esan, lehenagotik zetorren joera hori, baina ez horren nabarmen.) Gorordoren eskeman ETB-2 da «la televisión de aquí», orain esan ohi den bezala, eta ETB-1 euskalduna. Euskalduna bai, baina zein programazio-eredurekin? Hona zer zioen Gorordok 1985eko abenduaren batean:

«La audiencia no es el único baremo a la hora de medir la función de un medio como ETB o la gestión, aunque no debe ser olvidado.

No comparto la tesis contraria de que si el medio es en euskera, olvidate de la audiencia.

Tenemos que distinguir tipos de programas y poner los más positivos por delante.

Tenemos por ejemplo un nivel de audiencia infantil, adicto, superior al 50%. Todo eso queremos potenciar.

Otro campo a potenciar es allí donde la imagen juega fuerte como las retransmisiones deportivas o las culturales, donde podemos aumentar la audiencia y llegar a ese más de 60% de los vascos que no hablan euskera.»

ETB-1/ETB-2, ENPRESA BEREAN

Epe ertainera eta luzarora begira, hauxe dateke arazo larri-
netako bat.

(Parentesi artean esan dezadan ez naizela zuzen-zuzen oraingo egoera bere gordinean salatzen ari, joerazko arriskuak agerian jartzen baizik, arrisku tendentzialak seinalatzen.)

Bi kateak enpresa berean daude. Eta gainera, presupostu beretik bizi dira, diru-iturri ia berdinak dauzkate. Eta gainera, toki fisiko berean daude erredakzioak eta langileak.

Mesedetarako dela esan dezake norbaitek, «sinergiak» direla eta. Baina beldur naiz ni, azken batean, euskarazkoaren kalterako izanen dela antolamendu hau. Dagoeneko, erredakzio-mailan nabariak dira ondorioak: euskal kazetariak bi hizkuntz erregistroak aldatu egin behar ditu, bertako hizkuntza erdarara lerratuago dago, eta abar.

Bi puntu azpimarratu nahi nituzke hemen:

- Bat, eta lehena, memoria historikoa freskatuz, elebitasuna bultzatu duten organo guztiek euskara baztertuz bukatu dute. Fenomeno horixe da prentsa elebidunaren porrotzat jotzen duguna.. 1976an abiatu zen prentsa idatzi elebidunaren esperientzia negatiboa da osoki. Ez da askoz samurragoa porrta ahozko prentsan. Batean zein bestean auzia ez da euskararen kopurua jaisteia bakarrik, baizik eta euskararen egitekoa gesaltzea, banalizatzea, txokoratzea. («Euskara euskal gauzetarako»). Porrot hori ez da kuantitatiboki soilki neurtzen, kualitatiboki ere bai, eta agian honelaxe bereziki. Diglosia.

- Bigarren puntua lehenaren segida da: ez da nahikoa ord u-kopurua mantentzea, ez da nahikoa euskara hutsez kate bat mantentzea. Ikusi beharra dago edukia, programazioa. Oso erraz gerta daiteke ETB-1 bazter-fenomeno, fenomeno marginala. Arrisku horren mamuak ikusten hasia dago gaur

bertan bat baino gehiago. Haur eta gazteei zuzenduriko programazioak eta kirolak dute protagonismorik nabarmenena ETB-1ean. Agian ondo dago, oso ondo. Agian irtenbide bakarra da. Baina, —hau da nere galdera— ez al dago haur ez den eta nahitaez kirolzale ere ez den lagun eta kolektibo euskaldunik, agian kulturalki kezka baduenik eta informazioan sakontzea eta gizarte-arazoez eztabaidatzea eta, interesatzen zaionik? Ba, horrek beste kateren bat hartu beharko du, ez ETB-1. Zer dagoen bakarrik ez da kuestioa, baizik eta zer falta den ere kontuan eduki behar da.

ETBri buruzko txostenean ikusi dut telebista osoaren eta komertzionalaren eredia nahi dutela ETB-1entzat kultur arduradunek. Jatorrizko proiektuan bezala. Berau bide da lehena eta ETB-2 bigarrena. Programazio osoa duelako bide da lehena ETB-1. Argumentuak ez du indar handirik, egiazko programazioa ikusita. Eta gainera, lehentasuna eta menpekotasuna ez dut uste programazio-ugaltasunetik soilki neur daitezkeenik. Borondate politikoak bideratzen du lehentasuna. Eta borondate politikoa neurtzeko biderik egokiena eta zuhurrena diruen erabilera da. Baina, dirudienez, banaketa hori, zer doan ETB-1era eta zer ETB-2ra ez dago jakiterik. Lastima.

Egoera honen, edo hobeto, joerazko arrisku honen aurrean gogoeta pare bat datorkit gogora: gure tertulietatik at utzi dugun «belaunaldi galduaren» ideia hura, eta, bestetik, lehen ere azpimarratu dudana: ETBren premia, bere funtzio guztietan euskara normalizatzeko.

Prentsa idatziko elebitasunaren paraderoa aipatu dut diglosiaren arrisku gisa. Berdin aipa dezaket euskal liburugintzaren kasua ere. Barne-desoreka handia du liburu-produkzioak: literaturak eta irakaskuntzak osatzen dute produkzio osoaren %80. Nola ase, bada, honela, euskaraz, gizakume larri batek kulturalki badituen beste premiak? Desoreka hau gaindiezina da merkatuaren eskain-eskariaren korrelazioz. Plan-gintza behar da. Erakunde publikoen esku hartzea.

(Gainera, ezin dut esan gabe utzi, kirolaren bidez ETB-1eko audientzia gehitzea erraza bezain ustela dela. Ez da batere esanguratsua euskararen normalizaziorako. Horixe baita telebistak euskararen premia gutxien duen programa).

AUDIENTZIA VS EUSKARA?

Telebista euskaldunari aurpegira beti egozten zaion zorioneko audientzi-eskasiak hitz pare bat egin nahi nuke.

- Audientzi-irizpideen aurrez-aurre zerbitzu publikoaren kontzeptua dago, ez euskara.

ETB, gogora dezagun, telebista publikoa da; zerbitzu publikoa, beraz. Eta honegatixe bere izan-arrazoian eta bere helburuetan oinarritzen da, eta ez audientzi-neurketan.

Audientzia eta zerbitzu publikoa ez dira elkarren ukatzaile, kantitatea eta kalitatea beti eta berez ez diren bezala elkarren kontrako. Baina ez dira nahitaez betiere ondo moldatzen elkarrekin. ETBk audientzia behar-beharrezkoa du, bizi ahal izateko, eta horren bila moldatu beharko ditu programa batzuk. Baina ETBk diferente izateko obligazioa du, eta zerbitzu publiko dela demostratu beharra. Elementu bereizle horietan, zerbitzu publiko izatean egiaz eta benetan, hortxe dago bere legitimitatea. Hori bateko.

Eta besteko, gurean audientziaren arazoa gehiegitan hizkuntza arazo bilakatu da, lehentxeago aipatu dudana bezala. Hau da, euskarazko telebista ukatzeko bide berri bat. Euskarazko telebistaren markoa, horientzat, gizarte osoa da, eta ez euskaldungoa, bere marko naturala. Horrela bada, ikusentzulegorik handiena harturik ere, eta programazio bikainena ere, audientzi-neurketaren arabera ezingo luke bere burua justifikatu ETB euskaldunak.

Gogoratu nahi nuke, orobat, audientzia «à tout prix» bilatzea (hau da, enpresa-etekinak gehitzea) telebista pribatuaren helburua izan daitekeela eta, bestetik, joera arriskutsua dela, audientzia gehienaren prezioa askotan kalitate-eskasia da eta, masifikazioa.

EKOLOGIA INFORMATIBOA

Kontzeptu giltzarria dugu hau: ekologia informatiboa edo telebisten eskaintzaren oreka

- EITBren legeak begi luzea izan zuen: telebista euskaraz izatearen arrazoiatarik bat eskaintza telebisiboa orekatzea da: «necesidad de equilibrio a nivel de oferta global». Gaur egun, euskaldungoak eduki baduen tamainara (%25era) ere ez da iristen proportzio hori, %10 baita.

Desoreka hori ETB-2k gehitu egin du, zertan esanik ez da.

- Hizkuntzaren auzia, beraz, EITBko Legeak markatzen duen eskaintza telebisibo orokorraren mailan planteatu beharko genuke. Orain arte, aldiz, ETBn bakarrik eztabaidatu da, ingurunerik ez balego bezala.

- Burugabekeria ote da, besterik ez bada, gogoratzea TVE e republikoa dela, gurea ere badela, eta deus gutxi egiten duela euskaraz, eta politikoen eta indar sozialen protesta gutxi jasotzen duela, arrazoi horregatik? Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrak deus gutxi, deusez ez esatearren, esku hartzen du horretan.

Gogoan dut ETB-2ren oraingo soluzioa hirugarren kanaletik proposatu izan zela hasieran. Errazegi eman da amore horretan, iruditzen zait.

BUKATZEKO

Kritikak kritika, arriskuak arrisku, joerak joera, eta beldurak beldur, garbi gera bedi euskarak eta euskal hiztun-komunitateak behar-beharrezkoa duela telebista euskaraz, euskaraz bizi ahal izateko.

Gaurko eta —zer esanik ez— biharko telebista-eskaintzen ugaltasunaren eta aniztasunaren aurrean, eta *zappinga* eskutan, sekulako kezka sortzen zait ETB euskaldunaren etorkizunaz. Hau da, zeintzuk izango dira telebista euskaldunaren ezaugarriak? Nire iritzian, nortasun-seinale horiek izango baitira ez bakarrik telebista bera legitimatuko dutenak, bizi-arrazoia emango diotenak, baizik eta bizia bera ere bai, bizi-iraupena ziurtatuko diotenak. Bizi-arrazoia gauza bat da eta bizi-iraupena beste bat.

Esan nahi baitut, euskal telebista batek beltza duela etorkizuna, askoren artean telebista bat gehiago izanik, nortasun gabea baldin bada, definizio zehatzik ez badu. Euskarazko izanaz gain, kalitatezko programazioan eta ekoizpen propioan jo behar du gailurra. Jai du bestela.

Neure buruari behin eta berriz, kezkatu, egiten diodan galderarekin itxi nahi ditut lerro hauek: gaurko ereduak eskaintzen al du aski garantia inguruaren eraso eta erosiari luzaroz eutsi ahal izateko?

GUNEN GURPILEAN

ANDONI EGAÑA

LAZKAO-TXIKI: «JOINO!»

MARIO VARGAS LLOSA

ATOTXA: EUSKAL FUTBOLAREN GIPUZKOAKO BIHOTZA
HUTSERANZKO BIDAIA

HASIER ETXEBERRIA

HOLMES-EN GUTUNA (edo, NONGOA DA EUSKAL ARTEA?)

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

LURKANPOKO BIZI ADIMENDUA

HAZKUNDE EKONOMIKOAREN MUGAK

HOMINIZAZIOAREN IBILBIDE ANITZAK

EMAKUMEZKOAREN GARUNA, GIZONEZKOAREN GARUNA

JENARO GARATE

GURE BASERRI ETA BASERRITARREN ARAZO LARRIA

VOLKSWAGENWERK AG —VW— OSPETSUAREN KRISIA

GAURKO KRISIAREN DIAGNOSTIKO APAL BAT

BEGOÑA DEL TESO

BERLINALEKO ESKAPARATEA PASA ETA BARRURAGORANTZ

«ACCION MUTANTE», MUTA MUTATIS DUDA-MUDATAN

ANTZERKIA, POLTSIKOKOA ALA ERRALDOIA?

ETB BETI ISTILLU FRANKOTAN

KULTURA
ARTEA
ZIENTZIA
EKONOMIA
IKUSKIZUNAK

KULTURA

ANDONI EGAÑA

LAZKAO-TXIKI: «JOINO!»

Urtearen hasierak kultur arloan berri hitsik ekarri du. Ez niretzat halere, Lazkao-Txikiren heriotzarena bezain mingarrik. Joan zaigu Joxe Migel, eta joan den eran joan delako apika, izan dugu denborarik aski, goraipamenetarako, hau edo hura kantatzeko, halako edo bestelako idazteko...

Gogoetarako ere, izan dugu nahikoa asti. Eta aitortu beharrean nago zenbaitetan tristura sentitu izan dudala Lazkao-Txiki gizon umoretsu, alai eta txistosoaren neurrira murrizturik sumatzean. Lazkao-Txiki, batipat, bertsolaria zen. Sakonean bertsolariarekin egingo genuen topo, edonondik zulatzen hasita ere. Bere umorea, hitz-jario txispaduna, alegi ona eta aldarte

hobea, azaleko postura ziren; jendearen aurrean azaltzeko modu bat.

Bertsolari ikaragarria zen Joxe Migel. Bere estiloan, izan denik onena. Bere estiloa zein zen? Bi bertsolari-mota bereiziko nituzke. Bertsoa bota ondoren entzulearen ahotan «klaro!» esaera sortarazten duena, eta bere bertsoarekin entzuleari «joino!» bat lehertarazten diona. Batak, oso segundo gutxitan entzuleak ordu erdian aterako lukeen ondorio berbera jaulkitzen du dotore tolestatua eta horrek eragiten du harekiko mirespena. Besteak, entzuleak bizitza osoa emanda ere aterako ez lukeen punta bati heltzen dio, eta daitekeena da entzuleak hainbatean bere burua harritzea espero ez zuen bide horretatik abiatzean.

Lazkao-Txiki izan da «joino-bertsoen» errege bakar eta aldaezina. Beti berriaren bila ibiliko zen, zer asmatuko, entzuleak asetzeaz gain bere burua gozatzea beharrezko bailitzaio. Agian, txikitan, daltonikoa izaki, bere adiskideek marrubi-mordoa aurkitzen zuten bitartean bera esku-hutsik itzultzeak zerbait nahiaren grina piztu ziolako.

Hargatik sortzen zidan tristura adimen urriko zenbait bertsozalek bertso-jarioa eten eta behin eta berriz errepikatu zituen txistek kontatzeko eskatzen hasteak. Hori Pavarottiri «Pintto Pintto» kantatzeko eskatzea da; ezkontzara bokadiloa eramatea; Parisa amagiarrebarekin joatea...

Jenio askok jasan dute garaikideen aurrean onarpenik ezin lortua.

Lazkaomendikoari, zorionez, ez zaio horrelakorik gertatu. Baina zelantzan nago bere itzala ez ote diogun arbola handi batetik, eskurago geneukan txikiago batera itsatsi. Datozen belaunaldien esku uzten dut, lehengora, behar zukeenera, itzul dezaten.

MARIO VARGAS LLOSA

«Ni Vargas Llosaren favoritoa naiz» esango nuke euskaldun askok ohi duen bezala favorito hitzarekin subjeto eta objektu-nahasketa egingo banu.

Kontua da, eta egia, Vargas Llosa izan dela nire idazle kuttunenetarikoa.

Gaztetan erdi gogoz-kontra hasitako *La ciudad y los perros* eta *La Casa Verde* gutxi bezain josiak geratu zitzaizkidan barruan. Gerora, batzuetan asebate egin ninduten: *La tía Julia y el Escribidor*, *Conversaciones en la Catedral*, *La Historia de Mayta...* eta inoiz zapore gazi-geza utzi ere bai: *La guerra del fin del mundo*, *El hablador...*

Nolanahi ere, eleberrietaraino «light» premia heldu zen garaietan, arin-nahiari, labur-beharrari, ulertterazari men egi-teke aurrera jarraitu zuen idazletzat neukan peruarra.

Maitea nuelako eman zidan min Peruko Presidentziarako hautagai aurkeztu zenean. Norekin eta kontserbadoreekin alajaina! Noren aurka eta komunistek eta sozialistek babesten zuten estatalizazio-prozesu indartsu bat eragin nahi zuen Alain Garciairen aurka! Ni bere betiko faboritua izan eta neri horrelako jugada bat egiteak fideltasun-ezak sortu ohi duen behasun gorakoak eragin zizkidan. Ez nuen ulertzen eta ez nuen ulertu nahi ere. Amodioa amodio denean baino ematen ez den erreakzioa izan nuen: nire gelan sartu, giltzari buelta eman eta ohean etzan.

Denborak gertaerei garrantzia kentzen irakatsi zidan. Azken batean, Vargas Llosarekikoa ez zen berria. Faboritismo eta ez faboritismo-kontuak ideologia zertzeladen ondorioz gauzatzen zirela ongi nekien. Loroñistak eta Bahamontistak ez ziren batarren edo bestearren zale txirrindaren gainean zuten trebetasunari begira bakarrik, beren ideologia nazionalistaren arabera baizik. Eta galbahe bikoitz hori askotan ez da justua.

Denborarekin bada, ikasi egin dut Vargas Llosarena eramaten. Eta gainera, politikoa ez baino idazlea den lekuko gisara, azalpenak ematera datorkigu. Argitaratu berria du *El pez en el agua liburu*a. Bertan, politika-munduan bizi izan dituen saltsak kontatzen dizkigu.

Lehenengo lo-orduak lapurtu dizkit. Izango ahal dira tira-tira eginda, ia etetear zegoen harreman-soka eder hura bere onera etor dadin!

ATOTXA: EUSKAL FUTBOLAREN GIPUZKOAKO BIHOTZA

Ez dakit estrainekoz eman den horrelakorik, baina egunero behintzat ez da gertatzen. Atotxa bota aurretiko azken «derby»a zela eta, Errealak eta Euskal Telebistak futbol-zelaiaren historiari buruzko bideo bat egin zuten, sarrera hartzen zuen orori oparituko zitzaiona.

Jokatu zen partidua, joan zen jendea trumilka, eta bakoi-tzak zegokion bideo-zinta jaso zuen. Eta orduan hasi ziren xextrak. Bat baino gehiago ziren kexu, bideo hori euskara hutsesan egina zelako, zenbait pertsonaiaren eritziak eta iradokizunak salbu.

Erdaldun askoren aurkako eritzia, gaitzesssssspen-irrintzia, gutxiespen-negarra eta zanpatuaren kezka entzun beharra izan dugu. Behin, eta opari batekin hainbeste jasan behar izan badute, orain ongi uler dezakete askotan eta opari ez, eskubide genuenarekin, euskaldunok jasan behar izan duguna eta egun ere jasaten duguna.

Nor bere etxean obra txiki bat egiten hastea nahikoa izaten omen da zubipe ziztrin batean bizi direnen egoeraz jabetzen has-teko. Nahiago nuke erdaldun horien haserrea ere oldozketa-bide horretara zuzenduko balitz!

HUTSERANZKO BIDAIA

Euskadiko Ezkerraren ibilbidearen inguruan agitaraturiko liburu baten izenburuaren erdipurdiko itzulpena besterik ez da goiko hori. Ez dut gainera Egido jaunaren liburua behar adinako arretaz irakurtzeko modurik izan.

Baina, izenburua baino ez bada ere, aitzakia ona izan daiteke barrua kitzikatzen dabilkidan zenbait mamu kanporatzeko. Susmoa baitut, eder-begira, tontoak ere listo bihurtzen direla, epelak sutsu, erdipurdikoak lehen mailako.

Ez dakit, zalantzak ditut, bidaiak kolektiboki ezertarako balio izan duen. Indibidualki, neuri, balio izan dit.

Abiatu, gehien zekienak arrazoi zuen garai haietan abiatu nintzen, ikastolan eta Antonianoko ikasgelatan, non politika

kezkak genituenak errez eta berez hartzen baikenien gaina ez zituztenei. Gerora pentsatu izan dut gure pekatu larria azkarregi espabilatu izana izan zela. Hobe zela gu manifestazioetara joaten ginen epokan, kiderik koldarrenen eran mezetara abiatu. Futbol-taldean hasieratik jokatu edo aulkitxoan egon Txikiren hiletara joatearen arabera zegoenean, batere joan ez eta entrenamendura azaldu. Rosa de Luxenburgo irakurri behar-rean Fisika eta Kimika estudiatu. Herrian ikasi eta bizi orde kanpoan estudiatu eta ezertaz akklaratu ez.

Azkarregi espabilatu ginen, bai. Partido Nacionalista lehen hauteskundetarako zorro-zorro prestatzen hasi aurretik esaterako. Adibidez, Altsasuko Mahaia sortu baino askoz ere lehenago.

Eta geroxeago ezuste handia jasan genuen. Mezetara joaten ziren haiek, manifestazioetan ikusi genituen. Titular jokatzegatik Txikiren hiletara joan ez zirenak bizia Euskadiren alde emateko prest zeuden. Fisika eta Kimika baino ikasten ez zutenak «Euzkadik behar zaitu» aldarrikatzen zuten paparretik eta kanpoan ikasi eta itzulitako herriko seme prodigoek herriari buruzko lekzioak eman nahi zizkiguten.

Urte-mordo batean zeharkako begiradak bota genizkion elkarri. Pipertu egin ginen. Guk, galoiak erantzi nahi ezean, goitik behera begiratzen genien ezjakin, arribista-talde haiei. Haiek, amorruez eta isekaz guri. Amorruez, galoiak nondik geneuzkan ez ulertu arren, bageneuzkala eta zerbaitengatik geneuzkala sumatzen zutelako. Isekaz, ustezko ala egiazko galoi horiek, behin eta berriz ezertarako balio ez zutela frogatzen zelako.

Nik, eta horretarako balio izan dit bidaiak, ikasi dut parez pare begiratzen, iraganari kasorik egin gabe etorkizunari so jartzen. Gainerakoei ere horixe bera eskatzen diet. Bestela, BUPeko garaietan bezala, klariona hartu eta pizarrara irten beharko dut hau, hori eta hura esplikatzera. Eta orduan, batzuk aho-zabalik eta beste batzuk aho-zabalka geratzeko arriskuan zeundekete.

ARTEA

HASIER ETXEBERRIA

HOLMES-EN GUTUNA (edo, NONGOA DA EUSKAL ARTEA?)

Torreal dai adiskidea: zeure aholku guztien kontra, Sebastian Holmes kontratatu nuen, azkenean, niri emandako lan zaila berak egin zezan. Stop. Oraindik ez da azken konklusioetara iritsi, baina bien bitartean har ezazu, Holmesek bere lagun Patxi Watson-i igorritako eskutitza. Stop. Agian «Jakin» erako baliagarri izango zaizu eta. Stop. Besterik gabe, agur. Stop. Hasier Etxeberria.

Oso estimu handiko Patxi Watson adiskidea:

Zeure houseko buzonean jasotzen duzunean, ederki harrituko zaitu nire gutun honek, baina zure beharretan nabil aspaldion, Watson laguna. Zein lurraldetan nagoen jakin nahiko duzu lehendabizi, ordea, eta beste ezer baino lehen, esatera noa: Basque Country partean nabil. Bai, gure Atlantic berberak bustitzen duen lurralde barbariar honetan. Ez France, ez Spain, berak nahi gabe, biak batera den paraje honetan.

Joandako timesetan hemen ba omen ziren kasinoak, palazioak eta lorategiak, baina ez nau hona plazerak ekarri, lan-enkargu guztiz zail batek baino. Esanen didazu nola iritsi zaidan lurralde hain urrunetatik lan-eskaintza bat, eta harro erantzun behar dizut nire ospea ez dela Gure Erreginaren Lurralde zabaletara bakarrik hedatzen. Badira han eta hemen nire arrakasten berri dakitenak eta horretxan haritik etorria da, zalantzarik gabe, esku artean dabilkidan kuestionamendua.

Enkarguaren egile zuzena ez dut ezagutzen, tartekari lodi bat bidali baitzidan gauez eta ustegabea, baina lan-baldintzen kontratua argia da oso. Eta inbestigazionearen galdera ere bai. Zorionez.

Alabaina, lurralde honetan berria izaki, tartekari berari galdegin diot nola bizi diren lurralde honetako biztanleen izpirituak, eta zuzena izan da oso erantzunean. Ez dakit zergatik baina Spaindarren aurkako tornua antzeman dut bere hitzetan, batez ere iazko gertaerez hitz egin didanean:

«1992. urte eroak nahiko distantzia hartu du azkenerako eta urrezko dominak irabazi zituztenen izenak ahaztu zaizkigu dagoeneko. Sekula ikusi gabeko antolaketa izugarrietan hondoratu ziren untziak, xahutu altxorrak eta gainditu garai guztietako errekorrik handienak. Hainbeste kirolek, kulturak eta festak ito gintuen denok ia. Amazonasek baino ur handiagoak sortu zituen Espainiak eta haien zurrumbiloan etorri gara denok krisi beltzaren itsasora, bere altzora edo, hobeto esanda, tripan behera. Beltzuneak irentsita gaude orain, eta iazko argi guztiek ez dute deus argitzen gaurko bidean.»

Hitz haiek entzundakoan, babak auzitan zeudela ikusi nuen, Watson maitea, babak, eta neuk bezain ondo dakizu zerorrek lehenik dela arnasa eta ondoren babak. Gainontzeko guztiak datoz gero, handik urrutira, gizakion beharren artean. Horregatik harritu nintzen inbestigazionerako gai hain altruista, blaust, luzatu zidatenean. Jakinaren gainean zeuden nire iker-tzaile-soldata ez dela txantxa, gainera.

Aitzin pausoetan baizik ez nabil oraino eta erantzun zailko kuestionea dugu arestian. Sudurrak diost hala dela, Watson. Hargatik gertatzen da mingarri zu hor eta ni hemen egotea. Distantziamenduak, zure laguntzarik ezak, gehiegi etsipendu ez nazan izkiriartzen dizkizut, beraz, lerrook, Watson. Deitzen diot «Kontsolamenduaren Methodoa».

Inbestigazionea *Basque Artea nongoa den bilatzea* da. Eta galdetuko duzu zer egiten dudan nik ezagutzen ez dudan kuestioneetan sartuta. Ba, horrexegatik, Watson maitea, horrexegatik. Erantzuna ezagutzen ez dudalako galdu nahi ditut, hain prezeski, neure betileak lan honetan.

Hala ere, konklusioneetatik hain urruti nabilen honetan, adierazi nahi dizkizut neure burutazioak eta inbestigazioneak, batez ere, ikus dezazun zein den korapiloz betea egin didaten azken enkargu hau.

Lehenik, jakin behar duzu Basque Countrya ez dela bat. Bi, hiru edo hogeita dira. Mintzaira, historia eta desioa mila zati ezberdinetan daude zatituta eta denak deitzen dira Basque, beraiek Euskal esaten dutena. Tiroak ere badabiltza bazterretan, gure Ireland negargarrian antzera.

Gauza guztiak bezala, Artea ere Euskal omen da. Biziki kezkatzen ditu Euskal Artea zein den jakiteko kuestione honek.

Zein da benetako Euskal Artea? Bertan jaiotakoek egiten dutena? Bertara bizitzera etorritakoena? Bertako mintzaira arras zaharra ezagutzen dutenena? Arte-tradizioari jarraitzen diotenena? Zein tradiziori, ordea? Zein abangoardiari? Zein eskola, zein bideri? Azken finean, eta kuestionea zentzu zuzenagoan uler dezazun, *nola nabaritu liteke artelan bat Euskal ote den?*

Ene Watson maitea, ikusten duzu zein den zaila gaurko inbestigazionea ni bezalako pipa-erretzaile arrunt batentzat. Laguntza bila abiatu naiz, beraz, liburutegira eta, beste batzuen artean, bi liburu hautatu ditut. Bata, *El kitsch, el arte de la felicidad*. Abraham Moles, Paidós argitaletxekoa. Bertan ikusi dut *kitscha*, artea bera bezala, gertaera eta ekintza unibertsala dela. Zutik ez, baizik etzanda ematen dela. Horizontalean, alegia.

Beste liburua *Pasajes. Actualidad del Arte español. Pabellón de España 1992* izenekoa da. Bertan biltzen dira iazko urtean Spaingo Azoka Unibertsalean erakutsi ziren 50 artista ospetsuren lanak. Eta tartean badira ustez Euskal diren zazpi: Txomin Badiola, Angel Bados, Eduardo Chillida, Cristina Iglesias, Pello Irazu, Juan Luis Moraza eta Darío Villalba.

Pintore eta eskultoreak dira guztiak. Baina zergatik dira Euskal? Basque Countryn jaioak direlako? Gainera, pare bat Navarran jaioak dira eta Navarra ere Euskal ote? Norentzat? Euskal baldin badira zergatik dira Spanish Art?

Galdera guzti haien artean derrepente erotuko nintzela pentsatu nuen, Watson maitea, baina dedukzionaerako biderei jarraiki, katalogo eder horretako zazpi Spanish-Euskal Artista Navarrorum horien arteko balizko loturak aztertzen hasi nintzen eta, lehenik eta behin, beraien artelanei begiratu nien.

Luparik gabe ikusten zen han ez zegoela inolako loturarik, eskola edo estilo bakarrik, mintzaira apartekorik. Gainontzeko herrialdeetan bezala, artistaren hizkuntza partikularra bezain unibertsala ikusten zen lan guztietan. Agian, eskulturen ugartitasuna, tridimentsionalitaterako erraztasuna, baina ez dakit. Berlinen eta Italian ere horrela gertatzen omen da.

Bigarrenez, pentsatu nuen, jaiolekuan, bizitokian eta Euskararen ezaguerak eman ziezaiekeela, artelanei ez bazen, artis-

tei sikiera, nolabaiteko loturaren bat. Baina ez. Horretan ere ez nuen suerterik izan, Watson maitea.

Batzuk beste lurraldetan jaio eta Basque Countryra etorriak ziren. Bestetzuk, bertan jaioak izanik ere, Madrilen eta New Yorken bizi ziren. Bertako hizkuntza, laster ahaztuko zaion batek bakarrik ezagutzen du zazpien artean... Galduta nengoen berriro, Watson. Inon ez zegoen erantzunik.

Gauetan ez dut oraino ere ondo lo egiten. Beti kuestione berbera buruan: *zerk egiten du artelan bat Euskal? Nongoa da Euskal artea?* Eta erantzunik ez zetorren inondik.

Apur bat gehiago ikertzea erabaki nuen eta eskultore gehienengan aitorten batzuk entzun nituen. Behin eta berriz, gazteek eta zaharrek El Viejo deituko baten izena aipatzen zuten. Batzuek arazoak zituzten haren lankeratik ihes egiteko. Bestetzuk aldeginde zeuden jada haren magal likatsutik, baina denek zuten gogoan haren lana eta harekin ikasitakoa. Hortxe egon zitekeen matazaren lehen haria eta badaezpada, tira egin nion apur bat lokarri mehe hari.

El Viejo nor zen jakitea ez zitzaidan batere zaila egin. Mundu guztiak ezagutzen du hemen. Bibliographia ugari ere aurkitu nuen. Baina bide hark ere ez zidan balio.

El Viejo bera Euskal ote zen? Zergatik? Eraiki ordez husten hasi zelako? Ez al ziren lan berorretan ibili abangoardietako beste artista ospetsuak ere? Zertan zebilen koadro zuriaren gaineko koadro zuria margotu zuen Malevitch? Zertan Rothko, Brancusi, Giacometti, Calder... Serra bera?

Ez, ez, El Viejo ere ez zen Euskal. El Viejo, Art baizik ez zen beste guztiak bezalaxe eta finish.

Zer da orduan, Euskal hitza arteari dagokionean, Watson? Hasieran bezala nago eta agian beste muturren bati heldu beharko diot argi bila.

Zozo-aurpegia ikusi didatenean, hirugarren liburu bat eman didate begietara: *Lertxundi. Euskaradun arte unibertsala. Mikel Arjel Lertxundi eta Maribel Aiertza. 1988.*

Liburu beraren sarreran irakurtzen dut:

«Zergatik 'euskaradun' eta ez 'euskal', beti esan ohi den bezala? Horixegatik hain zuzen; azpaldian ixildu gabe erabili izan den hitz eder hori guztiz gastatua dagolako hainbeste erabilera desgokiagatik. Euskal artea gora, euskal artea behera esan ohi

da Euskal Herrian egiten den arte dena multzo berean pilatzeko, eta ondorioz zalantzak eta polemikak sortzeko. Gauzak argi daudenean, herrimina sakona eta zintzoa denean, ez da zalantzarentzat tokirik izaten.» (sic)

Hitz hauek irakurritakoan, are gutxiago ulertzen ditut Basque Countryko biztanleak, Watson. Txartzat hartzen dute zalantza eta polemika, antza. Gainera, zer ikusi behar du herrimik artista handia ala kaskarra izatearekin? Arraioa, Watson, oraintxe bai galdu naizela!

Liburu barrura begiratu eta Lertxundi izeneko eskultorearen lana ikusten dut. Ez dakit, euskal, euskaradun edo nola deitu euskulturgile honi. Harri, burdin eta egurrez egindako konposaketak dira. Ez dakit zergatik, Japon aldean egindako zenbait artelanen antza hartzen diet begirada batean.

Agian hortxe dago gakoa, Watson. Bai! Hortxe dago argia! Japon eta Euskal berdinak dira!

To be or not to be, Watson. Beti bezala, elementala, Watson. Artea denak unibertsala behar du izan arte izateko. Gainontzekoak etiketak dira, Watson. Etiketa komertzialak. Basque, Spanish, British, European... hori merkatuaren arabera erabili behar da txorizoak saltzeko. Made in Japan bezala, Watson.

Bai gauza elementala! Agian elementalegia zuretzat, ezta, Watson?

Hala ere, bidaliezadazu lehenbailehen zeure uste eta iritzia. Bien bitartean jaso zure adiskide honen diosalik aretatsuena.

Sebastian Holmes

ZIENTZIA

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

LURKANPOKO BIZI ADIMENDUA

1961. urtean Estatu Batuetako Green Bank herrian, eta Frank Drake zientzilaria koordinaturik, astronomo-talde ospetsua bildu zen, gai benetan bitxia aztertzeko: lurkanpoko zibi-

lizazioen existentzia. Kongresu berezi hartan zibilizazio extralurtarren existentziaren kuantifikazio probabilitikoa aztertu izan zen eta gaur ospe handia duen «Drake-ren ekuazioa» ere hantxe asmatu zuten. Ekuazio horretan Eguzki-sistematik kanpo bizi adimendua sortu, egituratu eta garatzeko behar diren faktore guztiak baloratzen dira.

Gure galaxian 300.000 milioi izar daudela kontuan hartzen badugu, Drake-ren ekuazioak izar-multzo ikaragarri horretatik zenbat izarretan planeta-sistemak egon daitezkeen definitzen digu, eta horietatik bizia sortzeko ekologikoki egokiak direnen kopurua ere kalkulatu. Azkeneko horien artean bizia benetan sortu denen kopurua ere kalkulatu digu formula bitxi horrek, eta gero kopuru horretatik zenbatetan sortu den adimena. Bukatzeko, une honetan bertan gure galaxian gu bezala teknologikoki aurreraturik (alegia, guk bezala elkarkomunikazio kosmikorako irrati-teleskopioak sortzeko gai direnak) dauden zibilizazioen kopurua ere kalkulatzeko gai da Drake-ren formula.

Drake-ren formularen terminu desberdinen ebaluazioa oraindik irekita dago, baina jadanik emaitza batzuk baditugu eta benetan inpaktanteak dira, batez ere formula horren terminuen balorazioak oso kontserbadoreak direla kontuan hartzen badugu. Akordio osoa ez badago ere, gure galaxian ehun milatik gorako zibilizazio adimenduak existitzen direla onartzen du egun zientzilari askok.

Eta zientzilarien sinesmen hori praktika ernegarri bihurtu da. Estralurtarren existentziaz seguru bagaude, horrek esan nahiko luke, seguraski, beren presentziaren seinaleak galaxiaren bazter guztietara barreiatzen ari direla, eta hori horrela bada, egin dezakegun lehenengo lana seinale adimendu horien entzute-jarraipena egitea da.

Esan eta egin! Gure galaxiaren diskoaren ertzean dauden bizitza luzeko izarrek hasi gara jadanik aztertzen. Astronomoek dudarik ez dute, bizi adimendu horiek gu bezalakoak badira igorriko dituzten mezuak irrati-bandan egingo dutela seguruenik, energia gutxi behar baita lan hori burutzeko. Gainera, irratiaren bandan komunikazioak izateko zonalderik hoberena hidrogenoarena da, oso eskukorra baita. Banda horretan, hain zuzen, ari dira lanean zientzilariak energiaren

muin zorrotzak etengabe bilatzen, tontor horiek seinale ez-naturalen lekuko baitira eta, beraz, izaki adimenduek bidalitako seinaleak izateko kandidatorik hoberenak.

Horrelako azterketak 60 eta 70eko hamarkadetan egin ziren, inolako emaitzarik lortu gabe. Baina orain dela hiru hilabete eskas Arecibo-ko 300 metroko irrati-teleskopioarekin zientziaren historian inoiz martxan jarri den proiektu garrantzitsuenari ekin diote. Hamar mila milioi pezetaren laguntzaz, NASAk 10 urte iraungo duen entzute-programa sistematiko bat martxan jarri du. Programa horretan gure Eguzkiaren antza duten mila izar desberdin aztertuko dira ordenadorearen bitartez eta hamar milioi kanaletan. Ordenadoreak seinale adimenduak izan daitezkeen seinaleak aukeratuko ditu, ondoren zehazkiago aztertuak izan daitezzen.

Lehenengo miaketan naturala ez den seinale bat aurkitu omen dute baina, oraindik, goiz da seinale adimentsua den ala ez esateko, denboran ebaluazio zabalagoak behar baitira. Dena den, jadanik, gauza bat esan daiteke: Giordano Bruno bezalako filosofoek, Carl Sagan bezalako astronomoek edo George Wells bezalako ameslariak beste munduak ikusteko zuten grina, azkenean, zientziak hartu du bere esku. Eta horrek mundu berri baten atarian jarri gaitu bapatean. Zeruetan burutzen ari den ikerketa horren emaitza positiboa baldin bada, gizateriaren geroa guztiz aldatuko da. Gure galaxian beste izaki adimenduak daudela egiaztatzea lortzen badugu gure pentsamenduko formak, balore erlijioso eta etikoak, eta arrazionaltasuna bera ere, esploratu gabeko lurralde berri batean sartuko dira, eta orduan gure mundua ez da inoiz jadanik lehen bezalakoa izango.

Zientzi mailan inoiz egin den esperimentu garrantzitsuenaren artean aurkitzen gara, beraz. Onerako izan bedi.

HAZKUNDE EKONOMIKOAREN MUGAK

1971. urtean «Erromako Kluba»k informe oso garrantzitsu bat argitara eman zuen «Hazkundearen mugak» izenburupean. Txosten hartan zientifikoki demostratu zen kapitalismoaren mugagabeko garapen ekonomikoa ez zela posible, baldin eta

biosfera eta gure ondorengo belaunaldiak zaindu behar bagenituen. Egoera tamalgarri horretara ez heltzeko «Zero hazkunde» defenditzen zuten. Orain, hogeitun urte beranduago, informe hori gaurkotuz, beste txosten berri bat argitara eman du Erromako Klubak. Txosten hori moldatzeko WORLD 3 sistemen dinamikak aztertzeko erabiltzen den programa berria erabili dute, emaitza benetan kezkarriak ondorioztatuz.

Nahiz eta teknologikoki gero eta sistema hobekak erabili, nahiz eta inguruarekiko kontzientzia kolektiboa gero eta handiagoa izan, gizateriak erabilitako oinarriko errekurtsioek sortzen duten kutsadurak gaitzituak ditu, dagoeneko, fisikoki jasagarriak diren tasak. Eta tasa horiek drastikoki jaisten ez badira, eta egun bezala jarraitzen badugu errekurtsioen kontsumoa handiagotzen eta, beraz, ingurugirora kutsadura bidaltzen, hurrengo hamarkadetan elikagaien «per capita» produktioak gainbehera egingo du, eta beste horrenbeste gertatuko da energi eta industri produktioarekin. Horrek, ekonomia eta populazioaren beherakada ekarriko luke eta, ondorioz, kolapsoa.

Kolapso hori gaitzitzeko guztiz derrigorrezkoa dugu kontsumo-materiala gutxitzea. Baina horrek ondorio latzak dakartzu. Gure kulturaren oinarriko balore bat garapen esponenzialaren ideia da. Gure gizartean aurrerakuntza eta aberastasuna ekonomiaren bultzatzaileak dira. Kapitalismoak ezin du balore horiek gabe funtzionatu. Gaur egun, hazkunde ekonomikoari mugak jartzeaz hitz egiteari ezinezkoa deritza hala politikoki nola ekonomikoki. Gure gizarteko gizakumeek kontsumitzaile eta produzitzailetzat ikusten dugu geure burua, hierarkia soziala ondasunen metaketarekin lotzen da eta gure bizitzaren helburua gero eta gehiago edukitzea da. Horiexek dira kapitalismoak ezarri dituen baloreak.

Azken honek arrisku ikaragarria dakar berekin, zeren eta soziologikoki, ekonomikoki, kulturalki eta sozialki ezinezkoa baitugu atzera egitea. Bestalde, «Erromako Kluba»ren ondorioa ezin garbiagoa da: horrelako baloreekin jarraitzen badugu sistema sozioekonomikoa ez da gestionagarria izango eta kolapsorantz zuzenduko da etengabe. Irtenbide bakarra, beraz, «gizarte orekatua» lortzea da. Egungo gizartearen ziklo ekonomikoak lehundu behar dira, eta sistemaren stock-ak (populazioa, kapitala, lurra, luraren emankortasuna, berriztatu gabeko

errekurtsioak eta kutsadura), oro har, egonkor mantendu beharko dira, gorabehera handirik gabe.

Kolapsora ez heltzeko gertatu behar diren aldaketak hain sakonak dira ezen iraultza bat moldatu beharko baita, nekal edo industri iraultzen garaietan gertatu zen moduan. Baina nola jarri martxan oraindik utopia den sistema hori?

Irtenbidea ez dago batere garbi. Alde batetik, egungo kapitalismoak duen inertzia geldiarazteko ehun ekonomiko, politiko eta sozialetan aldaketa sakonak sortu beharko lirateke, eta horretarako denbora beharko da. Baina, denbora-faltan gabil-tza jadanik.

Sartuta gauden zulotik ateratzeko eman behar den lehenengo urratsa informazio zuzena ematea da, arazoaz kontzientzia har dezagun. Baina, informazio horrek erabat berria izan beharko du, eta helburu eta erregela desberdinekin sortua. Informazio horrek hazkunde fisikoaren mugagabeko garapena kritikatu beharko du, hazkunde eta garapenaren arteko aldea azalduz eta, azkenean, populaziorengan jokamolde eta balore berriak sortaraziz.

Lehen esandakoarekin batera sare berriak sortu beharko dira: kazetaritza ekologista, enpresagile berdeak, kontsumitzaileen kooperatibak, eta abar... Oraindik nola egin ez bada-kigu ere, kapitalismoak gizakumearengan sortu duen indibidualtasunaren, eta hil ala biziko lehiakortasunaren aurka jo beharko da, balore horiek ez baitute geroko gizartean, helduko bada, arrazionalki existitzeko tokirik izango. Gizarte berri horretan funtzionatzeko gizakumearen kualitate hoberenak beharko dira eta ez okerrenak, gaurko gizarte kapitalistan gertatzen den moduan.

Garbi dago gizarte berri hori, oraindik, utopia dela, baina jakin badakigu gaurko sistema sozial eta produzitzaileak hilibira zuzentzen gaituela. Beraz, hil ala biziko bidegurutzean aurkitzen gara.

HOMINIZAZIOAREN IBILBIDE ANITZAK

Egun, paleoantropologia zientzia heldua da. Hominizazioak jorratutako ibilbidea aztertzeke buruhezurren azterketa morfologiko hutsa, jadanik, atzean gelditu da. Gizakumearen his-

toria arakatzeko, egungo biokimikak oso ordulari zehatza aurkitu du proteinetan, gure tximu-anaiekin ditugun erlazioak agerian jarri dituelarik haien bitartez. Scanner-teknikari esker posible izan da orain dela milioi urteak bizi izandako arbasoek beren burezurretan garunek utzitako arrasto ahulak (garunaren zirkunboluzioak, adibidez) berrikustea. Isotopoen fisikak gero eta teknika garatuagoak ditu fosilen datazioak zehaztasun handiz egiteko. Animalien jokabideak aztertzen dituen *etologia* garaikideak, *cromagnon*-en tankerako bizimoduak duten herrien azterketa egiten duen *antropologiak* eta desagertutako gizakumeen tresnak eta ostilamenduak ikeritzen dituen *arkeologiak*, hirurek, aurrerapauso itzelak eman dituzte azkenengo urteotan, eta istorio ernegarria kontatzen digute hominizazioari buruz.

Orain dela 6 milioi urte inguru gizakumea eta txinpantzea enbor amankomun batetik aldendu ziren, horren arrazoia geologian bilatu behar delarik. Garai haietan ekialdeko Afrikan mugimendu tektoniko ikaragarri handia gertatu zen eta bere eragin zuzena Afrika bi zatitan zartatzea izan zen. Zartaketa haren ondorioa «Rift» deitutako haranaren sorrera izan zen. Haranaren ekialdean aldaketa klimatiko eta ekologiko guztiz berriak gertatu ziren eta han bizi ziren antropeideek jasan behar izan zituzten. Mendebaldean, ordea, tankerako aldaketarik gertatu ez zenez, bertako orangutan, gorila eta txinpantzeek berdin jarraitu zuten, gehiegi eboluzionatu gabe.

Afrikako ekialdean, aldiz, garai hartako tximinoek zuhaitzetatik jaitsi behar izan zuten, beste gauza askoren artean, basoak desagertzen ari zirelako, eta «sabana» deritzon ingurune berrira moldatzera derrigorturik aurkitu ziren. Moldaketaren gauzarik garrantzitsuenetako bat lokomoziorako sistema hankabiduna hartzea izan zen.

Handik aurrera oso prozesu ebolutibo bitxia eman zen, adimena sortu arte. Hasiera batean, tximino haiengandik «*Australopithecus*» deritzon izakia sortu zen. Honek gizakumeare n gorputza izan bazuen baina bere buruak tximinoen antzekoa izaten jarraitzen zuen. Bere atzetik «*homo habilis*»a etorri zen. Adimentsuago zen eta harri-teknologiaren jabe zen. Hirugarren fase batean, «*Homo erectus*»a garatu zen. Honek bipedis-moa sistematikoki erabiliz irmo eboluzionatu zuen, sua, ehiza,

jangaien banaketa eta, azkenean, hizkuntza sortuz. Geroago, Neanderthal edo «Homo sapiens» deritzon lerroa heldu zen. Hauek gizakumearen historian gertatutako izotzaldi gogorre-nari aurre egin behar izan zioten eta, horrek bultzaturik, asko eboluzionatu zuten, garapen horretan hildakoen kultura sortuz. Azkenengo urratsean, «Homo sapiens sapiens»ak heldzen dira; hauek mundu osoan zehar zabaldu ziren. European bizi izandako aldakiari «Cromagnon» esaten zaio. Horiek izan ziren, dirudienez, euskaldunen arbaso zuzenak.

Orain arte kontatutako historia lineal hau ederra bada ere, azken urteotan oso eztabaidatua izan da. Ikerlari batzuen iritziz, eredu lineala erabilgarria bada ere, paleoantropologiaren fase primario batekin lotuta agertzen da. Egun, ditugun datuekin, historia hori askoz konplexuagoa azaltzen zaigu.

Ikertzaile berri hauen iritziz, «Homo sapiens sapiens»arengandik tximinoarenganainoko bidea deskribatzea ezinezkoa da. Badakigu «Sapiens sapiens»arengandik abiatuz, eta emez eme 300.000 belaunaldi osatu ondoren, ezagutzen ez dugun «Ierro gorri» baten bitartez txinpantzearenganaino helduko ga rela. Ibilbide ezezagun horri «eboluzio bertikala» (denborala) deritzo.

Baina horrekin batera, espazioan eboluzio horizontala ematen da. Honekin esan nahi duguna honakoa da: eboluzioaren katean ez dago izaki-mota bat bakarrik, asko baizik. «Homo habilis», «erectus» edo «sapiens» mota bat baino gehiago existitu dira, eta horrek zuhaitz ebolutiboan abartxo asko izatea dakar. Abartxo horietatik asko ateraezinezko ibilbide ebolutiboetan sartuko dira, beste asko aldiz korrante orokorra bideratuko dira eta, elkarrekintza eta elkartrukaketa asko gertatu ondoren, zuhaitzaren tontorreraino helduko dira. Tontor hori gaur ezagutzen dugun adimena da. Baina tontor horeraino heldzen den abarra ez da bakarra, abar-korrantea baizik.

Egungo paleoantropologo batek adimenerantz zuzentzen den ibilbide konplexu horren fosil guztiak aurkitzeko aukera izango balu, estratu kronologiko bakoitzean hominido-mota asko aurkituko lituzke eta ez zuen nola klasifikatu jakingo. Eboluzioarekiko ikuspuntu berri honek ondorio erradikalak dakartza. Horren arabera, adimenerantzko bidea ez da lerro-batekoa lerroanitzekoa baizik: are gehiago, litekeena da «Homo

sapiens sapiens» askoren existentzia gertatu izatea eboluzio horizontal batek sortuak, eta horrek intuizio eder batera garamatza; alegia, adimena bera ere sistema pluribertsikoa dela eta ez unibertsikoa, orain arte uste genuen bezala. Oso litekeena da, beraz, adimena gure planetan leku independentetan sortua izatea, nahiz eta geroago lerro guzti horietatik bat bakarrik inposatu beste guztiak desagertaraziz.

EMAKUMEZKOAREN GARUNA, GIZONEZKOAREN GARUNA

Gizonezko eta emakumezkoaren artean dauden aldeak ez dira bakarrik atributu fisikoetara mugatzen, baita adimen-mailan problemak ebasteko duten gaitasunetara ere. Sexuak, dirudienez, adimen-eduki kualitatiboki desberdinak sortarazten ditu emakumezko eta gizonezkoengan. Horrek ez du esan nahi, noski, adimen-koefiziente desberdinak izan behar dituztenik.

Ikertzaileek diotenez, gizonezkoak trebeagoak dira emakumezkoak baino honako jardueretan, batezbeste: espazioko lanetan, arrazonamendu matematikoetan, punteriako eta erruta egokia aukeratzeko norabidearekin lotutako probatan. Emakumezkoa aldiz, azkarragoa omen da pertzepzio-mailan, korrelazionaturik dauden objetuen aukeraketetan, adierazpen berbalean, aritmetikako kalkuluetan eta erruta batean ikusitako zehaztasunak gogoratzeko ahalmenetan ere.

Orain dela gutxi arte, diferentzia horiek kulturalak zirela uste zen, inguruneak bultzaturikoak. Azken azterketen arabera, ordea, hori ez da horrela. Ikertzaileek diotenez, garun-funtzioak bi eratan moldaturik daude sexuaren arabera. Eta hori jaio baino lehen gertatzen da sexu-hormonen eraginpean denbora desberdinetan baikaude emakumezkoak eta gizonezkoak. Jaio ondoren giroak eragin handia du, baina jadanik orientaturik dauden bi garun-mota desberdinen gain eragiten du, ar ala eme garen neurrian.

Ikertzaileen ustez, garunaren sexu-bereizketa hori diferentzia anatomiko konkretuetan isladatu behar da. Egindako ikerketetan ikusi ahal izan da hipotalamoaren zonalde preoptikoa handiagoa dela gizonezkoen kasuan emakumezkoen kasuan baino. Horren arrazoia garun-funtzioen bereizketarekin loturik egon liteke. Ikusi ahal izan da ere garunaren bi hemisferioen

antolakuntza (espazioko senari eta hizkuntzari dagokiena) simetrikoagoa dela emakumeengan gizonengan baino. Horre n arrazoia ere lehen aipatutakoa izan liteke.

Gizakumearen bizitzan zehar ere ezagutzarako pautak hormonon fluktuazioen eraginpean egon litezke. Emakumezkoen errendimendua, adibidez, hilerokoa duten garaietan, aldatu egiten da estrogeno-maila igo ala jaitsi egiten den heinean. Aldiz, urtaroen araberrako aldeketek espazio-gaitasunean eragiten dute gizonezkoengan.

Ikerketarako eremu berri honek hasi baino ez du egin, baina desberdintasun horiek argitzeko jadanik hasi dira hipotesi batzuk kaleratzen. Batzuen iritziz, hominizazioaren azkenengo 50.000 urtetara joan beharko genuke aipatutakoaren arrazoiak aurkitzeko. Ikertzaile hauek diotenez, hautespen naturalak moldatu zuen bi garun-mota hauen egituraketa. Zergatik? Aldaketa horiek hobeak gertatu zirelako, termino ebolutibotan. Mila urteetan zehar hominidoak biltzaile-ehiztari kolektibitatean bizi izan ziren, eta horrela antolatutako gizarte batean sexuen rol-banaketa erabatekoa izan zen seguraski. Arrak ehizean ibiliko ziren eta beren gain hartuko zuten taldearen zaintza. Emeak, bitartean, bizitokiaren inguruetan jangaia biltzen ibiliko ziren, familia zainduz aldi berean.

Bi lan-modu horien espezializazioak bi taldetan (emakumezko eta gizonezkoarenean) presio selektibo desberdinak eragingo zituen, horren ondorio zuzena arren eta emeen garunen espezializazio eta eraketa desberdinen sorrera izaki.

Teoria hauek interesgarriak badira ere, kontuz ibili behar dugu. Soziobiologiaren historia ikastea baino ez dugu, ebolutioaren izenean zenbat astakeria eta arrazismo-mota defenditu diren ikusteko. Egun, krisi latzean murgildurik dagoen gure gizarte honetan ez dirudi emakumezkoen eta gizonezkoen rolen banaketa gaizki ikusia denik, batez ere, zientziaren izenean, emakumea bere etxean gelditu behar dela bere garunaren egituraketaekin bat egiteko defenditzen denean. Era horretan, emea, berriro ere, zokoratua izan daiteke *objektiboki* eta gero eta langabezia handiagoa duen gizarteak ez du arazo handirik izango horrelako joerak bultzatzeko. Egon gaitetzen adi, bada, zientzia historikoki interes politiko eta ekonomikoen menpe egon baita, eta askatzaile izan daitekeen bezala, zanpatzaile ere, erraz bihur baitaiteke.

EKONOMIA

JENARO GARATE

GURE BASERRI ETA BASERRITARREN ARAZO LARRIA

Ingaterrako Charles printzeak Parisen duela hilabete gutxi esandakoarekin hasiko gara:

«Les impératifs du commerce et les implacables rigueurs des “avantages comparatifs” doivent-ils nous amener à faire entrer les traditions et la vitalité de la vie et de la culture rurales dans la camisole de force d’une industrie comme les autres?»

Gure baserrien hustea eta oraindik baserritar irauten dutean etorkizun iluna jakinak dira, itxuraz behintzat. Baina ez behar beste, ikusiko dugunez.

Gaur egun, arazo ekonomiko garrantzitsu gutxi azter daiteke mundu zabalean gertatzen denari gainbegiratu gabe. Batetik, mugak eraitsiz goazelako bazter askotan. Bestetik, informatikari esker mundu guztiko berriak berehala daudelako ororen esku bazter guztietan. Eta horrela dago gure baserria mundu guztiko laborantzarekin lotuta.

Lehenbizi, zera ikusten da argi: baserrien krisia ere, gizarteak egin duen izugarritzko aurrerakadatik datorrela, neurri handi batean. Batezbeste, lurbera osoari buruz zentzuz egindako kalkuluek ematen dute produzitzen dena baino heren bat gehiago egiteko gai dela gizartea.

Asiako nekazaritza, 1980-1998 bitartean egin den aurre-
rapenari esker, erritmo bizkorragoan doa egungo emaitzen gorakada demografiarena baino. Dagoeneko Txinan lortu dute bakoitzeko 2.500 kaloriako muga gainditzea. Hegoamerikan eta Ertamerikan antzeko zerbait gertatzen ari da (salbuespenekin, Bolivia, adibidez). Afrika dugu, oraingoz, abiada honetara heldu ez dena, lurralde askotan.

Demografiari buruz, zera ari gara datoetatik jasotzen: behar materialak zenbat eta errazago lortu, hainbat eta txikiagoa dela herri-kopuruaren gehitzea, zerbait gutxitzen hasten ez badira.

Esandakotik, bi ondorio: bata, gosearen arazoa, Afrikan izan ezik, konponbidean doala. Bestetik, jatekoak gainezka egiten daudela Europako almazenetan, bezerorik ezean. Garbi dago arazoaren neurri internazionala.

Baina ez pentsa gero, konpetentziaren jokoa nagusi denik bazter guztietan! Hona hemen zer ekarri berri duen *Le Monde Diplomatique*-k:

«Ainsi la Suisse, l'Autriche, la Corée et le Japon, qui protègent très fortement leur agriculture (et donc, leurs producteurs, leurs paysages et un peu leur identité nationale qui, autrement, seraient balayés par la concurrence mondiale), ne jouent pas le jeu du libre-échange. Si, par exemple, le riz devait entrer dans l'archipel nippon à son cours mondial, aucun des 1.600.000 riziculteurs japonais ne pourrait survivre. Faut-il les sacrifier sur l'autel du libre-échange?»

Gizarte osoari dagozkion arazoei gainbegiratu ondoren, goazen gure baserritarrengana.

Gure baserritar urrien arazoa aparta da kasu eta puntu askotan. Sarritan behintzat, banakako etxeetan bizi dira, euren lur-sail, baso eta naturan itsatsita. Horregatik, baserritarrak bere lanbide-lanpostua galtzen duenean, ez du, soilik, beste lanpostu baten bila jo behar, ez. Baserritarrak, askotan, bere etxebizitza galdu/aldatu egin behar du, bere hizkuntza baserrian eseki, bizigiro zeharo berrira nahitanahiez ohitu.

Baliteke, bai, langile-sindikatuak lanpostua galtzeari begiratzea, eta ugazaba-sindikatuak lanbidea, enpresa galtzeari. Baina askoz gehiago merezi eta behar dute gure baserritarrek.

Baserria, baserritarrak izan dira, gure herri askotan, euskararen eta euskaldun-izatearen iturri eta emaile oparo, hitzez eta egitez. Ohiturak, tradizioak, era guztietako ikusmirak ekarri izan dizkigute kale-herrira. Behin eta berriz baserritik etorritakoek berreman eta berpiztu izan digute kalekumeok galdu eta hil izan dugun euskal tradizio aberatsa. Guk ez dauzkagu 1.600.000 arroz-nekazari, japoniarrak bezala; gure nekazari-kopurua urria da, batez ere gaur egun. Baina baserritarren arazoa euskal gizartearen arazoa da, beste edozein bezalakoa edo handiagoa, gure izakeraren, gure nortasunaren muinean

izan direlako orain arte beti. Charles Galeseko Printzearen hitzak berraipatuz bukatuko dut:

«Baserri-munduko tradizio eta bizindarra, beste edozein industriaren bortxa-alkandoran galaraziko ote dugu ba?»

VOLKSWAGENWERK AG —VW— OSPETSUAREN KRISIA

Euskal Herriko (Iruñeako lantegia dela eta, lehenbizi) arazoenez, ondo etorriko zaigu argitasun apur bat enpresa honen egoeraz.

- *Barne-eraketa* VW 1937an naziek fundatua izan zen, eta 1960an desnazionalizatu. Baina Sajonia Beheko Estatuak eta langileek bat eginik, gehiengoa dute, beste partaide pribatuen gainera. Hor dago VWen bereiztasun garrantzitsua bertako zuzendarientzat. Baita ere, gogoan eduki, VW taldekoak direla Seat eta Skoda.

- *Salmenta-kopurua*. European lehena da. 1992. urtean, VWek 2,32 milioi kotxe saldu zituen; Peugeot-ek 1,64 milioi; GMk 1,64; Fiat-ek 1,55; Ford-ek 1,52; Renault-ek 1,43.

Baina askoz gehiago saldu-asmoz, hedakunde garestiegiak egin zituen, krisi gogorra sortuz.

- *Produktua*. Kalitatezkoa. Orain arte bere izen onari esker garestiago saldu ahal izan du. «Golf» modeloa izan ezik, serie motzegiak lantzen omen ditu. Konpetentziak —frantsesak, adibidez—, kalitate berdin samarrekoak, merkeago eskaintzen ditu gaur egun.

- *Etekinak eta kostuak*. 1992an irabazi garbiak %80 jaitsi ziren: 147 milioi DM. Lan-kostuek salmenten %25 jaten dute VWn; Renault eta Peugeot-en %17-%19 besterik ez. Alemaniako langileak ondo eratuta daude bertako enpresa-egituran eta beste auto-enpresatako langileek baino opor luzeagoak dituzte. Aurten soldatak %4,9 igotzea lortu dute.

- *Programak*. Ferdinand Piëch Lehendakari berriaren ardura nagusia kostuak omen dira: 1994. urtea bukatu aurretik, 30.000 lanpostu kentzekotan omen dabil —12.500 Alemaniako—, Baina, agian, gehiagoren beharretan dago. Analistek diotenez, Alemaniako motor-industriak behar dituenak baino %35-%40 langile gehiago dauzka.

Eta F. Piëch-ek bete berri duen asmo nagusia, euskaldun bat kontratatzea izan da, maila gorenean enpresaren ibilbidea zuzentzen lagunduko diona: Ignacio López Arriortua.

Gizon hau, 1941ean Zornotzan jaio eta Bilbon egin zen ingeniari. Erosketa-antolatzaile bikaina baino askoz gehiago da. 10 lan-ordu zuzenetan kotxe bat egingo duen faktoria eraikitzean datza bere ametsa, «Plateau 6» deritzana. Europa eta Amerikako enpresa askok, 40 lan-ordu behar ditu horretxetarako. Ez litzateke marka makala izango. Eta faktoria hori Euskal Herrian kokatuko balitz, askoz hobeto.

GAURKO KRISIAREN DIAGNOSTIKO APAL BAT

Edozein gaitz sendatzeko hiru jakintza-sail behar ditugu: bat, gaixo dagoen gorputz-osagaiak —ad. bihotzak— zer egiten duen, zertarako den (sendakuntzaren jomuga, helburua); bi, zelan dagoen (errealitatearen ezaguera); hiru, zein eragiketa, zein sendagai doitu behar zaion (zientzi teknologiazko jakintzak). Ekonomian berdin da. Gaur egun jarduera ekonomikoa ondo ezik baldin badago, hirurak ezagutu behar ditugu: ekonomia normala, egokia —gure helburua— zein den; oraingo egoeraren berri zehatza eta zientzi teknikak, hemendik aurrera bere onera eramateko.

Guk, orain, lehenbiziko gaiari gainbegiratuko diogu. Hor ere hiru ezagutza-sail berberak behar ditugu: nora jo nahi dugun, non gauden, eta zer egin.

Bigarrenko puntua jorratuko dugu: non gaude ekonomiaren jomugei dagokienez?

Lau ekonomi mota orokor ezagutzen ditugu:

- Jomuga nagusia, eboluzioak darabilen bideari jarraituz, a u r rerabideari lotzea da. Hayer da ekonomia honen aitzindari gaur egun. Azoka da batuta, eta gu dantzari soilak. Ez du ardurarik gizaki batzuen eta giza talde batzuen galeraz, herri oso edo zatien eutanasiatz, «selekzio naturalaren eraginez» izango bada. Gure ekonomia internazionalen bizi-bizi dagoena.

- Azken jomuga Gizartea da. Hau izan da sozialismoaren oinarritzko joera. Batzuetan gizakia Gizartearen menpe dagoela esanez, bestetan Gizarteak, ondo eratuta egongo denean, gizakia askatuko duela aldarrikatuz. Sozialismo ekonomikoak zen-

tralismora jo izan du, planifikazio orokorrera. Jomuga honek gure garaiko praxian porrot egin duela esan daiteke.

- Liberalismo-mota bat. Liberalismo ekonomikoak bi adar ditu, enbor beretik sortuak. Batak zera dio: gizaki soilaren askatasuna lortzeko, Estatuaren eraginak ahalik eta txikiena izan behar du. Beste adarrak, berriz: gizaki soilaren askatasuna lortzeko, Estatuaren eginbeharra oso garrantzitsua da. Benerako liberalismo ekonomikoa, tradizioz besterik ez bada, lehena da, Estatuaren zeregina erabat murriztearen aldekoa, Adam Smit-ekin bat datorrena, gaur egungo mendebaldean teoria gidari dena gehienbat.

- Liberalismo ekonomikoaren bigarren adarra, ezkerreko liberalena da. Keynes da ekonomi mota honen buru. Batez ere *General Theory* bere liburu garrantzitsuenean esan zuenagatik:

«Geroari eta onura sozial orokorrari so egiteko eta efizientzia marginala kalkulatzeko, posizio egokian dagoenez, Estatuak ikustea espero dut gero eta gehiago zuzenean arduratzen luzerako inbertsiogintzan.»

Hori da munduko politiko eta funtzionari gehienek Maisu eta Profeta den Keynes-ek eginiko aldarrikapena.

Eta hortxe gaude gu, keynesismoan murgilduta, baina ur liberal klasikoetan, kontraesan nabarian. Eta hor egotean bat datoz gobernuak eta langile-sindikatuak. Eta sarritan baita enpresariak ere.

Gobernuek protagonismoa nahi dute: gauzak asmatzen, esaten eta egiten azaldu. Keynesen profezia bete.

Langile-sindikatuak, berriz, aldatu egin dira krisi-garai honetan: lehen, enpresak sozializatu, soldatak jaso eta lan-egunak gutxitu nahi izaten zuten gehienbat. Baina orain, oster, zera nahi dute: Gobernuek enpresak behartzea lanpostuak mantentzera.

Eta enpresariak ere beti ari dira gobernuari zerbait eskatzen, gobernuari zeregin eta eragin gehiago emanean.

Eta hemen dator, jomugen aldetik, krisi honen larritasun nagusia: ez dela sortzen enpresari berririk, ogibidetzat enpresa-bidea hartzearen kontra jarri dugulako den-dena. Enpresari berriak oztipo izugarri hauek ditu:

Gobernuaren aldetik, zerga izugarriak, gobernu izugarri «eraginkorrak» mantentzeko.

Langile eta sindikatuen aldetik, enpresari-bidea hartzen duenari ezarri nahi zaion zama itzela da: hartuko dituen langileen erantzule izan behar du beti-betirako, ogibidea hil arte eskainiz. Hori da lanpostu fijoak exigitzean eskatzen zaiona enpresariari.

Eta denok, gizatasunik gabeko txartela eseki diegu lepoan.

Gaurko mundu zabaleko giroan eta sisteman, azoka librearen garaian, enpresari berririk gabe gure ekonomia atzera eta atzera joango da. Enpresa berririk gabe ez dago ekonomia indartzerik eta gutxiago berritzerik. Hori garbi dago. Gaizki dihardugu, beraz, gure errentadun izan nahiaz arriskua eta berriztea eragozten. Zer pentsatu asko dago hor. Zer sistema-modu nahi dugu etorkizunerako?

IKUSKIZUNAK

BEGOÑA DEL TESO

BERLINALEKO ESKAPARATEA PASA ETA BARRURAGORANTZ

Egunkaria irakurtzeko ohitura arriskutsuari atxikia bazaude, aspaldi jasoko zenuen aurtengo zinemaldi berlindarraren porrotaren berri zehatza... Desde luego, erraza zara engainatzeko, lagun. Inork esan al dizu inoiz egunkariak luzatzen dizuten guzti-guztia ez sinesteko? Ba, kontuz ibili zinema-festak hizpide direnean.

Zinemaldi baten giroa azaltzera natorkizu. Horrela, hemen-dik aurrera batek baino gehiagok bidalitako kronikak hobeto ulertuko dituzu eta... Hala-holako diren egiei hola-halako diren gezurrak erantsiko dizkiezu lasai asko.

Lehenik eta behin, zera jakin behar duzu: egunkarietako buruei, printzipioz, Sail Nagusia baino ez zaie interesatzen. Eta, berez garrantzirik handiena duen hori, zinemalditako erronkarik galbidetsuena bada ere, konpromezu handiz eta

askatasun txikiz egina da. Jakina, berau dela zinemaldiaren eskaparate luxuzkoa, baina erosle onak jakin badaki kasu askotxotan eskaparateaz ahaztea eta denda barruan sartzea bidezkoa baino derrigorrezkoa dela.

Bigarrenik, kritikariak, salbuespenak salbuespen, tipo eroso eta berekoiak dira. Gure alde esan dezakedan gauza bakarra hauxe da: nekatu/nazkatu egiten gara zinemaldietan. Zinea barra-barra ikusi behar, kronika idatzi, faxez bidaltzeko hamaika ahalegin alferrikakoak egin, eta gero... mila kilometro dagoen erredakzio bateko lagun baten eskuetara ondo eta sanu iritsi den jakin nahi eta beldur hori... Beraz, Sail Nagusiarekin daukagun eginbeharra hobeto edo okerrago bete eta gero, zeharo ahuldurik geratzen gara, zisko eginda, eta ez dugu ikusteke eta seguraski, tamalez ikusi beharrekoak diren egun honetako beste 87 filmeren artean borrokatzeko gogorik edo... indarrik.

Hirugarrenik. Talde baten partaide izatea ohoretzat dugu. Gutxi doaz —goaz?— «por libre», gure kabuz. Dakizunez, talde guztiek buruzagia daukate. Ba «buru argi» horri zinemaldia «kaputt» dagoela okurritzen bazaio beste guztiak berri zabaltzeaz arduratuko dira.

Polita egoera, fina portaera, ezta? Arriskutsu samarra zinemaldi bateko benetako eskaintza prezio onean aurkitu nahi baduzu...

Ez dut esan nahi kritikari zuzenik ez dagoenik. Ezta nozitu behar izan nuen Berlingo zinemaldi hura zoragarria izan zenik ere.

Ez horixe. Izan ere, Sail Nagusia aspergarria izan zen arras. Hotza. Zirrarak gabekoa. Bihotz-zimikorik ez. Ez zenuen fotograma bat maitatzeko edota planu bat gorrotatzeko aukerarik ere.

Baina batzuetan, lagun, zinemaldietara ez zoaz zinemarik onena ikustera, ikerketa eta peskisetan ibiltzera baizik. Zeuk izan behar duzu sudurluze eta bazter-nahaslea. Egunkari eta aldizkarietan hain gutxi aipatu izan den «Forum» izeneko arloan, adibidez, zinea hustu arte miatzen duten egile askoren azken sorkariak zeuden. Esaterako, irudiaren gezur liluragarria aza-lean utzi nahi duen Atom Egoyam kanadiarraren «Calendar»,

edota dokumental etnografikoen erresuman errege den Jean Rouchen «Madame L'eau».

Forum horretan zeuden Txina, Finlandia, Estatu Batuetako irudi berriak. Bazegoen zer arakatu elurak estalitako eta Berlingo haizeak astindutako hainbat eta hainbat aretotan.

Bazeuden, adibidez, ahantzezinak suertatu ziren irudizko dokumentuak. Pikaroak zenbaitzuk: «Rock Hudson's Home movies», esate baterako. Bertan, umore garbi eta maltzurraz, begirune osoz, Rocken filme asko jorratzen ziren. Jolas bihurri eta,aldi berean, serio horren bitartez, garai urrun horietako mentura eta amodiozko fotogrametan jada, zegoeneko, garbitasun alaiatz mister Hudsonen homosexualitatea agerian zegoela ikusi genuen ahoa hortzak bete. Beste lan franko, sakon eta zeharo intelektualak ziren. «Manufacturing Consent» izenekoan 165 minututan zehar Noam Chomsky hizkuntzalari, filosofo eta politikan erreboltariaren pentsamendua goitik behera aztertzen zen, irudiaren kemena eta mila alde ederki aprobetxatuz.

Aurke lerroetan aipaturiko puntutxoak berriro dakarkizut gogora. Zinemaldietara ezin daiteke zinema on eta ikuskizun handikoaren bila bakarrik joan. Munduko zinema-erakusketa handienetara zineman, bizitzan eta errealitatearen egungo egoeran murgiltzera joan behar duzu. Batzuetan, sasoi onean aurkituko dituzu hirurak. Bestetan, ordea, kaskar eta ahuleziak jota.

Eta horretarako, zinema non, mundua zeren beldur, bizitza zertan den jakin-mina asetzeko, Berlin baino hoberik ez dago. Berlinalek beste inongo zinemaldik baino gogorrago isladatzen du munduaren atezua. Berlin hiria denetan biziena da. Gertatzen zaiona harriek ere esaten dizute eta egoera horren errainuek zinemaldia argitzen dute edo... itzalen artean uzten.

Arazakeria; neo naziei dieten espantua; oraindiño bitan banandurik darraien hiriaren eskizofrenia, sarri itxaropentsua, zenbaitetan ezkorra... Guzti hori kale eta plazetan nabaria zen. Guzti hori «Terror 2.000» filme espantagarrian zegoen harrapatuta. Zinemaldiak, kontatzen zuenaren indarkeriak eta kontatzeko era baldarrak beldurtua, iraindua, ez zion lekurik utzi pantaila ofizialetan, baina emanaldi bereziak izan ziren,

debekuaren erakargarritasuna duten horietakoak, proiektzio «piratak»...

Alemania bere iragan mingarria berreskuratzen hasia da. Hortxe, froga gisa, «Stalingrado» filmea. Areto komertzialetan, jendeak, Errusiako lautadetan gertatu zen sarraski haren berri jasotzean, negar egiten zuen.

Guzti hori zain eta eskura zegoen Berlinalearen inguruan baina guzti hori ez zaio interesatzen hainbat egunkariri. Bai, ordea, zinemazale, zinema-jale garenoi. Bizitza zinema, zinema bizitza eta Berlin ispilu.

«ACCION MUTANTE», MUTA MUTATIS DUDA-MUDATAN

Azkenean, Alex de la Iglesiasen «Acción mutante» entzute-tsu eta ditxosoa estreinatu zen gure artean. Badakizue, zinemaren teknologiarik garaiena darabilen hori. Almodovartar anaiek ekoiztua, lan garestia. *Variety* astekarian —ikuskizunen liburu santuan— luxu osoz iragartzen zen filme bihurri eta zientzia fikziozko hori. Euskal Herrian jaioa. Euskal Herrian errotua eta errodatua... «Beautiful people» delakoa Bilbon ba omen dabil jaun eta jabe. Elbarritu-talde armatu batek gogor, sutsu, estrategia barik, tontamentean egingo du kontra... «Acción mutante». Alde onik? Duen freskotasan akuilaria. Kontran zer edo zer? Kontu gehiegi, akaso. Hasteko, laburmetraia izateko pentsatua zela. Eta laburmetraia batek 90 minutu edo gehixeago dirauenean... luzeegia da benetan, nahiz eta efektu berezietan artisaurik onenak eduki.

Alexek eta bere koadrilak ez dakite hutsuneak betetzen eta gidoitxoa herren dabil, jira eta biraka, aurrerantz egin gabe.

Bestalde, zinema gehiegi ikusi omen du Alexek. Alajaina! Hori txarra al da? Segun. Zure lehenengo luzemetraiaren planu guztietan «Alien 3», «La matanza de Texas», «Mad Max», «La guerra de las galaxias»¹ keinu konplize bat egiten badiezu, ba... bai, txarra da, edo, behintzat, *pasote* aspergarri eta izorratea.

Errepara iezaiegun orain halako harrokeriaz aipatu izan diren efektu berezi horiei. Zer? Primerakoak, ezta? Ba, bai eta ez. Nire ustez, pilatze hutsa besterik ez da. Bai, egon badaude, baina inork ez daki probetxu ateratzen.

Denok espero genuen «Acción mutante»k astindu ederra emango ziola hemengo jendeak eginiko zineari. Egia da ondo doala takilan. Egia, baita ere, hasieran duen erritmo bizia inon ez dugula aurkitu, baina, txo, Alex, laburmetraia luze, garesti, biribilkatua atera zaizu.

Halere, gure zineak badu esperantzarik. Juanma Bajo Ulloaren «La madre muerta» eta Julio Medemen «La ardilla roja» Cannesera joateko lehia bizia daude lerro hauek idazten ari naizen martxoaren azken egunetan.

ANTZERKIA, POLTSIKOKOA ALA ERRALDOIA?

Martxoak 27. Antzerkiaren eguna. Han eta hemen proposamen txikitxoak. Poltsikoan, patrikan eraman daitezkeen lanak. Poltsikotik atera daitezkeen fantasiak.

Louvier's eta «Rizando las ondas» ikuskizun zaratatsua, kultur etxeek daukaten espazio nimiora izugarri ongi egokitzen den ideia zurrunbilotsuegia da. Olatz Beobide eta Begoña Baena, Donostiako Altxerri arte-galerian, eroetxe eta kartzeletara eraman nahi duten Silvy Plath poetaren oroipen gaziaz zamaturik. Eibarko hezkuntz konplexuan hamaika lan handi eta txiki egoera kaskarrean dagoen areto batean. Bertan, Karrika-ren «Hoy última función»ek merezia zuen harrera beroa lortu zuen. Baina ba al zen premonizio goibelik izenburu horretan? Horretaz pentsatzeari ekin baino bi segundu lehenago, Arteszena deituriko «kiliki»a hurbiltzen zaigu. Foru Aldundiak babesuriko egitasmoa da. Gipuzkoako Antzerki Publikoaren enbrioia. Mila esfortzutan ibiliak, trebatuak diren «Orain» taldeko Mari-bel Belastegi eta «Tanttaka»ko Fernando Bernues daude berri honetan katramilaturik.

Ezin hobeak ditu asmoak: ekoizpen duinak sortu, ikusle-goarengana hurbildu eta teatreruei lan serioa eskaini. Baina non da ikusle hori? Nondik agertuko dira antzesle horiek? Zer gertatuko da biharko ogia kili-kolo edukita ere kostata, izerditan halaber kontentu dabilzan horiekin?

Sosik gabe geratuko da Diputazioa, lehengai barik taldeak? Non demontre antzestuko dira «La cacatua verde» bezalako lan printzel horiek Gipuzkoan sei areto on besterik ez badago?

Norantz mugituko dira antzeslan fin horiek? Norekin? Noren-gana?...

Antzerkia ezin bizi kezkarik, sesiorik gabe. Alde, kontra, bai, akaso, sikiera, agian, zergatik?; handia, txikia, non salbazioa?...

Zaila erantzuna baina ezin daiteke inor esfortzuaeren beste aldean geratu. Arteszena handiegia, luxuzkoegia, tripontziegia den ala ez den dakigun bitartean, gero ere, teateru berdaderoak bila jarraitu beharko du. Bila dabilenak dagoena berreskuratu behar du. Urteak daramatzate Eibarko Jardunaldiek areto sinpatiko eta hautsak janda den hartan. Seguruena, Arteszenaren distirak min egingo die bere begi nekatuei.

Ohartxo bat: hemendik aurrera teateruak ez dira unibertsitateko neska-mutilak soilik izango. Orain, Masterdunak izango ditugu. Antzertik eta EHUK sinaturiko akordioa renarabera, Teatroa, bigarren zikloan ikastaro trinko, bete, mamitsueta ikasiko da... Ama maitia! Non ote herriz herri zebiltzan komeriante zoragarri haiek? «Karraka», «Trapu Zaharra», eutsi gogor, bestela kontratuak sinatzerakoan notak eta diploma eskatuko dizkizute programatzaileek eta!

ETB BETI ISTILU FRANKOTAN

RH, RH, RH, RH, RH negatiboa. RH positiboa. Eta badatoz Madrilgo komikoak eta ji ji ja ja eta jo jo jo. Eta badatoz gure garbitasunaren zaintzaileak eta kris kras, kris kras, artaziez kataplan. Eta gero gerokoak. Kendu eta gero... azalpen lelo. Zentsura? Ez jauna! Zentsura ezetz? Ezetz, ba! Askoz okerrago. Plim, plam, plum. Beraiek, nahi gaituzten bezain tuntunak garelakoan zeuden eta «polemika ez sortzearren...» artaziak erabili zituzten. Ai, ai, ai! Iñaki, Josemari eta Luis Alberto, tontotua daukazue odola ala?

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1. C
TEL. (943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

